

Testu zaharretatik hizkuntzaren didaktikara: Iturriagaren fabulen (1842) edizio kritiko modernoa¹

*From early texts to language didactics:
A modern critical edition of Iturriaga's fables (1842)*

Urtzi Reguero Ugarte*

Euskal Herriko Unibertsitatea/Universidad del País Vasco (UPV/EHU)

ABSTRACT: This work makes the case for the space classic texts should have in education and language teaching. Therefore, we present a critical edition of *Fábulas y otras composiciones en verso vascongado dialecto guipuzcoano con un diccionario vasco-castellano de las voces que son diferentes en los diversos dialectos* (1842) written by Agustín Iturriaga. We have updated the orthography and added some explanatory notes to make it available for children in primary and secondary school.

We have also elaborated a short dictionary with dialectal words and listed some locutions and proverbs, in order to improve learners' level and fluency in Basque.

KEYWORDS: Fables; Iturriaga; critical edition; language teaching; philology.

LABURPENA: *Lan honen asmoa da euskal testu klasikoek hezkuntzan eta, batez ere, hizkuntzaren didaktikan izan beharko luketen lekua aldarrikatzea eta ikasleen hizkuntza maila hobetzeko tresnatzat aurkeztea. Horretarako Agustín Iturriagaren *Fábulas y otras composiciones en verso vascongado dialecto guipuzcoano con un diccionario vasco-castellano de las voces que son diferentes en los diversos dialectos (1842) liburuaren edizioa paratu da, ortografia gaurkotuan eta ohar argigarriekin, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleek erabili ahal izateko.**

Edizioarekin batera, hiztegia osatu da Iturriagaren testuetan agertzen diren hitz dialektalekin eta erabilera murriztua dutenekin. Era berean, esamolde, lokuzio eta errefracuak ere bildu ditut, ikasleen euskara maila hobetzeko eta adierazkortasuna handitzeko iturri izan daitezzen.

HITZ GAKOAK: *fabulak; Iturriaga; edizio kritikoa; hizkuntzaren didaktika; filologia.*

¹ Lan hau “*Monumenta Linguae Vasconum (VI): avances en cronología de la historia y la prehistoria de la lengua vasca*” (PID2020-118445GB-I00) proiektuaren eta Hizkuntzalaritza Diakronikoa, Tipologia eta Euskararen Historia Ikerketa Taldea (DLTB; IT1534-22) ikerketa taldearen baitan egin da. Eskerrak eman behar dizkiet Ricardo Gómezi eta lan honen aurreko bertsioa irakurri eta ebaluatu duten kanpoko ebaluatzaile anonimoei testua hobetzeko egindako iruzkinengatik. Esan gabe doa huts guztiak nireak besterik ez direla.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Urtzi Reguero Ugarte. Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika Saila - Hezkuntza eta Kirol Fakultatea (UPV/EHU). Juan Ibañez de Sto. Domingo kalea, 1 (01006 Vitoria-Gasteiz). – urtzi.reguero@ehu.eus – https://orcid.org/0000-0003-1549-0738

Nola aipatu / How to cite: Reguero Ugarte, Urtzi (2025). «Testu zaharretatik hizkuntzaren didaktikara: Iturriagaren fabulen (1842) edizio kritiko modernoa». *ASJU*, 59 (2), 61-161. (https://doi.org/10.1387/asju.27561).

Jasoa/Received: 2025-05-20; Onartua/Accepted: 2025-11-12. Online argitaratua / Published online: 2025-11-18.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © UPV/EHU Press



Lan hau Creative Commons Aitortu-EzKomerziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten mende dago

1. Sarrera

Ez dira gutxi hizkuntzaren jabeakuntzaz eta didaktikaz diharduten lanak, euskaraz zein beste hizkuntzetan (ik., adibidez, Mariscal & Gallo 2014; Ituero & Casla 2017; Gutierrez & Ezeizabarrena 2022; Fabregat *et al.* 2023, berri batzuk aipatzearen). Azken hamarkadetan hizkuntzaren enfoke komunikatiboa aldarrikatu da: hizkuntzaren irakaskuntza gramatika erakustera lerratu ordez, hizkuntza komunikazio tresna gisa erakustea proposatzen da (ik. Del Rio 1993; Del Rio *et al.* 2016; Bombini & Lomas 2019; Cassany 2021).

Los enfoques comunicativos de enseñanza del lenguaje ponen el énfasis en que los alumnos aprendan a comunicarse lo mejor posible dentro y fuera de la escuela. Su concepto de *adecuación* no intenta sustituir, sino ir de la mano del concepto de *corrección*, de modo que los docentes no persigan solo que los alumnos hablen *bien*, que no limiten la enseñanza de la lengua oral a su aspecto *formal o estructural*, sino que además tengan como objetivo educativo promover el desarrollo de las destrezas o *habilidades pragmáticas* interactivas que conviertan a los alumnos en hablantes competentes y comunicadores eficaces. Hablar bien no es solo hablar correctamente, algo importantísimo, sino también ser un comunicador eficaz. (Del Rio *et al.* 2016: 15)

Gutierrezek eta Ezeizabarrenak (2022: 16) halaxe definitzen dute hizkuntza: “pentsamenduak gizaki baten gogotik beste batzuenara helarazteko erabiltzen da, eta tresna izugarri indartsua da edozein berri, sentipen, ideia eta burutazio solaskideekin partekatzeke”. Norberak bere buruarekin zein inguruko pertsonekin komunikatzeko erabiltzen den erreminta denez, hiztunen hurbileko egoerekin egunero ahoz, zeinuz zein idatziz erabiltzen diren erregistro formal zein informalekin lotzea da azken urteotan hizkuntzaren didaktikan egin den proposamen esanguratsuenetako bat (ik. arestiko aipua).

Bestalde, *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren literatura* hitza bilatuz gero, hauxe irakurriko dugu: “Hitzaren bidezko adierazpenean, ahozkoan nahiz idatzian, oinarritzen den artea; era horretako idazlanen multzoa edo multzo jakin bat”. Zentzuzkoa bide da, beraz, pentsatzea arte horrek zer paper joka dezakeen arte hori bera gauzatzeko erabiltzen den hizkuntzaren didaktikan.

Mendozak (2007) ematen du horren erantzuna, eta aldarrikatzen du literatur tesuek hizkuntzaren benetako ereduak eskaintzen dituztela:

[L]o cierto es que la gran diversidad de ejemplos de uso que aparecen en el discurso literario ofrece amplias y eficaces posibilidades para asimilar un gradual aporte de *input* lingüístico y comunicativo en un proceso de aprendizaje que emplee materiales literarios. (Mendoza 2007: 10-11)

Aurrerago ideia bera defendatzen du:

La diversidad de recursos lingüísticos que muestran las producciones literarias es la base para muchas propuestas que enriquecen la competencia comunicativa a través de la recepción de las creaciones escritas. La literatura sirve de fuente y recurso adecuado para ampliar los conocimientos interculturales y pragmáticos, aunque estas facetas no se hayan tenido muy en cuenta hasta poco tiempo. (Mendoza 2007: 13)

Azken urteetan hainbat irakaslek kezka izan dute ikasleen euskararen kalitateaz, eta hizkuntzak adierazkortasuna ere galdu duela esan izan da (Mounole 2024). Gazte-

laniak eta frantsesak euskararen duten eragina bistakoa da eta zenbait egitura zuzenean bi hizkuntza horietatik kalkatu dira maiz (ik. Garzia 2005). Hiztun on eta komunikatzaile eraginkorrek lortzea izan behar du hezkuntza sistemaren eginkizun, besteak beste, eta hor hizkuntzaren didaktikan diharduen irakasleak badu lana: bateko, hizkuntza lan-tresna duten heinean, beren hizkuntza etengabe landu behar dute (Mitxelena-ren metafora baliatuz, aizkora zorrotz mantendu behar dute) ezagutza hizkuntza horren bidez transmititu behar dutelako eta, besteko, beren ikasleen hizkuntza maila jasotzeko, hobetzeko ahalegina egin behar dute. Haiena lehenengo, ikasleena gero.

Manterolak eta Idiazabalek (2009: 54) dioten bezala, hizkuntzaren didaktikaz ari garenean “helburu aurrerakoiak garbi izatea ezinbestekoa da: euskaraz eta erdaraz (gaztelaniaz, frantsesez nahiz ingelesez) hitz eginez atera behar luke ikasleak eskolatik” eta, Euskal Autonomia Erkidegoko curriculumaren arabera (77/2023 dekretua), hiztun elebidunak sortu behar ditu eskolak. Orotara hamabi erronka finkatzen ditu dekretuak, eta horietatik bat da hau: “Euskara erabilera eta euskal kulturarekiko jakin-mina garatzea guztion ondasunean duten eragina baloratzea”.

Helburu hori lortzeko, euskaraz idatzi edo euskarara itzuli diren testuak baliabide egokiak izan daitezke ikasleen hizkuntza maila lantzeko, hobetzeko eta adierazkortasuna eskuratzeko. Azken finean literatura-obretan elkarrizketa informalak, narrazioak, deskribapenak, esamoldeak, baliabide linguistikoak eta lexiko aberats(ago)a agertzen dira. Ezbairik gabe, hizkuntza ikasten edo lantzen jarraitzeko literatura-testuak baliabide ezin utzizkoak dira, betiere ikasleen hizkuntza maila eta eskaintzen den testuarena kontuan harturik. Hori dela eta, lan honetan Agustín Iturriagak 1842an argitaratu zituen fabulen edizio eguneratua paratu da eta bertan agertzen diren hitz, adizki eta esamoldeen zerrenda gehitu da.

Hau da lanaren egitura: hasteko lanaren helburuak (§ 2) finkatu eta aurrerariak eta justifikazioa (§ 3) azaltzen dira. Gero, Agustín Iturriaga nor zen eta zer baliabide duen esplikatzen da (§ 4) eta ondoren 1842ko fabulen edizioa osatzeko baliabideak irizpideak aurkezten dira (§ 5). Lanaren atal nagusia edizioak betetzen du (§ 6) eta ondoren datoz hiztegia (§ 7), esamoldeak (§ 8) eta adizkitekia (§ 9).² Ondorioek (§ 10) ematen diote bukaera lanari.

2. Lan honen helburuak

Euskal literatura idatzia 1545ean hasten da, Etxeparek argitaratu *Linguae Vasconum Primitiae* poema liburuarekin. Maiz esan izan da XVI. eta XIX. mende artean euskaraz idatzitako testu gehienak elizgizonen idatzitako obra erlijiosoak direla; kristau-ikasbideak edo dotrinak dira batez ere. Bada, ordea, Álvarez-Uriak (2024: 9) dioten bezala, “testu laiko eta literario interesgarriak gure hizkuntzan”. Gure idazle klasiko horiek ezagutzea, aztertzea, irakurtzea eta lardaskatzea kulturara gerturatzea da, hura ezagutzea eta hizkuntza lantzea.

Gaur egungo eskoletan klasikoak irakurtzeari buruz, Rodríguez-Miñambresék, Otegi eta Etxanizek (2019: 17) diote urrunegi gerta dakiekeela, batez ere “gizarte

² Egiari zor, ebaluatzaile anonimo baten iradokizuna izan da adizkien zerrenda ere gehitzea, eta lana aberasten duelakoan nago.

globalizatu eta aldakorrean artearen eta literaturaren tradizioaren jabe ez diren irakurleei". Zailtasun horri beste bat ere gehi diezaiokegu: euskal idazle klasikoaren artean gutxi dira ikasleek dituzten edizio fidagarri moderno eta gaurkotuak; horietako bat da Axularrena (Urgell 2015; Salaberri Muñoa 2017).³ Jatorrizko testua gehiegi ukitu gabe, baina gaurko irakurleak behar ditu klasikoaren bertsio eguneratuak. Ez naiz ari, baina, testuak egokitzeaz bakarrik, baizik eta gaurko grafiara aldatu eta testua ulertzen eta interpretatzen laguntzen duten ohar didaktikoz horniturik dauden edizio moderno eta gaurkotuez. Horiek, ezberrik gabe, testu haiekiko distantzia linguistikoa, kulturala eta kontzeptuala gainditzen lagunduko dute; ik. Rodríguez-Miñambres, Otegi eta Etxanizek (2019: 15) duten kezka.

Hori guztia kontuan izanda, lan honek helburu bikoitza du:

Lehen da Agustín Iturriagak 1842an argitaratu zuen *Fábulas y otras composiciones en verso vascongado dialecto guipuzcoano con un diccionario vasco-castellano de las voces que son diferentes en los diversos dialectos* liburuan agertzen diren fabula edo ipuinen edizio kritiko modernoa egitea. Iturriagak liburu horretan guztira berrogeita bederatzia fabula edo alegia bildu zituen (§ 6), eta "zalantzarik ez da batere Samaniego dela Iturriagaren alegien eredu eta iturri emankorrena: bost kenduta gainerako guztiak arabarraren bildumatik daude jasoak" (Ruiz Arzalluz 1995: 672).

Lehen argitalpen hartatik beste zenbait edizio izan ditu Iturriagaren liburuak. Areago, Manterolak (1880) bere kantu bilduma osatzeko orduan Iturriagaren paperen artean eskuz izkiriaturik aurkitu zituen liburuan argitaratutako fabulez gain beste sei argitaragabe. Lan honetarako horiek ez ditugu kontuan hartu. 1842ko hori da Iturriagak ezagutu zuen argitalpen bakarra. Bigarrena 1884an atera zen *Ipuyac eta beste moldaera batzuec Guipuzcoaco izqueran neurtubac* izenburuarekin Eusebio Lopezenean. Edizio hark ilustrazio batzuk ere baditu. 1932an hirugarren argitalpena izan zuten fabulek, Imanol Lekuonak prestatutako edizioarekin eta *Iturriagaren ipuiak* izenburuarekin. Ezagutzen den azkena Auspoa sailean atera zen Antonio Zabalaren gidaritzapean 1967an, *Ipuiak* izenburuarekin.

Iturriagaren edizio guztiak atera ziren euskara batuaren lehen arauak finkatu aurretik; beraz, edizio horiek ez dituzte egun darabilgun estandarren irizpideak jarraitzen eta ez bide dira egoki hizkuntza ikasten eta lantzen ari direnekin erabiltzeko, ortografia lantzeko eta ikasteko orduan nahasmena eragin dezakeelako. Jatorrizko argitalpenean oinarritzen den edizio honetan, aldiz, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleek testuaren edizio eguneratua eskuragarri izango dute ikasleekin landu ahal izateko.

Bigarren helburua da edizioaren ondoren fabuletan agertzen diren esamoldeen eta egun erabilera murrizta edo dialektala duten hitzen eta aditz formen zerrendak (§ 7, § 8 eta § 9) eskaintzea. Iturriagak bere liburua argitaratu zuenean ere osatu zuen euskara-gaztelania hiztegia. Desberdina da lan honek dakarrena, helburua ere bestelakoa baitu. Hiztegi hori osatzeko, Euskaltzaindiaren *Orotariko Euskal Hiztegia* eta *Euskaltzaindiaren Hiztegia* baliatu ditut, eta irizpide nagusia izan da erabilera murrizta edo dialektala dutenak jasotzea. Betiere, ikaslearen ezagutza lexikoa eta dialektala aberastea da zerrenda horien helburua. Bigarrenean jaso diren esamolde eta eserak hizkun-

³ Halaxe gogorarazi dit ebaluatzaile anonimo batek.

tzaren adierazkortasuna indartzeko eta hizkuntzari bizia emateko ere baliagarri dira —ik. Garziak (2008: 234 eta hh.) esaten duena—.

Fabulen edizioak eta esamoldeen, hitzen eta aditzen zerrendek ez lukete lanaren akabua izan nahi, horietatik abiatu unitate edo sekuentzia didaktikoak edo ikas-egoerak diseinatu nahi dira, ikaslea euskarara eta bere literaturara hurbiltzeko.

3. Aurrekariak eta justifikazio teorikoa

Hizkuntza irakasteko literatura testuak erabiltzea ez da gai berria. 1987an Collie-k eta Slater-ek argitaratu zuten *Literature in the language classroom* liburuan zenbait arrazoi eman zituzten hizkuntza irakasteko orduan literatura erabiltzeko (1987: 3-6) eta gerora beste zenbait autorek ere aldarri bera egin dute.

Kontuan izan behar den lehenengo alderdia da literatur testua benetako material linguistiko eta estetiko delako (Mendoza 2007: 11). Testuek erreferentzia linguistikoak eta estilistikoak dituzte, egoera komunikatibo desberdinak eta egoera horietan erabiltzen den hizkuntzaren lagina eskaintzen dute. Lazar-ek (1993: 6) defendatzen duenez, literatura hizkuntza ez dago erabat bereizita beste hizkera molde batzuetatik, beste esparru batzuetan, zuzenbidean demagun, dagoen bezala. Edonola ere, zenbait ezaugarri maiztasun handiagoz ager litezke, hala nola metaforak, aliterazioak edo errimak: “Literary language is therefore not completely separate from other forms of language. This obviously has some implications for the use of literature in the language classroom” (Lazar 1993: 8).

Testuak hizkuntza aldetik aberatsak izateaz gain, kulturalki ere aberasgarriak dira: norbere kulturean, zein besterenean sakontzeko tresna ere izan litezke testuak (Collie & Slater 1987).

Arrazoi horiengatik, atzerriko hizkuntza bat ikasteko orduan, maiz proposatu izan da literatur testuak erabiltzea: ingelesaren eta gaztelaniaren didaktikan egin izan dira halako proposamenak (ik., besteak beste, Mendoza 2007; Lasagabaster 2014: § 5; Palacios 2017; Molino & Mier 2018 eta, euskaldun elebarkarrek gaztelania lantzeko, Laiz 2008).

Euskararen kasuan, saiakeraren bat edo beste egin da. Beaskoetxeak eta Iruskietak (2019) *Martin Txiki eta Basajaunak* ipuinaren irakurketa ozen esanguratsuak lau urteko haurren hizkuntza- eta komunikazio-gaitasunean izan duen eragina aztertu dute, ipuina Bizkaiko euskarara moldatuta. Badira, jakina, ipuinen, kondairen, kantuen eta haur-literaturarekin uztarturiko gainerako generoen erabilerari buruzko lan gehiago ere, baina gehienak haurren gaitasun literarioa garatzeko helburuz egindakoak dira, eta ez konpetentzia linguistikoak lantzeko, nahiz eta zeharka hori ere egiten den.

Euskal Herriko hezkuntzaz eta hizkuntzaren didaktikaz ari garela, bada kontuan hartu behar dugun beste faktore bat: gure ikastetxeetako haur askorentzat, euskara bigarren hizkuntza da. EUSTATEk 2022ko urriaren 27an argitaratutako datuen arabera, 2021eko urtarrilaren 1era bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoan 390.973 (% 18) pertsonak zuten euskara lehen hizkuntza, 1.534.029 (% 70) lagunek gaztelania, 153.795ek (% 7) biak eta 114.402k besteren bat (% 5). Esan nahi baita, ikasleentzat % 80k bigarren hizkuntzan ikasten du eta hori, hezkuntzan lanean dabilenak kontuan izan behar du.

Vilak (2024) gogorarazten duen bezala, hezkuntza sistemaren ardura da ikasleek beren hizkuntza lantzeko aukera izateaz gain (zeinahi delarik ere gizartean hizkuntza horrek duen indarra eta prestigioa), irakaskuntzarako baliatzen den hizkuntza ere modu egoki eta eraginkorrean garatzea. Horretarako, beste hizkuntza batzuetako esperientziek erakutsi dute testu literarioak tresna bikainak direla ikasleen gaitasun komunikatiboak lantzeko (Mendoza 2007).

Horiek horrela, galde liteke edozein testu motak balio ote lezakeen hizkuntza erakusteko ala ezaugarri bereziren bat behar ote duen hautatzen den testuak. Lazar-ek (1993) dioenez, kontuan hartu behar da hizkuntza ikasten ari diren horiek daukaten hizkuntza maila. Ez da gauza bera Europako Erreferentzia Markoaren arabera A, B edo C mailan egotea (Europako Kontseilua 2001).

Hizkuntza lantzeko baliabideetan testu literarioak sartu behar direla aldarrikatzen du Mendozak (2007: 39) eta kontuan hartu beharreko printzipio hauek proposatzen ditu:

1. Testu literarioa komunikazio unitate bat da.
2. Ikasle-irakurleek dituzten aurrezagutzak kontuan hartu behar dira.
3. Testuaren esanahia ulertu eta eraikitzeko prozesuan lagungarri izango dira jarduera kognitiboak.
4. Testua ulertzeko ikasleek aurrezagutzen eta jarduera kognitiboen arteko lotura egin beharko dute.
5. Irakurketaren bidez gaitasun komunikatiboak eskuratzeko, erabilera pragmatiko eta kulturalak ezagutzeko eta horietaz gozatzeko, irakurlearen eta testuaren arteko interakzioa bultzatu behar da.
6. Hautatutako testuak ikasmaterial funtzioa duten dokumentu linguistikoak dira.
7. Planteamendu didaktikoak edukiak eta ezagutza komunikatibo eta funtzionalak uztartu behar ditu.
8. Edukien sekuentziazioa gaitasun komunikatiboen eta funtzio pragmatikoen arabera finkatzen da.

Bestalde, Palaciosek (2017: 193) bere egiten ditu Sanz Pastorren hitzak eta adierazten dute literatur testu bat irakurtzea ekintza komunikatiboa dela eta hizkuntza erabiltzeko gaitasun handia erakusten duela:

Sanz Pastor (2000: 25) asevera que «leer un texto literario es una actividad comunicativa —útil, además de placentera— que implica un alto grado de dominio de las destrezas escritas, de conocimiento del código lingüístico y de conocimiento del mundo». (Palacios 2017: 193)

Areago, irakurtzea den ekintza komunikatibo horretan, egoera soziolinguistiko desberdinetako adibide andana aurki daitezke, hain dira desberdinak testu eta genero literarioak. Halaxe dio Palaciosek, atzerritarrei gaztelania irakasteaz ari dela:

De hecho, en los textos literarios se pueden encontrar múltiples ejemplos para ilustrar y explicar hechos sociolingüísticos a los estudiantes extranjeros de español. (García González y Coronado González 1989). (Palacios 2017: 193)

Unean irakatsi nahi dena zer den, hainbat izan daitezke testu literario bat baliabide didaktiko moduan hautatzeko irizpideak (ik. Mendoza 2007: 74-76), eta betiere curriculumak eskatzen duen gaitasun edo konpetentziekin lotu behar dira.

Testuen izaeraz eta zailtasunaz ari direla, Rodríguez-Miñambres, Otegi eta Etxanizek (2019: 10) halaxe diote:

Irakurle gaituak prestatu behar ditu eskolak (Moreno, 2011), eta, helburu horrekin, irakaskuntzako curriculumetan bi arlo bereizten dira irakurmenean: irakurtzeko gaitasuna, ikas-prozesuan aurrera egin eta ezagutzaren gizartean parte hartzeko aukera ematen duena, eta literatura-gaitasuna, testuekiko gozamen estetiko eta gustua gartzekoa (Palou eta Fons, 2016). Adinean aurrera egin ahala, askotariko testuak ezagutu behar dituzte ikasleek, gero eta zailtasun handiagokoak, eta komeni da, orobat, urteetan zehar belaunaldi belaunaldi zabaldu diren testuak ere ezagut ditzaten. Zentzu horretan, beharrezkoa da idazlan klasikoak eta tradizionalak ezagutzea, herri baten jakturiaren transmisiorako bide diren aldetik.

Eta aurrerago halaxe diote (2019: 23):

Euskal klasikoak behar ditugu, eta beste kulturetako klasikoak geureganatu ere bai. Horrenbestez, argi dago klasikoen irakurketa bultzatu beharra dagoela eskolatan. Lan horiekiko elkarrizketak bideratzen baditugu, klasiko oro bizi-esperientzia bilakatzera lor dezakegu. Bestela, gure pentsamendua gero eta pobregoa izango da; ez dugu garapenik izango, ez pertsona, ez gizarte moduan. Klasikoak behar ditugu giza kohe-sioa eta nortasuna eraikitzen joateko. Zeregin horretan, beraz, eskolek eratu behar dituzte irakurketa plan eraginkorrak —zein obra, zertarako, nola— datozen belaunaldiek literatur ibilbide hezigarria egin dezaten.

Maiz, ordea, testu klasikoak ez daude irakurle arrunten, ikasleen edo irakasleen eskura, eta horiek eskuragarri izateko, elkarlana eta diziplinartekotasuna beharrezko bide dira. Testu horiek gaur egungo irakurlearentzat atondu behar ditu filologoak, ondoren, hezkuntza arloan eta hizkuntzaren eta literaturaren didaktikan lan egiten duen irakasleak balia ditzan.

Aurreratu denez, lan honetan XIX. mendean Agustin Iturriagak idatzitako euskarzko fabula edo ipuinen edizioa eskaintzen da, Lehen Hezkuntzako azken zikloan zein Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan baliabide didaktiko moduan erabiltzeko.

Gurean ez dira gutxi ahozko tradizioetik jasotako testu bildumak; ik., besteak beste, Igerabide (2022), Paya (2013) edo Etxanizen (2009) lanak. Horietan ahozko literatur testuak jasotzen dira: errefracuak eta esaera zaharrak, asmakizunak, aho-korapiloak, bertso eta koplak, ahozko tradizioko kondairak, besteak beste. Horietako batzuk XX eta XXI. mendeetan jaso eta erabili izan dira, baina bada zaharragorik ere: Igerabidek berak (2022: 45), esaterako, 1615eko maitasun olerki bat dakar: *zure begui ederroc, / ene lastana, / cativaturic nave, / librea ninçana*.

Berariaz ekarri dugu Igerabideren lagin hori hona. Igerabide, bilduma osatzeko, leial izan zaio jatorrizko grafiari, testu bakoitza jatorrizko grafian ematea hobetsi du. Guk ordea egungo ortografia arauak jarraituz atondu ditugu fabulak, hizkuntzaren ikasketan errazteko. Ez da zalantzarik Euskal Herriko ikasleak euskal literatur tradizioa erakarri behar ditugula; bestela, esanda, euskal idazle klasikoak ikasleei gerturatu behar dizkiegu, baina ikasketa prozesuan daudenentzat egokiagoa bide da ereduak ortografia gaurkotuan eskaintzea.

Ahozko generoko testu bildumak ugari badira ere, ez da hala gertatzen tradizio idatziko testu bildumekin: halako gutxi ditugu eskura. Álvarez-Uriak (2024) berriki atera duen liburuan euskal literaturaren historia berrikusten du emakume idazleen

ekarpenak kontuan hartuta. Antologia lana ere bada eta garaian garaiko euskal emakume idazleen laginak bildu ditu, grafia gaurkotu gabe.

4. Agustin Iturriaga eta bere fabulak hautatzeko arrazoiak

Agustin Iturriaga⁴ 1778an jaio zen Hernanin eta bertan hil zen 1851n. Urte luzez apaiz aritu zen bere herrian, baina pentsaera ilustratu-liberaleko irakasle, pedagogo eta idazle ere izan zen (Zalbide 2007; Beldarrain 2010).

Gorabehera handiko garaiak bizi izan zituen Iturriagak: Konbentzioaren Gerra (1793-1795), Independentziako Gerra (1808-1813), Hirurteko Liberal-konstituzionala (1820-1823), Lehen Karlistaldia (1833-1839).

Gizarte egoerarekiko, hizkuntzarekiko eta euskararen etorkizunarekiko kezka bide zuen Iturriagak. 1805 eta 1817 bitartean apaiz ez ezik, irakasle ere aritu zen Hernanin eta 1817-1818tik aurrera ikastetxe bat sortzea erabaki zuen, zigorrik gabeko metodologia berritzailean oinarritua. Iturriaga kezkatua zegoen etxetik euskaldun ziren umeez gaztelania gaizki ikasten zutelako; bere ustez, eskolan euskara lantzen ez zutelako zeukatzen maila apala gaztelaniaz (Urgell 2018: 675; Zalbide 2007: 74-75).

Iturriagaren asmo eta kezkek hain izan zuten entzute handia, non Gipuzkoako Batzarrek euskararen aldeko politika egiteko erabakia hartzean Agustin Iturriagari eskatu zioten ikasmaterial elebidunak prestatzeko (Zalbide 2007: 14; Urgell 2018: 568).

1830ean Gipuzkoako Batzarrek Sustapen Elkarteak eratu zuten “Ameriketako koloniak galdu izanagatik sortu zen egoera ekonomiko larriari aurre egiteko asmoz” eta euskara “gorde eta ilustratzeko” (Urgell 2018: 569). Elkarteak Iturriagari eskatu zion euskararen egoerari buruzko txostena idazteko (ik. Zalbide 2007).

Hurrengo hamarkadan, hizkuntzaren irakaskuntzari loturiko hiru lan argitaratu zituen Iturriagak: *Arte de aprender a hablar la lengua castellana para el uso de las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa* (1841), *Diálogos basco-castellanos para las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa* (1842a) eta *Fábulas y otras composiciones en verso bascongado* (1842b). Zabalkunde handia izan zuten azken bi lan horiek, batez ere fabula edo ipuinen liburuak, Diputazioaren aginduz herrietan banatu baitziren.

Ikerlan honek azken liburu horretako testu guztien —salbu eta hiztegiaren— edizioa dakar. 1842ko fabulen liburu horretan biltzen dira berrogeita bederatzi alegia, hitzaurre gisako “Euskal Herriko gazteriarri” bertsoa hasieran, eta akabuan Jainkoaren existentzia erakusten saiatzen den zenbait bertso, Virgilioren “Artzain koplak” eglogaren zati baten itzulpena, San Inazioaren martxa, Ezpata dantza eta hiztegia ditu. Guztia, hiztegia izan ezik, bertsoan idatzia.

Edizioa paratzeko, jatorrizko bertso argitaratuaren edizio digitalizatua baliatu dut, baina eskura izan dut Auspoak 1967an atera zuen edizioa ere (Iturriaga 1967).

Iturriagak dakartzan fabulak ez dira, inondik ere berak sortuak, berak euskarara ekarriak baizik. “Iturriagak ere molde herrikoien arabera hizkuntzaz eta metri-kaz berregin zituen hala Samaniegoren alegiak nola Virgilioren eglogak (Ruiz Ar-

⁴ Jaiotza agirian Agustin Ignacio María Pascual Ugalde Iturriaga Amitezarobe izenez ageri bide da, baina bere ohiko sinadura Agustin Iturriaga bide zen eta hori erabiliko dut nik ere lan honetan.

zalluz 1995)” (Urgell 2018: 639). Mitxelenak (2001 [1961]: 53) dioen bezala, sekreturik gabeko bertsozaintza erraz eta herrikoia baliatu zuen, eta, Zalbideren (2007: 21) arabera, “hizkuntza apala funtzio berri eta jasoetara hedatuz indartu behar zen euskara. Ordura arte erdara jaun eta jabe izandako goi-mailako esparru batzuetara sarbidea eskaini behar zitzaion baserriarren euskara jator baina mugatuari. Kultura europarra euskaraz eskuratzeko apustua egiten zuen Agustinek, bere *Fabula*-ipuinin eskaintzazko bertsoan”.

Martosek (2007: 12) dioenez, ipuin eta kondairak herrialde batetik bestera, hizkuntza batetik bestera, idatzitik ahozpora higitzen dira; orobat gertatzen da fabulekin. Europako kultura eta literatura tradizioan ezagun diren alegiak eskaintzen ditu Iturriagak, ozenki irakurtzeko edo kantatzeko moduan gainera (ik., haurrei altuan irakurtzeak dakartzan abantailez, Bueno *et al.* 2023).

Lasagabasterrek (2014) dekalogo bat dakar hizkuntzaren irakaskuntzan literatura testuek duten balioa aldarrikatzeko. Izatez, ingelesa atzerriko hizkuntza gisa ikasten ari direnen kasuan erabiltzeaz ari bada ere, euskararen irakaskuntzara egokitu daiteke proposamen hori. Ondoko lerroetan Lasagabasterren sei puntuak laburbildu eta dagokigun esparrura egokitu dira Iturriagaren fabulen edizioa justifikatzeko:

1. Testu originalak dira, ez dira egokituak. Hiztun gaituak izateko gisa horretako testuak ere ezagutu behar ditu hiztunak. Iturriagaren fabulen edizio berriarekin, euskara biziaren lagina izango dute eskura ikasleek; areago, testu horietan esamolde adierazkorrak eta euskarak dituen erregistroak aurkituko dituzte, baita euskalki batean idatzitako testu baten erdua ere.
2. Kultur ezagutza aberasten dute testuok. Iturriagaren fabulen kasuan XIX. mendeko edo, areago, lehenagoko ikusmoldea ezagutzeko eta hori nola aldatu den ikusteko aukera du irakurleak. Rodríguez-Miñambresen, Otegik eta Etxanizek (2019: 10) gogorarazten dutenez, “klasikoek ere hori bera egiten dute: kultura baten sustraietara eramaten gaituzte, eta urteen joanean eraiki den gizarte bateko partaide izaten laguntzen digute. Gizakiok identitate bat eraiki dugu ohituren, tradizioen, jokabideen gainean; elkar ulertzeko erreferentzia multzo bat”. Iturriagaren fabulak irakurtzean, euskal testu eta autore klasikoengana hurbilduko dira irakurleak; euskarazko ondare kulturala eta literatura unibertsaleko klasikoak izango dituzte eskura ikasleek.⁵ Horrekin batera, gizarteko ohiturak nola aldatu diren ere ikusiko dute.
3. Testu literarioaren bidez, ikaslea irakurketan inplikatzeko da, testua ulertu eta interpretatu behar duelako. Hemen, noski, irakasleak paper garrantzitsua jokatzen du, interpretatzen zailago diren pasarteetan laguntzeko.
4. Literatur gaitasuna lantzen da. Kasu honetan fabulak zer diren, zein egitura duten, pertsonaiak nolakoak diren ikasiko lukete ikasleek, besteak beste. Are gehiago, testu generoa eta baliabideak ere ezagutuko lituzkete. Iturriagaren fabuletako bertso-lerroek silaba kopuru konkretua dute eta pareek errima egi-

⁵ Istorio klasikoak edo horien bertso ezberdinak ezagutzea ere interesgarri da: “Cuando normalmente se habla de ‘cuento popular’ se hace como si éste fuera un concepto unívoco o uniforme. Nada más lejos de la realidad. A poco que penetramos en el abigarrado mundo de las tradiciones populares de cualquier comunidad, observamos un sinfín de formas y modalidades distintas” (Martos 2007: 17).

ten dute; hortaz, bertso idatzietara hurbiltzeko aukera eskaintzen dute fabula hauek. Hitzaurrean zortzikoaren erritmoa jarraitu duela azaltzen du Iturriagak: *ez det uste derala / egin lan alferra / ipuiak ifintzean / gure zortzikoan, / kantatzeko, / nahi bada, / harturik gogoan*. Aukera eskaintzen du, beraz, tradizioko musika erritmoak ere ezagutzeko.

5. Hizkuntza aldetik aberasgarriak dira eta ikasle/irakurlearen hizketa aberats dezakete. Lan honen akabuko hiztegia eta, batez ere, esamolde eta esaren zerrendan agertzen diren hitz eta egiturek eguneroko jarduna aberastu eta hizkuntza biziagotzen dute.
6. Pentsamendu kritikoa garatzeko lagungarri izan daitezke testuok. 2. puntu aipatutako aldaketei eta hobetutako alderdiei buruz gogoeta egin dezake irakurle/ikasleak.

Etxanizek (2011: 73) gogorarazten du ezen “[e]l principal objetivo de las obras literarias es entretener, hacer disfrutar al lector, que goce con el argumento, el estilo, la poética del autor; pero, al mismo tiempo, es innegable la relación existente entre literatura y valores”; beraz, fabula hauek interpretatuta pentsamendu kritikoa gara daiteke, idatzi ziren garaiko balioak zein ziren aztertuta. “Ahuntzak eta akerrak” fabulak, adibidez, transfobiaz hitz egiteko aukera ematen du: *Akerrak ahuntz nahi dute / izan gehienez. / Gizonak andre moten / manerak harturik, / ikusten dirade maiz / tximu bihurturik*; emakume ederren estereotipoez hitz egin daiteke “Esne-saltzailea” fabularekin: *Gorputz liraina zuen, / gerria txit mehea, / ilea erporaino / urre kolorea. / Perla gisako hortzak, / ahoa txikia, / begiak beltz, handiak, / ezpaina gorria, / ibilian inori / ezer zor ez zion. / Hitz batean: jendeak / begiratzen zion*, eta misoginiak “Atsoa eta arakosoa” alegian “atsoaz” egiten duen deskribapena irakurrita (Beldarrain 2010: 92).

Zentzu horretan, hala diote Rodríguez-Miñambres, Otegik eta Etxanizek (2019: 12):

Irakurgai klasikoak ez daude baltsamaturik; aitzitik, haien mezuak eta balioek mende honetako errealitatearen gainean begiratu kritikoa bat izaten laguntzen dute (García Gual, 2016). Merzei du ereduak diren obra klasiko horiek ezagutzeko, aztertzea eta hurrengo belaunaldiari helaraztea. (Rodríguez-Miñambres *et al.* 2019: 12)

Arestikoarekin, beste zenbait alderdi ere nabarmendu daitezke:

1. Ikasleek beren jarrera alda dezakete fabulak irakurrita atera ditzaketen ondorioekin. Fabulek berez dute helburu moralizatzaile bat eta XXI. mendean XIX. mendeko morala duten fabuletatik ikastea proposatzea kontserbadorea eta atzerakoia da. Ez da, beraz, hori lan honen asmoa, baizik eta izan diren aldaketetatik ikastea, morala ere aldatzen dela ikustea eta erakustea oraingo morala ez dela betidanikoa eta ez duela betirakoa izan behar.
2. Literatur testuak irakurtzeak sormenari ateak irekitzen dizkio, era bateko edo besteko jarduerak diseinatuta.
3. Testu erlatiboki konplexuak garaiz irakurri eta landuta, etorkizunean hizkuntza landuagoa izango dute ikasleek.
4. Ikerketek erakutsi dute irakurketak hizkuntza gaitasunean eragin positiboa duela eta, ondorioz, errazagoa dela zailtasun kognitibo handiagoko testuak ulertzen.

Aipatu denez, Samaniegoren fabulak itzuli zituen Iturriagak gaztelaniatik euskara, eta asmoa zen ordurako latinez eta gaztelaniaz zeuden ipuinak euskaraz ere ematea (Beldarrain 2010: 174). Beldarrainek (2010: 167) gogorarazten duenez, “[e]uskal eremuetako eskola-ume gehienak euskaldun elebakarrak ziren XIX. mendearen hasieran”. Irakaskuntza, aldiz, gaztelaniaz (Hegoaldean) eta frantsesez (Iparraldean) izaten zen. Hernaniarraren helburua zen euskaldun ziren hurrek gaztelaniaz ondo ikastea eta horretarako beren etxeko hizkuntzatik abiatzea, euskaratik alegia. Horrexegatik, euskara oinarri hartuta gaztelania ikasteko proposamena egin zuen Iturriagak (Zalbide 2007: 26): eskola elebiduna sortzea zen bere asmoa. 1823an, absolutistek boterea hartu eta Iturriagaren plana zapuztu zuten. Iturriagaren asmoez, hauxe iradokitzen du Beldarrainek: [d]akigunetik ez dakigunerako bide pedagogikoan, guztiz litekeena da, Iturriagaren asmoetako bat izatea lehenik ikasleek bere Samaniegoren euskal moldaerak irakurtzea, eta ondoren Samaniegorenak lantzea. Kontuan har dezagun, Samaniegok gaztelania lantzeko erabili zituela bereak Bergarako Mintegian (Beldarrain 2010: 175).

Hara zer idatzi zion Iturriagak Iztuetari gutun batean (Garmendia 1968: 179):

Orain dala saspri urte humechoaquin dempora iragotcen nubenean esagutu nubenera eraqueria andia eguiten zan emengo escoletan erderaz gaiztia iracurtcen eracustea-requin, izanic milla bider errasago eusqueraz icastea eta eracustea.

[...]

Iduritzen zat eusquerasco liburuetan bear litzaqueala gure escoletan eracutzi iracurtcen erderascoetan asi baño leen.

[...]

Beti naigabe andi batequin ecustenditut gure muthilchoac iracurtcen erderasco liburuac, monjac latinescoac becela, cer iracurtcen duten ezdaqutela, eta adinic onena ecer icasi gabe iragotcen zaiotela.

Euskara bizia darabil Iturriagak, “naturala” eta “espontanea”, “siplea” baina “dotorea”, “argia” eta “garbia”, besteentzako “eredu” Manterolaren (1880: 39) hitzetan. Esamolde eta erregistro aldetik ere joria da Iturriagaren lana. Gauzak askotxo aldatu dira hezkuntzan Iturriagaz geroztik. Orain ez dira etxetik euskaldun direnak gaztelaniaz eskolaratzen, baina bai alderantziz. Etxetik gaztelania dakarte gure hezkuntza sistemako haur askok. Horientzat, etxetik euskara dakartenentzat zein beste hizkuntzaren bat dutenentzat, Iturriagaren euskaratik ikasteak ikasleen euskara maila hobetu lezake, metodologia egokia erabiliz gero.

Igerabidek (2000: 11) dioenez, amandre ipuinak literaturako eta filologiako ikerketa material aberatsak izan daitezke eta “[h]izkuntzaren didaktikaren lagungarri ere erabili izan” dituela pedagogia tradizionalak. Amandre ipuinez esandakoa fabuletara ere heda bide daiteke. Iturriaga ez da euskarazko alegiak idatzi zituen bakarra; Álvarez-Uriaren arabera (2024: 204), mogeldarrak izan ziren “alegiari euskaldunen artean erreferente nagusia”. Horien artean dugu Bizenta Mogel eta bere *Ipuinak* liburua (1804) Esopo eta Febroren fabulen itzulpenekin. Zabala, Arxu eta beste zenbait autorek ere itzuli zituzten alegiak euskarara, eta horiek guztiek merezi dute edizio gaurkotu fidagarri bat egungo eskoletan erabiltzeko (ik. orain Álvarez-Uria 2024). Etorkizuneko egitekoen artean dagoke testu horien edizio gaurkotua paratzea.

5. Edizio irizpideak eta metodologia

Inoiz aldarrikatu izan den bezala (ik. Reguero 2019), testu zahar bat erabili nahi denean eman beharreko lehen urratsa da testuaren edizio fidagarria eskuratzea, eta hor dago filologoaren lana.

Testu baten edizioa finkatzean (*dispositio textus*) editoreak saiatu behar du ezazugarri esanguratsuenak mantentzen eta anbiguotasunak saihesten (Blecua 2001: 137). Helburua zein den, testu zaharren edizio mota desberdinak daude (ik. Pérez Priego 2011: 101-103). Hemengo saio honetan Iturriagaren fabulen edizio kritiko modernoa paratu dut, zeinaren helburua baita jatorrizko testutik hurbilen dagoen testua berreraikitzea.

Helburu hori, ordea, beste helburu batekin uztartu da saio honetan, alegia, hartzailearekin. Arestian aipatu den bezala, LHko zein DBHko ikasleek erabiltzeko moduko edizio fidagarriak prestatu nahi izan dira. Horrek, ezinbestean, baldintzatu ditu edizioa prestatzeko orduan hartutako erabakiak.

Gorago esan denez, Iturriagaren fabulek zenbait berrargitalpen izan zituzten, denak autore hil ondoren. Edizio hau prestatzeko jatorrizkoa erabili dut, 1842koa, eta 1967ko azken edizioa ere eskura izan dut, interpretazio zalantza batzuk argitzeko. Horregatik,⁶ lanean ohar batzuk ageri dira azken edizio horretako irakurketari erreferentzia egiteko.

Orotara Iturriagaren liburuko berrogeita hamazazpi testu bildu dira, eta ez dira denak fabulak. Aurreko atalean azaldu legez, hitzaurre bat du liburuak fabulen aurretik, eta ondoren beste zenbait testu. Guztiak bertsoan eman zituen Iturriagak.

Edizio honetan, testuari eta bere hizkerari ahalik eta leialen izatea da asmoa. Beraz, aldaketa nagusiak ortografikoak izan dira. Hauek dira aldaketa edo egokitzapen esanguratsuenak:

— Euskara batuaren ortografia arauak jarraitu dira:

- $c^{a,o,u}, qu^{e,i} \rightarrow k$
- Txistukari afrikatu zein frikarian islatzeko, egungo estandarrari jarraitu zaio; beraz:

— $c^{e,i} \rightarrow z$

— $tc \rightarrow tz$

— $ch \rightarrow tx$

— $nz, ns, lz \rightarrow ntz, nts$ eta ltz

— $rz / rc^{e,i} \rightarrow rtz$

— Iturriagak *piska* idazten badu ere, edizioan *pixka* jarri da egungo ereduaren arabera.

— Batzuetan herskari aurreko txistukaria neutralizatzen du Iturriagak: hala, *gasteria*, *ister* idazten du, *gazteria* edo *izter* idatzi ordez. Kasu honetan, euskara batuan ematen den aldaera hobetsi da; izan ere, edizioaren helburua didaktikoa da, eta ikasleengan nahastea eragin dezakeenez forma estandarra eskaintzea erabaki da.

⁶ Eta ebaluatzaile anonimo baten iradokizunari jarraituz.

- *mb* → *nb*
 - Hots sabaikariak Iturriagak *ñ* eta *ll* idazten ditu; edizioan, *in*, *il* eman dira.
 - Iturriagak [j] islatzeko *y-z* jarri duena, *i-z* eman da edizioan. Beraz: *ayenatu* → *aienatu* eta *ayuda* → *aiuda* aldatu dira, besteak beste.
 - Iturriagak *g* erabiltzen du igurzari belarra islatzeko [x], *e* eta *i* aurretik (*fritu*, *peregil*). Halakoak *j*-rekin eman dira edizioan.
 - *H* ere gaurko arauen erara gehitu da, Iturriagak erabiltzen ez badu ere. Kasu batzuetan horrek silaba kopurua igotzea eragin lezake: *lengo* → *lehengo*. Kasu horretan, irakurtzeko orduan erritmoa zaintzea eta silaba bakarrean irakurtzea komeniko litzateke.
- Idazkera etimologikoak gaurko erara eman dira: *itzketan* → *hizketan*; *ortzca* → *hozka*.
- Iturriagak ez ditu bertsoak estrofatan bereizten. Edizioan, irakurketa errazte aldera, hala bereizi dira, eta puntuazio-markak ere aldatu egin dira. Gaiaren koherentziari eta kohesioari eman zaio garrantzi handiagoa. Gehienak zortzi lerroko bertsoak dira, bakoitiek zazpina silaba dituzte eta bikoitiek seina, eta azken hauek egiten dute errima (bigarrenak laugarrenarekin eta seigarrenak zortzigarrenarekin). Gehienetan hala bada ere, beste batzuetan lau edo hamabi lerrokoak atera dira, fabulako lerro kopuruek, errimak, esaldien egiturak edo koherentziak hala eskatzen dutelako.
- Testuan agertzen diren aldaera dialektalak bere horretan utzi dira, interesgarri izan daitezkeelakoan; beraz, *hoien*, *ifintzen*, *ipuiak*, *arkitu*, *etzarri* etab. mantendu dira.
- Erratak zuzendu egin dira, oharrik egin gabe.

6. Edizioa

Euskal Herriko gazteruari

Nere Euskal Herriko
gazteri ederra,
ez det uste derala⁷
egin lan alferra
ipuiak ifintzean
gure zortzikoan,
kantatzeko, nahi bada,
harturik gogoan.

Badirade latinez,
badira erderaz,
ez al ditugu behar
guk ere euskaraz?

Bai, on da jakitea
lehengo denboretan
txit⁸ omen zekitela⁹
ederki hizketan
txakur eta katuak
ahuntzak, azeriak.
Hitz batean: orduko
abere guztiak.

Hala dio Esopok.
Gizon egitia¹⁰
ote zan ez dakit nik,
edo gezurtia.

Baina ez da dudarik
zala txit txikia,
bizkar makurra eta
jakintsun¹¹ handia.
Eta lehendabiziko
honen mesedeak¹²
mintzarazo¹³ zituen
ederki abereak.

⁷ *derala*: dedala, dudala.

⁸ *txit*: oso.

⁹ *zekitela*: jatorrizkoan hala dator, baina 1967koan *zekikela*; ziurrenik hutsa da.

¹⁰ *egitia*: egiatia, egia esaten duena.

¹¹ *jakintsun*: jakintsua.

¹² *honen mesede(ak)*: errespetuzko trataera; gaztelaniako *vuestra merced* izenordainaren pareko.

¹³ *mintzarazo*: mintzarazi, hitz eginarazi.

Aditurika¹⁴ horien
jardun-erausiak,¹⁵
egingo dituzute
askotan irriak.
Esango ere dezute
eginika¹⁶ farra:
“Ez huen,¹⁷ horregatik,
jende hura narra”.¹⁸

Ipuien akabailan¹⁹
dauden sententziak
agiri da dirala
egia handiak.
Eta sartzen badira
zuen bihotzetan
damutuko ez zazute²⁰
zeren²¹ egunetan.

Horra Esopo jaunak
nahi duen saria,
eta horra nik ere
nahi dedan guzia.

Azeria eta oiloa

Azeri zahar handi bat,
gosaldu gabea,
zebilen sasiz sasi
errabiz²² betea.
Iluntzera zijoan
eta mokadurik
jan gabe arkitzen zan
gaixoa oraindik.

¹⁴ *aditurika*: aditurik.

¹⁵ *jardun-erausi(ak)*: hizketak eta marmarra.

¹⁶ *eginika*: eginikan, eginik.

¹⁷ *huen*: zuan; hiketako forma.

¹⁸ *narra*: ergela.

¹⁹ *akabaila(n)*: bukaera.

²⁰ *zazute*: zaizue.

²¹ *zeren*: zuen. *Neure* > *nere* egiten duen bezala gertatzen da bigarren pertsonan ere.

²² *errabi(z)*: amorrua.

Oilo batek kakaraz²³
eginik, honetan
han dijoa lasterka
lau oinen puntetan.
Ozta oilotegira
alderatutzen²⁴ zan,
oilo guztiak iges
han dijoaz hegán.

Bakarrik gelditu zan
otarre batean
kolka²⁵ arkitzen zan bat
arraultzen gainean.
Aldamenetik zaió
azeria hasten
kolkari belarrira
honela esaten:

—Zer da hori, maitea!,
kioa²⁶ al dezu?
Edo arraultz egiten
zaude horrela zu?
Atera behar nazu
kezka honetatik.
Nola arkitzen zeran
jakin nahi nuke nik.

—Jauna, —dio oiloak—,
arkitzen naiz gaizki.
Aienatzen²⁷ bazera
jarriko naiz ongi.

Zenbati, nola gauden
galde egitean,
ez diegu esaten
geren²⁸ barrenean
azeriari esan
ziona oiloak?
Minez zeukan orduan
saskian kioak?

²³ *kakara(z)*: karaka, oiloaren kantua eginez.

²⁴ *alderatutzen*: gerturatzen.

²⁵ *kolka*: loka, arrautzak erruteko egoeran da-
goen hegaztia.

²⁶ *kioa*: aholagarra, hegaztien ahoko gaitza.

²⁷ *aienatzen*: aldentzen, urruntzen.

²⁸ *geren*: gure.

Txakur biak

Sultan zan zakur ausart
gutzizko jalea,
batez ere ahari²⁹
gizenen zalea.
Izter lodi handi bat³⁰
behin, ustekabeán,
nagusiari zion
ostu bere etxean.

Pinto haren laguna,
ez jale txikia,
zokoz zoko zebilen,
galdurik guztia,³¹
Sultanen bila. Eta
sukalbazterrean³²
noizbait topatu zuen
etzinik³³ lurrean,
ahari izterra jaten
ahalegin guztian,
harturika³⁴ aurreko
bi oinen erdian.

Beldurrez ez ziola
utziko pakean,
marmar hasi zan Sultan
Pinto ikustean,
begiak armaturik,³⁵
jasorik sudurra,
letaginaz puskatzen
zuela hezurra.

Pinto hasitzen³⁶ zaió
bertatik³⁷ galdetzen:

²⁹ *ahariki*: ahariaren okela.

³⁰ *lodi handi bat*: 1967ko edizioan *handi lodi*
bat.

³¹ *galdurik guztia*: atsekabeturik, etsirik.

³² *sukalbazterrean*: sukalde bazterrean, suton-
doan.

³³ *etzinik*: etzanik, etzanda.

³⁴ *harturika*: harturikan, harturik.

³⁵ *Begiak armaturik*: begiak zabal-zabal ire-
kirik.

³⁶ *hasitzen*: hasten.

³⁷ *bertatik*: berehala, segituan.

—Zer deaurrukeria³⁸
ari haiz egiten?
Zeinek burutara³⁹ dik
etxe mot⁴⁰ honetan
hastea horren fresko,
Pinto, lapurretan?

Ez haiz oroitzen zenbat
nausiak nahi⁴¹ digun?
Gurekin dabilela
jostatzen gau ta egun:⁴²
Ez duela behin ere
jaten mokadurik
aurrena gu bioi
eman gabetanik?⁴³

Nausiari diozkak⁴⁴
ematen eskerrak
despentsatik ostuaz
aharien izterrak?

Honelako pagurik⁴⁵
ez dik hark merezi.
Bertatika⁴⁶ behar dek
izter hori utzi.
Zakurrak izan behaik⁴⁷
leiala, prestua,
edo ez dek zakurra
baizika⁴⁸ katua.

—Bertatik segitzeko
hire kontsejua,
zeina ikusten diat
dala txit justua,
Pinto, —dio Sultane—
galdetxo bat hiri

³⁸ *deaurrukeria*: deabrukeria.

³⁹ *Burutara (burutaratu)*: bururatu, iradoki.

⁴⁰ *mot*: mota. Agian silaba kopurua egoki-
tzeko kendu du azken *-a* hori.

⁴¹ *nahi*: kasu honetan, *maitatu* da adiera.

⁴² *gau ta egun*: gau eta egun, etengabe.

⁴³ *gabetanik*: gaberik, gabe.

⁴⁴ *diozkak*: dizkiok.

⁴⁵ *pagu(rik)*: saria.

⁴⁶ *Bertatika*: bertatik, berehala.

⁴⁷ *behaik*: behar dik.

⁴⁸ *baizika*: baizikan, baizik.

egin behaiat⁴⁹ orain.
Esan zadak⁵⁰ niri:
baldin ahari izter hau
utzitzen badet nik,
Pinto nere maitea,
ez al dek jango hik?

Besteri kontsejua
nahi dionak eman,
lehenaz ikusi behaik⁵¹
bera premian dan.

Errementaria eta zakurra

Errementari batek,
kanpora joatean,
etxezai⁵² uzten zuen
zakurra atean.
Egun batez lapurrak
dirua kutxatik
ostu zuten, sarturik
atzeko aldetik.

Ohartu zan orduan
errementaria
falta zala etxean
zan diru guztia.
Buruu galdu eta
harturik makila,
etxe guztitik dabil
zakurraren bila.

—Hatorkit honontz⁵³ Turko—
oju⁵⁴ egiten dio.
Zakurra ixil-ixil
badijoakio,
guztia beldurturik
belarriak behean,
burua makur eta
buztana hankapean.

⁴⁹ *behaiat*: behar diat.

⁵⁰ *zadak*: iezadak.

⁵¹ *behaik*: behar dik.

⁵² *etxezai*: etxezaina, etxea zaintzen duen per-
tsona.

⁵³ *honontz*: honantz.

⁵⁴ *oju*: oihua.

—Turko, —esaten dio—
Zertarako haut nik?
Ez diok etxeari
egiten konturik.
Mailuen hotsak ez hau
behin ere esnatzen,
plater soinuak, berriz,
laster hau ernaitzen.⁵⁵

Lanari utzi eta
ni jaten hastean,
falta gabe han haukat
zut aldamenean.
Ez dek inoiz ikusi
nere sutegia,⁵⁶
mahaiean ikusten dek
hire nagusia.

Uste dek, noski, Turko,
haizela kondea,
horrela bizitzeko,
ase ta betea.
Beti etzin eta lo,
altxa gabetanik⁵⁷
sukaldera joan eta
asetzeko baizik.

Hitz hoién ondotika⁵⁸
Turkok ikustean
nausiaren makila
zuela gainean,
iges egin ondoren
aurreko atetik,
ojuka⁵⁹ hasten zaio
burua jasorik:

— Zer du gehiago, jauna,
nik baino kondeak?
Nik bezin ongi daki
bere mesedeak,⁶⁰

⁵⁵ *ernaitzen*: iratzartzen.

⁵⁶ *sutegia*: errementariaren lantegia.

⁵⁷ *gabetanik*: gaberik, gabe.

⁵⁸ *ondotika*: ondotikan, ondotik.

⁵⁹ *ojuka*: oihuka.

⁶⁰ *bere mesede(ak)*: berorrek, errespetuzko tra-
taera; gazt. 'vuestra merced'.

sortzetik dakarrela
nork bere patua,
nahiz dala zakurra ta
nahiz dala katua.
Ez zituen zakurrak
egin Jaungoikoak
lanean aritzeko,
baizikan astoak.

Nausiak ikusirik
burua hain gora,
beldurrez ez zekion
saltatu lepora,
erantzun bide zion
modu onarekin:
—Ez det nahi, konde jauna,
nik jardun⁶¹ zurekin.
Hoiék guztiak dira
zure erausiak,⁶²
akabatu ditzagun
gaur gure auziak.

Zuk badakizu dala
etxe hau nerea
eta nahi det hemendik
kanpora joatea.
On da ikus dezazun,
Turkotxo, gaur bertan,
nola bizi diraden
beste etxeetan.

Ikusirik zakurrak
hala despeditzen,
hasten da hemen sartu
eta handik irten.

Ez du Turkok gustoko
etxerik topatzen.
Han erabili behau⁶³
tornu burruntzia,⁶⁴
erretzeko harentzat
ez dan aharikia.

⁶¹ *jardun*: eztabaidatu.

⁶² *erausi(ak)*: erasia, marmarra, zaunka.

⁶³ *behau*: behar du.

⁶⁴ *burruntzia*: okela su gainean erretzeko era-
biltzen den burdinazko ziria.

Hemen itsuaurreko⁶⁵
da haren jarduna.⁶⁶

Beti barau, ez dezan
galdu osasuna.

Azkenik beste etxe
aberats batean
gau ta egun han daukate
loturik katean.

Honela ikusten du
dirala laratzak⁶⁷
herrian diran etxe
guztietan beltzak
eta lan egiteko
gure Jaungoikoak
guztiok gaituela
egiten astoak.

Katu biak

Etxe handi batean
zituzten katu bi,
bata Zapiron eta
bestea Misipi.
Biak zeuden gizenez
lehertzeko zorian.
Nork beste halako bi
arkitu herrian!

Maitatuak ziraden
etxean bizi.⁶⁸
Haien bizia ohi zan
jan, josta eta lo.
Beti uzten zituzten
bi katu prestuak
pakean arratoiak,
pakean saguak.

Samurregia zuten
gaixoak bihotza

⁶⁵ *itsuaurreko*: itsumutila.

⁶⁶ *jarduna*: jarduera, lana.

⁶⁷ *laratz(ak)*: sutondoan, kebidetik zintzilik
dagoen kate kakoduna, pertza edo galdara eseki-
tzeo erabiltzen dena.

⁶⁸ *bizi*: biziki, oso.

haiei emateko
zarpaz heriotza.

Goiz batean zeudela
eltzeen ondoan,
lurrean etzinika,⁶⁹
lo gozo-gozoan,
abarrots⁷⁰ batek ditu
batetan⁷¹ esnatzen,
eta aurrera dute
biak begiratzen.

Ikusten dute suan
tornu burrunzia,⁷²
eta hartan jiraka
kapoi bat handia.
Erasotzen diote
biak kapoiari
eta dirade jaten
hatzaparka ari.

Begiak armaturik⁷³
eta marmarraraz,
buztana harontz-honontz⁷⁴
maiz erabiliaz,
ikustekoak ziran
bat eta bestea
tantaka kokotzetik
jarioz koipea.

Jan zituzten orduan
mamiak, hezurak,
baita ere garbitu
mingainaz sudurrak.
Misipik omen zion
esan Zapironi:
—Gauza bat orain zaidak

⁶⁹ *etzinika*: etzinikan, etzinik, etzanda.

⁷⁰ *abarrots*: harrabotsa, zarata. Jatorrizkoan
arrabotz dator, baina errata izan daitekeelakoan
zuzendu egin dut. 1967ko edizioan ere *abarrots*
eman zuten eta *Orotariko Euskal Hiztegia*n ere al-
daera hori jasotzen da.

⁷¹ *batetan*: bat-batean.

⁷² *burrunzia*: burdinazko ziria.

⁷³ *Begiak armaturik*: begiak zabal-zabal ire-
kirik.

⁷⁴ *harontz-honontz*: harantz-honantz.

gogoratu⁷⁵ niri:
jan degun ezkeroztik
kapoitzar⁷⁶ guztia,
jan dezagun lasterka
orain burruntzia.

—Hago ixilik, mutil, —
dio Zapironek.

—Kontzientzia hori
egiteko non dek? —
erantzun omen zion
irriaz Misipik.

—Astoa! Errepainak⁷⁷
zer dion ez dakik?

Kontzientziaraino
etorri ezker,
mandoa nerea dek.
Gerokoa gero —.
Zapironek, entzunik
zer zion Misipik,
—Jan zak nahi badek, —dio—
ez diat jango nik.

Zenbat ez ote dira
kristaben⁷⁸ artean
eskrupuluz beteak
ezin dutenean,
eta besteen gauzaz
eskrupulo gabe
egiten diradenak
ahal badute jabe.

Hitz-ontzia

Parisen eta beste
herri handietan
ikusi ohi dirade
asko karriketan,
egunaz eta gabaz,
gizon hitz-ontziak,
jendez inguraturik
daudela guztiak.

⁷⁵ *gogoratu*: bururatu.

⁷⁶ *kapoitzar*: kapoi handia.

⁷⁷ *errepain(ak)*: esaera zaharra, errefraua.

⁷⁸ *kristaben*: kristauen.

Batek han egiten du
hartzaren orrua,
besteak hor gabazko
hontzaren kantua.
Azkenik beste batek
arpegi berean
farra eta negarra
denbora berean,
erakusten duela
arpegia zinez
alde batetik farrez,
bestetik negarrez.

Haien artean zan bat
txikiratzailea,⁷⁹
guztien gain-gaineko
gurrinkagilea.⁸⁰
Txit jende asko zeukan
karrika buruan⁸¹
ahoak zabaldurik,
bere inguruan.

Kapa handi batean
zegoan bildurik,
bultzaka, ezin leku
inolaz eginik.

Oju⁸² egiten zioten:
“Fuera, fuera kapa”,
beldurrez zezakean
zerbait hala tapa.

Kapa kendu ondoren
gurrink egiten du,
hain ongi non jendea
algaraz lehertzen du.

Hasten da berehala
gurrinkari⁸³ abila,

⁷⁹ *txikiratzailea*: zikiratzailea, zirikatzailea.

⁸⁰ *gurrinkagilea*: gurrinka edo kurrinka egiten duena (ik. behean *gurrinkari abila*). Kurrinka txerriek, basurdeek eta kidekoek egiten duen hotsari esaten zaio.

⁸¹ *karrika buru(an)*: kalearen bukaera.

⁸² *Oju*: oihua.

⁸³ *gurrinkari*: gurrinka edo kurrinka egiten duena (ik. goian *gurrinkagilea*). Kurrinka txerriek, basurdeek eta kidekoek egiten duen hotsari esaten zaio.

txapela luzaturik,
bertan diru bila.
Eta mutiko batek
dioke⁸⁴ esaten
jokatuko diola
gurrinka egiten.

Apostura eginik⁸⁵
biak dira hasten
karrikaren erdian
gurrinkak egiten.
Aditu zutenean
txikiratzailea,
oju egiten dute:
“lehen baino hobea!”
Eta aditurika⁸⁶
gero mutikoa,
“fuera, fuera” esanaz,
jendea han dijoa.

Galtzarbe-sare⁸⁷ bat du
mutilak agertzen
eta txerrikume bat
die erakusten,
esaten dielarik,
tximurtxi⁸⁸ batekin
—Ez nik, mutiko honek
dik gurrinka egin.

Zuek diozutenez
txikiratzaileak
egin dizkik gurrinkak
honek baino hobek.
Herriak bazinduzte
zuek buruzagi,
ez huke justizia
ibiliko gaizki.

⁸⁴ *dioke*: esaten omen dio. Ziurgabetasuna adierazteko forma.

⁸⁵ *Apostura egin*: apustu egin.

⁸⁶ *aditurika*: aditurik.

⁸⁷ *Galtzarbe-sare*: zorroa, zakua.

⁸⁸ *tximurtxi*: atximurkada.

Otsoa eta arkumea

Arkume bat jua⁸⁹ zan behin
erreka batera,
egarritu zalako,
ura edatera.

Irteten da otso bat
aurreko menditik,
jartzen zaio edaten
garaiko aldetik.⁹⁰

Bildotsa⁹¹ zegoan txit
mardul, biribila.

Asko ibiltzen gera
halakoen bila.

Hasten zaio otsoa
ojuka esaten:

— Mutil, zertan ari haiz
ur guztia lohitzen?

—Jauna, —dio bildotsak—
nahita ere urik
ezin zikin nezake
nik beheko aldetik.
Ikus beza berorrek,⁹²
baldin badu gura,⁹³
hor goitik hemen behera
datorrela ura.

— Hala dek —dio— baina
oraintxe urte bi,
zikindu hidan arras⁹⁴
ura hemen niri.

—Nola izan diteke,

—arkumeak dio—
baldin orain urte bi
ez banintzan jaio?

—Arrazoi dek, —otsoak
dio erantzuten.

⁸⁹ *juan*: joan. Birritan erabiltzen du aldaera hau, gainerakoetan *joan* erabiltzen du. 1967ko edizioan *joan*.

⁹⁰ *garaiko aldetik*: goiko aldetik.

⁹¹ *bildotsa*: urtebete inguruko arkumea.

⁹² *berorrek*: errespetuzko trataera.

⁹³ *gura*: gogoa, desioa.

⁹⁴ *arras*: osoki, guztiz, zeharo.

—Oraintxe hasitzen nak
kontuan erortzen:⁹⁵
hire anaia huen,
bai, hire anaia.
Oroitzen nak ni zala
egun hura jaia.⁹⁶

— Ez da —dio bildotsak—
horrelako gauzik.
Ez det, jauna, nik izan
sekula anairik.

— Hire amak, horrela,
behar zian izan—
erantzunaz, otsoa
lasterka hasi zan
bildotsaren ondotik,
ta nahi zuen egin
mila puska, gaixoa,
lau letaginakin.

Heltzera dijoala
bertan da azaltzen
ehiztari bat, eta du
bi balaz pasatzen.
Honela kendu zizkan
gure Jaungoikoak
otsoari bildotsa
jateko gogoak.

Etxe arratoia eta soro arratoia

Soro arratoi batek
etxe arratoia
ikusit zuen lodi,
gizen eta joia.⁹⁷

—Adiskidea, —dio
bertatik⁹⁸ esaten—
zure mardultasunak
guztiz nau harritzen.
Nonbait ongi ona da

⁹⁵ *kontuan erortzen*: konturatzen. Jatorriz-
koan eta 1967koan *erorten*; hutsa dirudi.

⁹⁶ *jaia*: jaieguna, igandea.

⁹⁷ *joia*: joria, lodia.

⁹⁸ *bertatik*: berehala.

daukazun bizia.
Egia esateko,
dizut enbidia.

—Nere bizimodua
jakin nahi badezu—
erantzuten dio hark—
zurea esazu.

—Ni —dio sorokoak—
zelaiz zelai nabil,
ale bat edo beste
ote dezadan bil.
Askotan bihurtzen⁹⁹ naiz
zulora leherturik,
aletxo bat bakarra
bildu gabetanik.
Orduan jaten ditut
belarren sustraiaik
eta izaten ditut
sabel-errabiak.¹⁰⁰

Nere bizimodua,
horra adiskidea,
orain jakin behar det
nik ere zurea.

—Arrazoa daukazu
—dio erantzuten
eta hasitzen zaio
honela esaten—:
Zure bi saihetsetan
det ongi ikusi
ase eta betean
ez zerala bizi.
Argia agiri da
batetik bestera,
negu honetan zoaz
goseak hiltzera.

Eroen kontua da
nekez bizitzea,
zuhurrena neke gabe
tripa betetzea.
Sinistatu¹⁰¹ nazazu:

⁹⁹ *bihurtzen*: itzultzen.

¹⁰⁰ *sabel-errabia(k)*: sabeleko mina, kolikoa.

¹⁰¹ *sinistatu*: sinestatu, sinetsi.

nik, adiskidea,
oraindika¹⁰² ez dakit
zer dan nekatzea.
Bizkitartean¹⁰³ nago
beti uguiturik.¹⁰⁴
Jan baino jan nahiago,
eta ezin janik.

Atoz ikus dezazun
nola nik etxea
goitik behera daukadan
janariz betea.
Han daukatzit¹⁰⁵ zintzilik
gazta Frandeskoak,
odolkiak, lukainkak
eta txorizoak.
Bakarrik nago eta
nahi nuke laguna
igarotzeko pozez
jostatzen eguna.

Ozta soro arratoiak
zuen hau aditu,
berehalaxe zion
atzetik jarraitu.
Etxera zirenean,¹⁰⁶
elkarren ondotik
sartu ziran despentsan
katuen txulotik.

Sorokoak ozta du
goratzen burua,
uste du ikusitzen¹⁰⁷
duela zerua.
—Zer da hau! —dio ojuka—
Hau bai dala mauka!
Honelako fortuna
munduan nork dauka?

¹⁰² *oraindika*: oraindikan, oraindik.
¹⁰³ *Bizkitartean*: bien bitartean.
¹⁰⁴ *uguiturik*: higuindurik, nazkaturik, janariz lepo.
¹⁰⁵ *daukatzit*: dauzkat.
¹⁰⁶ *Etxera zirenean*: etxera heldu zirenean.
¹⁰⁷ *ikusitzen*: ikusten.

Pozez eroturika,¹⁰⁸
trast, salto batean
igo eta jartzen da
lukainken gainean.
Jan eta jan ari da,
ezin uguiturik.
Ez du inork ikusi
halako jalerik.

Honela ari dala
sabela betetzen,
katuaren miauak
dirade aditzen.
Aditu bezin¹⁰⁹ laster,
eta salto bian,¹¹⁰
etxeko arratoia
sartzen da kabian.

Hura ikusi eta
gero, sorokoa
lasterka ondotika¹¹¹
hargana dijoa.
Nahi baino nekezago
sartu zan txulotik,
zeren sabela zeukan
lukainkaz beterik.

Ikusten du laguna
ikaraz betea
neke handiarekin
hartzen asnasea.¹¹²

—Zer da? —esaten dio—,
zer da beldur hori?
Zer gertatzen zaik mutil?
esan zadak niri.

Asnas ezin harturik,
dio erantzuten:
—Katuaren miauak
ez dituk aditzen?
Badituk lau etxean,
lauak chiztariak.

¹⁰⁸ *eroturika*: eroturikan, eroturik.
¹⁰⁹ *bezin*: bezain.
¹¹⁰ *salto bian*: bi saltotan.
¹¹¹ *ondotika*: ondotikan, ondotik.
¹¹² *asnasea*: arnasa.

Hoiek jan zizkidatek
nere bost anaiak.

Begira zak nola nik
daukadan buztana,
erdia larrutua,
beste erdia jana.

Doi-doia egun batez
nian iges egin.
Kontentu gelditu nak
honenbesterekin.
Geroztik galtzen diat
osoro burua,
aditzen dedanean
katuen miaua.

Hau entzun zuenean,
dio sorokoak:
—Maiz badira ikara
gaur bezalakoak,
hoa, mutil, nahi badek,
deaurru etxera,¹¹³
nahiago diat nik joan
sustraiak jatera.

Gabaz irtenik joan zan,
esanaz bidean,
peligrotika¹¹⁴ libre
arkitu zanean:
—Hobe diat nik askoz
pobreza pakean
ez aberastasuna
ikaren artean.

Esne-saltzailea

Neskatxa bat zijoan
plazara neguan,
eskuan txantxila¹¹⁵ ta
kaikua¹¹⁶ buruan.
Gorputz liraina zuen,
gerria txit mehea,

¹¹³ *deaurru-etxe(ra)*: deabru-etxea, infermua.

¹¹⁴ *peligrotika*: peligrotikan, peligrotik.

¹¹⁵ *txantxila*: esnea neurtu eta banatzeko era-
biltzen den ontzia.

¹¹⁶ *kaikua*: esnea biltzeko zurezko ontzia.

ilea erporaino¹¹⁷
urre kolorea.

Perla gisako hortzak,
ahoa txikia,
begiak beltz, handiak,
ezpaina gorria,
ibilian inori
ezer zor ez zion.
Hitz batean: jendeak
begiratzen zion.

Lasterka bere buru¹¹⁸
zijoan hizketan,
hitz egiten zuela
manera honetan:
—Esne hau nerea det.
Hala, aitak esan dit
saldu ta diru asko
niri emango dit.

Berehala behaitut¹¹⁹
arraultzak erosi.
Saski bat bete arraultz
izango det noski!
Udaberria dator,
maiz nere burua
txitox ikusiko det
nik inguratua.

Egiten diranean
oilanda-oilasko,¹²⁰
hartuko det haiekin
dirurikan asko,
erosteko ferian
aurrera-txerria,¹²¹
berexitzen¹²² derala
ahalbait¹²³ umazia.¹²⁴

¹¹⁷ *erpo(raino)*: orpoa.

¹¹⁸ *bere buru*: bere buruarekin, bere kolko-
rako.

¹¹⁹ *behaitut*: behar ditut.

¹²⁰ *oilanda-oilasko*: oilanda ‘oilo eme gaztea’
eta oilaskoa.

¹²¹ *aurrera-txerria*: gizonteko erabiltzen den
txerria.

¹²² *berexitzen*: bereizten, apartatzen.

¹²³ *ahalbait*: ahal den neurrian, ahal dela.

¹²⁴ *umazia*: umea egindako animalia emea.

Ugari izan baita
txit aurten ezkurra,
joaraziko diot
laster tripaz lurra.

Nola izango duen
urdaia lodia,
hartuko det honekin
nik diru handia
eta erosiko det
txahaltxo bat urrisa,¹²⁵
umeak egin ditzan
etxekeoen gisa.

Urte asko baino lehen,
badet nik ustea,
arkituko naizela
ganaduz betea.
Ozta izango al da
herrian neskatxik
dotea nik adina
izango duenik?

Asmo hoiek egiten
ari dan artean,
irristatzen zaiozka¹²⁶
bi oinak lurtean.
Adio haren esne,
arraultz ta txitoak.
Adio txerri, txahal ta
dote guztizkoa.

Askotan dirudite
gure esperantzak
osoro txakurraren
gaberdi¹²⁷ ametsak.

Astoa eta txerria

Asto bat bizi ohi zan
ukuilu batean
eta txerri bat, berriz,
haren bazterrean.

¹²⁵ *urrisa*: urrisa, animalia emea; *txahaltxo*
urrisa: txahaltxo emea.

¹²⁶ *zaiozka*: zaizkio.

¹²⁷ *gaberdi(ko)*: gauerdia.

Txerriari astoak
zion enbidia,
zeren askoz hobea
zan haren bizia.

—Hori —esaten zuen—
dago uguiturik.
Ez dezake ezer jan
ez badu irinik.
Ni, berriz, hemen nago
gosez idikirik,¹²⁸
majaderan¹²⁹ ez daukat
lastoaren pixkik.¹³⁰
Noizik behin baldin badet
milizkatzen¹³¹ zahia,¹³²
iduritzen zat¹³³ dala
orduaz eztaia.¹³⁴

Goizetik arratsera
ohi da haren lana,
tripa ezin jasoa,
ezer ezin jana.
Ni beti narabilte
arras zamaturik,
indarrak galdu eta
ezin higiturik.¹³⁵
Hatz egiten¹³⁶ diote
hari bizkarrean,
“maitetxoa” esanaz,
jana ematean.

Ni zamaren azpian
ez naute urriki,¹³⁷
behaituzte¹³⁸ egunean
neretzat makil bi.

¹²⁸ *gosez idikirik*: gosez irekirik. Zentzu metaforikoan, ‘gosez hilda’.

¹²⁹ *majadera(n)*: manjatera, aska.

¹³⁰ *pixkik*: pixkarik, apur bat.

¹³¹ *milizkatzen*: miazkatzen.

¹³² *zahia*: eho ondoren irinarekin nahasirik gertatzen den ale azal xehatua.

¹³³ *zat*: zait.

¹³⁴ *eztaia*: ezteia, festa.

¹³⁵ *higiturik*: mugiturik.

¹³⁶ *hatz egin*: hazka egin, arraskatu.

¹³⁷ *urriki*: errukia, gupida.

¹³⁸ *behaituzte*: behar dituzte.

Zenbat eta daukadan
indar gutxiago,
hanbat eta gainean
det golpe gehiago.

Hau ohi zan astoaren
betiko hizkuntza,
Jainkoari esanaz:
—Indazu¹³⁹ laguntza.

Ostegun gizen egun¹⁴⁰
deritzan goizean
golpeka hasten dira
etxeko atean.
Esnatzen da astoa
eta du ikusten
harakina barrena
deadarka sartzen
esanaz: —Guazen, guazen.
Non dago txerria?

Neskamea, harturik
eskuan pazia,¹⁴¹
hasten da idikitzen
gaixoari heia.¹⁴²
Irteten da txerria
doi-doia heietik,
hartzen du harakinak
belarrietatik
eta ematen dio
urte bi baino lehen
heriotza gogorra,
zeren dagoen gizen.

Nork esan astoaren
beldur-laborria,¹⁴³
noiz ailegatuko zan
beraren aldia!
Burutik oinetara
izerdiz bustirik
han zegoan gaixoa
txokoan ixilik.

¹³⁹ *indazu*: emadazu.

¹⁴⁰ *Ostegun gizen egun*: inauterietako osteguna da.

¹⁴¹ *pazia*: pertza.

¹⁴² *heia*: ukuilua.

¹⁴³ *laborria*: izua, izu-ikara, beldur handia.

Irten zan, bada, noizbait
gure harakina,
eta akabatu zan
astoaren mina.
Orduan esan zuen
bere barrenean:
—Jainkoari eskerrak
bizi naizenean!

Nik nere lagunari
enbidia nion,
nere patua opa
inori ez nion.
Ez det nik nahi alerik
ez det nahi irinik,
baldin hil behar bada
horrela gazterik.

Betoz nere gainera
hamar mila makil,
askoz nahiago det nik
honela zaharrik hil.
Berdin ikusia da,
ez da atseginik,
mundu honetan inon
zerbait gabetanik.

Berritsua

Tristan estudiante
gutziz behartsua,
buru handikoa¹⁴⁴ zan
baina berritsua:
aberastu nahi zuen.
Gutizi¹⁴⁵ ona da
baldin bide onetik
aberasten bada,
baina gutxi dirade
galdetzen dutenak
bideak diran txarrak
edo diran onak.

Hasten da gure Tristan
herriz herri deitzen

¹⁴⁴ *buru handikoa*: inteligentea, azkarra.

¹⁴⁵ *gutizi*: nahia, guraria, desira.

diela abereai
hitz eginarazten.

Horra non berehala
dakien erregek
zer abilidadea
dadukan Tristanek.
Bere-berehalaxe
deitzen du Madrila
honen gizon jakintsun
gutzizko abila.

Errege hasten zaio
pozturik esaten:
—Omen dakik astoai
hitz eginarazten?
Badiat bat etxean
eta dek emea.
Luzaro edan diat
nik haren esnea.

Berari zor zioat
nere osasuna,
geroztik uste diat
derala¹⁴⁶ laguna.
Orain aterako dek
kontua hemendik,
haren hitza aditu
nahiko ote dedan nik.

Tristanek dio: —Jauna,
da ezagutua
txit gogorra duela
astoak burua.
Berorren mesedeak
hamar urteetan
astoa entzungo du
ederki hizketan.

Gelara joan ondoren
dator erregea
sakela bat eskuan
ontz urrez¹⁴⁷ betea.
Eta ematen dio

Tristani, esanaz:
—Kontentu izango nak,
Tristan, hire lanaz
baldin ikusten badet
hamar urteetan
nere asto maitea
nerekin hizketan.

—Ez da —dio Tristanek—
predikadorerik
asto hori hizketan
gainduko¹⁴⁸ duenik.

Gil, haren adiskide
eta herritarra,
hau aditu ta ezin
idukirik farra,
hasten zaio esanaz:
—Deaurruz betea,
horrela engainatu
behak¹⁴⁹ erregea?
Iges egin zak, Tristan,
lasterka hemendik,
ostikoka ez badek
egon nahi zintzilik,
zergatik azkeneko
Tristanen pagua
izango dek hiltzea
hemen urkatua.

—Giltxo —dio Tristanek—,
gutziz dek luzea
eskatu eta eman
diraten epea.
Hamar urte hoietan,
kontu epe honi,
ez gaituk hilko errege,
astoa edo ni?

Abereak izurriakin¹⁵⁰

Baso eta soroak,
zelaiak, mendiak,

¹⁴⁶ *derala*: dudala.

¹⁴⁷ *ontz urre(z)*: ontzako urrea, diru zaharra, urrezkoa, hogezi edo hamasei ogerleko balio zuena.

¹⁴⁸ *gainduko*: gaindituko.

¹⁴⁹ *behak*: behar duk.

¹⁵⁰ *izurriakin*: 1967ko edizioan *izurriarekin*.

abere hilez zeuden
 arras estaliak,
 sartu zitzaielako
 gaitz bat txit handia,
 zeinari ohi dioten
 deitzen izurria.

Leku haietan baitzan
 lehoia errege,
 beldurrez geldi zedin
 jenderika¹⁵¹ bage,¹⁵²
 deitu omen zituen
 abere guztiak,
 utzirika¹⁵³ alde bat
 bakarrik eriak.¹⁵⁴

Joan ziraden lasterka,
 ahal zuten lehenena,
 zein baino zein harako
 ote zan aurrena.
 Muino baten gainean
 lehoia jarri zan,
 eta handik ojuka¹⁵⁵
 honela hasi zan:

—Nere seme maiteak,
 da izugarria
 gure artean sortu
 zaigun izurria.
 Gelditu beharra naiz
 ni, zuen errege,
 egun asko baino lehen
 inor ere bage.

Zuei esateko,
 da nere ustea,
 honenbeste bat jende
 galtzen ez uztea.
 Izurri honi omen
 deritza kolera,
 eta deitu zaituztet
 guziak honera

¹⁵¹ *jenderika*: jenderikan, jenderik.

¹⁵² *bage*: gabe. *Gabe* ere erabiltzen du Iturriagak. 1967ko edizioan *gabe* berriatzi da.

¹⁵³ *utzirika*: utzirikan, utzirik.

¹⁵⁴ *eri(ak)*: gaixoa.

¹⁵⁵ *ojuka*: oihuka.

nolabait Jaungoikoa
 dezagun eztitu,
 eta kolera gabe
 gaitezen gelditu.

Uste det eztitzeko
 haren mesedea
 on dala gutako bat
 gaur hemen hiltzea,
 erretzen degularik
 gero aldarean
 kolera utzi gaitzan
 lehenbailehen pakean.

Nor da gure artean
 gaitzika¹⁵⁶ gehiena
 jaio zanetik honontz
 egiten duena?
 Hau da, nere semeak,
 ez daukat dudarik,
 daukana Jaungoikoa
 txit hasarraturik.

Hau hilik aldarean
 erretzen badegu,
 berehala Jainkoa
 eztituko degu,
 gelditzen diralarik
 gure pekatuak
 han goien¹⁵⁷ duda gabe
 betiko ahaztuak.

Hasi bedi bakoitza
 esaten bereak,
 aditurik aurrena
 osorik nereak:
 —Behin ere ez det izan,
 aitortuko det nik,
 aberez asetzeko
 batere kupidik.¹⁵⁸
 Zezenak, behiak, ahuntzak
 eta basurdeak,
 bete izan dituzte
 maiz nere hesteak.

¹⁵⁶ *gaitzika*: gaitzikan, gaitzik.

¹⁵⁷ *han goien*: zeruan.

¹⁵⁸ *kupidik*: gupidarik, errukirik.

Gaiztakeria hoiek
dirade nereak.

Orain esango ditu
bakoitzak bereak.

—Ez, jauna ez —ojuka
dio azeriak.

Ez dirade horiek,¹⁵⁹
ez, gaiztakeriak.
Nonahi beti mendean
bizi dan jendeak,
bazkatutzen¹⁶⁰ ohi ditu
bere erregeak.

Katamotzak zionez,
bai ere otsoak,
haiek jan ohi zituzten
artalde osoak.
Asko alditan zion
berriz azeriak
hustu izan zituela
hark oilotegiak.

Pekatuak esaten
bakoitza dijoa,
eta azken-azkena
badator astoa.
Arrantzaz hasitzen da
bereak esaten,
eta modu honetan
ojuak egiten.

—Jaunak, ni oroitzen naiz
igande batean
bazkatzen nebilela
goizetik larrean
inon ere belarririk
ezin arkiturik,
egin ez zuelako
luzaro euririk.

Sartu izandu nintzan
gari zelaiean,

¹⁵⁹ *horiek*: jatorrizkoan hala dator baina gainerako agerraldietan *hoiek* erabiltzen du Iturriagak.

¹⁶⁰ *bazkatutzen*: bazkatzen, elikatzen. Beherago *bazkatzen* dakar.

baina jauna egiaz
zan uste gabean,
eta ezin gogora
zait etorri niri
jan nituen edo ez
buru bat edo bi.

Atera bezin laster
hitz hoiek ahotik,
azeriak ojuka:
—Ez dago dudarik!
—esaten du— Hori da,
horixen da, hori,
hemen sartu diguna
izurria guri.

Berehala behar du
hankaz gora jarri,
aldarean dezagun
ederki etzarri.¹⁶¹
Iduritu zitzaion
ongi jendeari
bizia kendutzea¹⁶²
asto gaixoari.

Berehala astoa
gelditu zan hilik
ez izanagatika¹⁶³
batere kulparik.

Erregek inguruan
zeuzkan mutikoak,
nola ziran katamotz,
azeri, otsoak,
irri egiten zuten
astoa hiltzean,
hil eta hankaz gora
surtan etzartzean.

Mundu honetan beti
indarra dutenak
ez badirade ere
mutilik onenak,
esan ohi da dirala

¹⁶¹ *etzarri*: ezarri. 1967koan *ezarri*.

¹⁶² *kendutzea*: kentzea.

¹⁶³ *izanagatika*: izanagatikan, izanagatik.

txit gizon prestuak,
estaltzen diralako
haien pekatuak.
Beste aldetik, berriz,
jende behartsua
ardit¹⁶⁴ batengatika¹⁶⁵
ohi da urkatua.

Baina gertatzen ohi da
hau gure artean.
Bestela izango da
han gora¹⁶⁶ joatean,
zeren izango gera
guztiok han berdin,
nahiz errege hemen izan,
nahiz izan arlekin.¹⁶⁷

Txitxarra eta txingurria

Iduritzen zitzaion
urrikigarria¹⁶⁸
txitxarrari auzoan
zuen txingurria,
zeren ikusten zuen
lehertutzen lanean
denbora pixkatxo bat
ondutzen¹⁶⁹ zanean.

Askotan esan zion,
ez irriz, benetan:
—Ez diat lanik egin
nere egunetan,
eta uste diat nik,
nere mutikoa,
lan egiten duena
dala txit astoa.

Zer ibili behar dek
beti arrastaka
ezin gari ale bat

karraiaturika,¹⁷⁰
erori eta altxa,
beti jira-bira,
eramatiagatik
ale bat kabira?

Bizimodu txar hori
utzak, txingurria.
Egin zak nik egiten
deraden¹⁷¹ guztia.

Txingurriak jakinik
gurasoetatik,
ezin biziko zala
egin bage¹⁷² lanik,
txitxarraren esanik
ez zuen aditu,
eta bere lanari
ohi zion segitu.

Bitartean txitxarra
zijoan pasatzen
uda guzti-guztia
sasian kantatzen.
Baina gaizki jo zion
soinua kukuak,¹⁷³
uda joan eta zuen
atzeman neguak.

Eta nola baituen
kopet itsusia,
joan ziran txitxar kanta
eta erausia,
zeren bukaturika¹⁷⁴
udako asea,
hotzak ekarri zuen
berek in gosea.

Txitxarra gelditu zan
argala, umila,

¹⁶⁴ *ardit*: balio gutxiko txanpon mota.

¹⁶⁵ *batengatika*: batengatikan, batengatik.

¹⁶⁶ *han gora*: zerura.

¹⁶⁷ *arlekin*: bufoia.

¹⁶⁸ *urrikigarria*: urrikarria, errukarria.

¹⁶⁹ *denbora...ondutzen*: eguraldiak hobera egin.

¹⁷⁰ *karraiaturika*: karraiaturikan, karraiaturik, garraiaturik.

¹⁷¹ *deraden*: dedan, dudan.

¹⁷² *bage*: gabe.

¹⁷³ *kukuak gaizki/oker jo*: gauzak gaizki, espero ez bezala gertatu.

¹⁷⁴ *bukaturika*: bukaturikan, bukaturik.

heste zimurtuakin¹⁷⁵
eta erdi hila.
Oroitzen da auzoan
badala zer jana,
dijoa arrastaka
txingurriagana.

Eta esaten dio
doi-doia argalez:
—Adiskidia, dizut
eskatzen mesedez
zure gordaidutika¹⁷⁶
pixkatxo bat zer jan,
nolabait negu beltz hau
igaro dezadan.

Ikusi zuenean
hain argal txitxarra,
txingurriak, eginaz
gogotika¹⁷⁷ farra,
hola esaten dio:
—Zu honontz txitxarra?
Kantari ona zera,
behargile txarra.

Uda igaro dezu
erausian,¹⁷⁸ kantan,
ni nebilen artean
lehertzen lan eta lan,
eta orain nahi dezu
txingurri nekeak
bete ditzaten txitxar
alferren hesteak?

Ez, ez horrelakorik!
On da ikustea
zer dan mundu honetan
alfer izatea.
Ni lehen nekatu eta
banoa jatera,
zu geldi egon zera,
zoaz kantatzera.

¹⁷⁵ *heste zimurtuakin*: sekulako gosearekin.
¹⁷⁶ *gordaidutika*: gordaidutikan, godaidutik,
gordailutik.

¹⁷⁷ *gogotika*: gogotikan, gogotik.

¹⁷⁸ *erausi(an)*: erasia, hizketa, murmurazioa.

Lagundu behar zaio
behargileari,
ez, ordea, behin ere
jende alferrari.

Igelak errege eskatzen

Abere mot¹⁷⁹ bakoitzak,
lehengo denboretan,
erregea bazuten
toki guzietan.
Gabetanika¹⁸⁰ zeuden
igelak bakarrik,
zeren ozta ziraden
irteten lohietik.¹⁸¹

Eta ez da atsegin,
nahiz izan errege,
bizitzea lohipean
handik irten bage.¹⁸²
Igel gaixoak zeuden
arras¹⁸³ lotsaturik,
inork ez zielako
egiten kasorik.

Biltzen dira guziak
beren batzarrean
eta diote:
—Guazen
jartzera aurrean
Jupiter handiari
eta esatera,
“Jauna, gatoz zugana
errege eskatzera:
abere mot¹⁸⁴ bakoitzak
izanik berea,
guk ere nahi genduke,
ahal balitz, gurea.”

¹⁷⁹ *mot*: mota. Agian silaba kopurua egokitzeko kendu du azken *-a* hori.

¹⁸⁰ *gabetanika*: gaberik, gabe.

¹⁸¹ *lohi(etik)*: lokatza.

¹⁸² *bage*: gabe. Iturriagak *gabe* ere erabiltzen du eta 1967ko edizioan *gabe* idatzi zuten.

¹⁸³ *arras*: guztiz, zeharo.

¹⁸⁴ *mot*: mota. Agian silaba kopurua egokitzeko kendu du azken *-a* hori.

Jupiterrek, mugituz
noizik behin burua,
aditu omen zien
beren erregua.

Far-irria¹⁸⁵ eginaz,
zeren ez zekiten
igel txoriburuak¹⁸⁶
zer eskatzen zuten.
Bada, bizi ziraden
elkarren artean,
kantatu eta josta,
ederki pakean.

Esan omen zioten
beren Jaungoikoak:
—Ez zaitzela izan
arren hain txoroak,
zeren ez da munduan
zori onagorik,
nola dan bizitzea
buru¹⁸⁷ gabetanik.
Badezute non bizi,
zer jana, pakea,
zertako nahi dezute
orain erregea?

Gaiztoak behar dute,
ez dago dudarik,
elkar hil ez dezaten
buru gabetanik,
baina izanik ona
zuen familia,
zer deaurrutarako
du agintaria?

—Jauna —erantzun zuten—:
badute besteak
eta lotsatzen gaitu
guk ez izateak.
Ez gera gutxiago,
noski, haiek baino.
Lotsarik asko izan
degu oraindaino.

¹⁸⁵ *far-irria*: barre-irria, irribarrea.

¹⁸⁶ *txoriburu(ak)*: buruarina.

¹⁸⁷ *buru*: kasu honetan ‘nagusia, jabea’ esan nahi du.

—Hori horrela bada—
dio Jupiterrek,
—faltarik ez dizute
egingo erregek.

Hau esan ondorean,
horra non batetan¹⁸⁸
zerutik zingirara¹⁸⁹
zerbait erortzen dan,
ematen duelarik
halako golpea,
non galtzen dute arras
igelak kordea.¹⁹⁰

Pixka bana¹⁹¹ ikara
pasa ondorean,
eta ezaguera¹⁹²
etorri zanean,
lasterka han dijoaz
sartzera lehenbailehen,
gutxienaz kana¹⁹³ bi,
lohien barrena.

Zortzi egun haietan
ez zan bat bakarrik,
lohietik irtetera
atrebitzen zanik.

Noizbait irteten da bat,
eta dio, —*tat, tat*,
erregetzat diagu
egur puska handi bat.
Ikusi zutenean
ziola egia,
nork esan haien lotsa,
eta errabia.

Badijoaz lasterka
Jupiterren bila,
eta esaten diote:
—Jauna, esker mila.

¹⁸⁸ *batetan*: bat-batean.

¹⁸⁹ *zingira(ra)*: istinga, aintzira lohitsuua.

¹⁹⁰ *kordea*: konortea.

¹⁹¹ *Pixka bana*: pixkana.

¹⁹² *ezaguera*: ezagutza, zentzua.

¹⁹³ *kana*: luzera-neurria, metroa baino zerbait laburragoa.

Gaur bidaldu diguzun
errege prestua
da itsua ta gorra,
gainera mutua.
Beste bat nahi genduke
ernaia,¹⁹⁴ bizia,
jendiari agintzen
ongi ikasia.

—Zoazte hortika,¹⁹⁵ zoazte. —
die erantzuten.

— Berdin¹⁹⁶ ez dakizute
zer darabilzuten.
Bidaltzen die, bada,
beste erregea,
zeina zan hamar kana
luze zan sugea.

Zingiran¹⁹⁷ sartu eta
hasi zan batetan,¹⁹⁸
igelai jarraika
harrapa eta jan.
Han dijoaz igesi
behera eta gora
batzuek lohi azpira
besteak kanpora.

Madarikatzen dute
guztiak errege,
hobeto ziralako
agintari bage.
Honela ohi dirade
txoroen kontuak,
ez die farra gaizki
egiten munduak.

Ongi geran orduan,
hobeto nahi degu,
galdu ta gero ona
ezagutzen degu.
Baina nola orduan

¹⁹⁴ *ernaia*: ernea, atzarria.

¹⁹⁵ *hortika*: hortikan, hortika.

¹⁹⁶ *Berdin*: agian, beharbada.

¹⁹⁷ *zingira(n)*: istinga, aintzira lohitsuia.

¹⁹⁸ *batetan*: bat-batean.

ez degun protxurik¹⁹⁹
ez ohi zaigu gelditzen
damua besterik.

Asto buru gogorra

Asto bat zebilen behin
bazkatzen²⁰⁰ larrean
bururaino estaltzen
zuen belarrean.
Hain zegoan kontentu
gure aberea,
non dagoan Txinako
enperadorea.

Belarrez ase eta
eginaz arrantza,
guztia zan harentzat
festa eta dantza.
Lepoa luzaturik,
bi belarriak zut,²⁰¹
arrantzaka ikusten
derala²⁰² uste dut.²⁰³

Honela dabilela
batetik bestera,
oroitu gabetanik
joateaz etxera,
noizik behin luze-luze
etzinik²⁰⁴ lurrean
tripaz gora jarriarik,
zankoak²⁰⁵ airean.

Horrontz-honontz²⁰⁶ jiraka
zan gorputz guztia,
gelditzen zitziola
hautsez estalia,

¹⁹⁹ *protxu(rik)*: probetxu, onura.

²⁰⁰ *bazkatzen*: bazka hartzen, larratzen, alhatzen.

²⁰¹ *zut*: zutik, tente.

²⁰² *derala*: dedala, dudala.

²⁰³ *dut*: hau da *dut* darabilen kasu bakarra; gainerakoetan *det* gisakoak ditu. Errimogatiko hautua bide da.

²⁰⁴ *etzinik*: etzanik, etzanda.

²⁰⁵ *zanko(ak)*: zangoa, hanka.

²⁰⁶ *horrontz-honontz*: horrantz-honantz.

akabatzen zuela
azkenean festa
tronpeta joaz, nola
esan behar ez da.

Honela dabilela
astoa mendian,
nausia ikusten du,
ez txit urrutian,
deituaz —Potxo, Potxo,
hatorkit honera.
Etsaiak dijoazkit
hor hire gainera.

Ez al dituk aditzen
tronpet-atabalak
eta txistuka horrontz
dijoazen balak?
Hator honontz lasterka,
edo haiz galdua,
ukuiluan han daukak
toki segurua.

Potxo sasi tartean
han dabil bazkatzen,
nausiari kasorik
ez dio egiten.
Egur bat hartu eta
han dijoakio,
eta burutik behera
erasotzen dio.

Esaten diolarik,
—Esker gabekoa!
Nik oju egin eta
hi igesi hoa?
Asto madarikatu,
nar,²⁰⁷ buru gogorra,
noiz ezkeru egin haiz
hi neretzat gorra?

Ez dituk bizi hire
aita ta aitona,
ezagutzen zutenak
beren zori ona!
Guazen, guazen hemendik,

²⁰⁷ *nar*: narra, ergela.

guazemak²⁰⁸ etxera,
merezi ez dek baina,
otea²⁰⁹ jatera.

Astoak nausiari
dio erantzuten,
—Pentsamentu bat orain
nengoan egiten:
harrapatzen banaute
ni hemen etsaiak,
gaitzik egingo ditet²¹⁰
haien astazaiak²¹¹
Edo haien mende
gelditzen banaiz ni,
ifiniko dizkitet²¹²
gainean txalma²¹³ bi?
Ni bezalakoentzat,
nere nagusia,
nere ustez etsaia
da mundu guzia.

Patu gaiztoarekin
danean bat jαιο,
han edo hemen bizi
oro orobat zaio,
eta gerra denboran,
ezer ez izanik,
ez ohi du aberatsak
duten ikararik.

Belea eta azeria

Zuraritz²¹⁴ luze baten
tontor-tontorrean
bele bat gelditu zan
joan dan egunean.
Bere mokoan zeukan
gazta bat guria,²¹⁵

²⁰⁸ *guazemak*: goazemak, joan gaitezen; agin-terazko forma trinkoa hikako moldean.

²⁰⁹ *otea*: zuhaixka mota bat.

²¹⁰ *ditet*: didate.

²¹¹ *astazai(ak)*: astazaina.

²¹² *dizkitet*: dizkidate.

²¹³ *txalma*: zama lanetan aritzen diren animaliei bizkarrean jartzen zaien bigungarri arina.

²¹⁴ *zuraritz*: zuhaitza.

²¹⁵ *guria*: biguna.

borda leiho batetik
ebatsi²¹⁶ berria.

Azeri bat irten zan
harkaitzen artetik
eta igarotzen zan
zuraritz azpitik.
Ozta zuen gaztaren
usaia sentitu,
gora begiratuaz
bertan zan gelditu.

Ikusi zuenean
hain gazta guria,
zintzilika zerion
ahotik lirdia.²¹⁷
Geldi-geldi zegoan
zuraritz azpian,
gazta nahi, ezin izan,
zalez errabian.²¹⁸

Bere barrenen zion:
“Ezin gora io!²¹⁹
Igotzen banaiz ere
ez likek balio,
zeren nik nahi banuke
hargana gora joan,
iges egingo likek
berehala hegan.

Zerbait beste gauzarik
behaiat²²⁰ asmatu.
Tat tat oraintxen bertan
zaidak gogoratu.²²¹
Ezin hobeagoko
pentsamentuba dek,
sei minutu baino lehen
gazta nerea dek.”

—Agur adiskidea, —
dio behetik deitzen.
Zure edertasunak

²¹⁶ *ebatsi*: lapurtu.

²¹⁷ *lirdia*: lerdea, adurra, baba.

²¹⁸ *zalez errabian*: gogo biziz.

²¹⁹ *io*: igo.

²²⁰ *behaiat*: behar diat.

²²¹ *gogoratu*: bururatu.

nau enamorutzen.
Moko horia dezu,
luma beltz-urdina,
begia, berriz, galant,
argi eta fina.

Hitz batean zerade
hain guztizko joia,²²²
non arkitu diteke
beste bat doi-doi.
Sinistatu nazazu,
dudarika²²³ bage,²²⁴
hegaztien artean
zinake errege.

Zeran bezin eder
bazendu kantua,
hala dezun edo ez,
hor dago kontua.

Beleak aditzean
lausengatxo²²⁵ hura
sentitzen du beregan
kantatzeko gura.²²⁶
Ozta idikitzen²²⁷ du
gaixoak moko,
berehala lurrera
gazta han dijoa.

Azeriak algaraz
omen zion deitu:
—Horren kanta ederrik
ez det nik aditu.
Orain nik gazta jaten
deran²²⁸ bitartean,
goza zaitez zu zere²²⁹
harrotasunean.

²²² *joia*: ederra, bikaina.

²²³ *dudarika*: dudarikan, dudarik.

²²⁴ *bage*: gabe.

²²⁵ *lausengatxo*: lausengua; norbaiten gogoa edo onginahia irabazteko egiten zaion hitza edo keinua, askotan, engainuzkoa.

²²⁶ *gura*: gogoa, desioa.

²²⁷ *idikitzen*: irekitzen.

²²⁸ *deran*: dedan, dudan.

²²⁹ *zere*: zeure.

Jangoikoak dizula²³⁰
luzaro osasuna,
zure kantu eztia,
zure edertasuna.
Kontentu izango naiz
ni nere aldetik,
tripa betetzen badet
maiz zure mokotik.

Hau esan eta joan zan
bere gaztarekin.
Belea gelditu zan
sabel hutsarekin.
Lausengarien²³¹ hitza
duenak sinisten,
honelakoxe txalmak²³²
ditu eramaten.

Oilarra eta azeria

Oilar bat zebilen behin
faza ederrean,²³³
soroa jorratuaz²³⁴
jaten goiz batean.
Kakaraza²³⁵ eginaz,
horra non batetan²³⁶
igotzen dan oilarra
arbolera hegan.

Begira negokion²³⁷
ni bazter batetik,
ezin begiak kenduz
inolaz hargandik.
Gain-gainean zegoan
jarririk ederki,
oilar ederragorik
ez det nik ikusi.

²³⁰ *dizula*: eman diezazula.

²³¹ *lausengari(en)*: lausenguak, losintxak, askotan engainuzkoak diren hitz ederrak esaten dituen pertsona.

²³² *txalma(k)*: ustekabekoa, desilusioa.

²³³ *faza ederrean*: lasai ederrean, patxadan.

²³⁴ *jorratu(az)*: soroko belar txarrak kendu eta lurra harrotu.

²³⁵ *Kakaraza*: karaka, oiloaren kantua.

²³⁶ *batetan*: bat-batean.

²³⁷ *negokion*: nengoen, ni hari.

Atzapar bat bazuen
kana²³⁸ batekoa,
atzeko azkazala
zentzadarrekoa,²³⁹
bularra²⁴⁰ txit lodia,
lepoa laburra,
begi hori-gorriak,
mokoa makurra.²⁴¹

Atzeko lumak jo nahi
zioten burua,
zintzilik goitik behera,
eginaz arkua.
Galdor²⁴² gorri handia
zeukan hain zuzena,
non hartan ikusten zan
beraren kemena.

Haren luma ederrak,
eguzkiak jorik,
distiatutzen²⁴³ zuten
gutziz urrutitik,
halako moduan, non
ez nezake esan
gure oilar hori zer
kolorezkoa zan.

Hain laster zirudien
zilarra, urrea,
non perla, esmeralda,
non diamantea.
Hari begira ezin
nintzan ni aspertu.
Ez pentsatu derala²⁴⁴
ezertan edertu.

²³⁸ *kana*: neurri mota, metroa baino laburragoa.

²³⁹ *zentzadarrekoa*: neurri mota, hatz-loditik erakuslerako distantzia; *zehume* ere esaten zaio.

²⁴⁰ *bularra*: jatorrizko argitalpenean eta 1967koan *bullarra* agertzen da. *OEHn* (s.v. *bular*) errata izan daitekeela iradokitzen da, lekukotasun bakarra baita.

²⁴¹ *makurra*: okerra.

²⁴² *Galdor*: gandorra, gangarra.

²⁴³ *distiatutzen*: distiratzen.

²⁴⁴ *derala*: dedala, dudala.

Oraindik sei minuto
igaro baino lehen,
azeri zahar handi bat
horra non datorren.

Ikusten du oilarra,
gelditzen da bertan,
behetik gora hasten zaio
honela hizketan:

—Biba, biba, maitea.
Hauxen bai berria:
pakeak egin dira!
Gaur mundu guztia
bizi diteke aisa,
beldur gabetanik.
Inork ez du aurrera
izango etsairik.

Katu eta txakurrak,
otso-arkumeak,
azeriak, oilarrak,
gera adiskideak.
Jaitsi zaitetz lasterka,
beldurrik ez izan.
Elkarri laztantxo bat
behaiogu²⁴⁵ eman.

Oilarrak berehala
dio erantzuten:
—Zaude pixka-pixka bat,
horra non datozen
hiru azeri-txakur.²⁴⁶
Horra otadian
lasterka lau oinean
lehertzeko zorian.
Ez dago, ez, dudarik:
diozu egia.
Hoiiek dakarte seurki
pakeen berria.

Aditu bezin laster,
txakurren izena,

han dijoa azeria
ahal duen lehenena.

—Zaude, zaude— oilarra
hasten zaio deitzen.
Berehala natzazu²⁴⁷
hemendik jaitsitzen.
Ez dago gelditzeko
gure azeria,
badirudi igesi
dijoan erbia.

—Gutziz presa det— dio.
Berehala hor naiz.
Guk honelako presak
ohi ditugu txit maiz.
Gutziz asko jakina
zan azeri zaharra,
baina oilarra ere
ez bide zan narra.²⁴⁸

Ahuntzak eta akerrak

Munduan enbidia
batak besteari
izaten ohi diogu
txit maiz edo beti.
Ahuntzak ikusirika²⁴⁹
zirala akerrak,
jendeen arabera
gutzizko ederrak,
eta haiek eragin
ohi zutela farra
falta zitzaielako
zintzilik bizarra.

Joan omen ziran beren
jaungoikoagana
esanaz: —Jauna, gatoz
gaur berorregana²⁵⁰
adiarazotzera²⁵¹

²⁴⁵ *behaiogu*: behar diogu.

²⁴⁶ *azeri-txakur*: azeriak ehizatzeke erabiltzen den txakurra.

²⁴⁷ *natzazu*: natzaizu. Jatorritzkoan eta 1967koan *nazazu*.

²⁴⁸ *narra*: ergela.

²⁴⁹ *ikusirika*: ikusirikan, ikusirik.

²⁵⁰ *berorregana*: errespetuzko trataera.

²⁵¹ *adiarazotzera*: adieraztera.

zer lotsagarria
dan gutzaz egitea
jendeak irria.
Zergatik kokotzean
ez degun bizarrik,
akerren motakoak
gu ere izanik.

Jauna, gure kokotza
bizarrez betea
gelditzeko asko da
zuk nahi izatea.
Esperantza daukagu
etxera hemendik
bihurtuko²⁵² gerala
bizarrez jantzirik.

Jaungoikoa honetan
zegoan glorian
ahuntzak entzunaz, irriz
lehertzeko zorian.
Eta esaten die:
—Zoazte hemendik.
Ez esan horrelako
txorakeriarik.

Baina negarrez ahuntzak
omen ziran hasi,
harat-honat ibiliz
beeka sasiz sasi.
Kupiturik²⁵³ orduan
jainkoa guztia,
eta hartzen zuela
manera ezta:
—Horra,— esan zioten
bertatik —²⁵⁴ bizarra.
Munduak egingo du
orain zuez²⁵⁵ farra.

Kontrara gertatzen da
gaurko egunean:
akerrak ahuntz nahi dute
izan gehienean.

²⁵² *bihurtuko*: itzuliko.

²⁵³ *Kupiturik*: errukiturik.

²⁵⁴ *bertatik*: berehala, segituan.

²⁵⁵ *zuez*: zuetaz.

Gizonak andre moten
manerak harturik,
ikusten dirade maiz
tximu bihurturik.

Ahuntzak ahuntz behau²⁵⁶ izan,
akerrak akerra.

Gizonak indartsua,
andreak ederra.
Bestela buruz behera
joango da mundua
eta geldituko da
betiko galdua,
ematen zaiolarik
kulpa Jainkoari,
nork eman beharrean
bere buruari.

Lehoia eta tximuak

Lehoi bat irten zan behin
zulotik ehizera,
gosez irrikiturik,²⁵⁷
tripa betetzera.
Alferrik ibili zan
goiz santu guztian,
ezin topaturika²⁵⁸
ehizika²⁵⁹ mendian.

Muino baten gainera
igo ondorean,
nekatu rik zegoan
lo bete-betea n.
Horra non bat-batetan²⁶⁰
tximu irrintziak
igarotzen diozkan²⁶¹
bere belarriak.

Esnatzen da saltoan,
jartzen da begira,

²⁵⁶ *behau*: behar du.

²⁵⁷ *gosez irrikiturik*: gose handiz.

²⁵⁸ *topaturika*: topaturikan, topaturik.

²⁵⁹ *ehizika*: ehizarik.

²⁶⁰ *bat-batetan*: bat-batean. Esanahi berarekin

batetan soila ere erabiltzen du.

²⁶¹ *diozkan*: dizkion.

irrintzia datorren
aldeko mendira.
Begi zorrotza zuen,
urrun egon arren,
ehiza ikusitzen²⁶² du
basoan barrenen.

Badijoa poliki
tripaz lurra joaz,
histua²⁶³ dariola
jateko gogoaz.
Alderatu²⁶⁴ zanean
baso barrenera,
han dijoaz tximuak
arbolen gainera.

Amorratutzen²⁶⁵ zaio
txalma²⁶⁶ handi honekin,
gosez irrikiturik
ez daki zer egin.
Hartzen du tximu batek
eskuan ezkurra,
tiratu eta dio
odoltzen sudurra.

Beste batek hautsitzen²⁶⁷
du berriz egurra,
eta zauritzen dio
txit bizkarrezurra.
Hanka altxatu eta
txakurraren gisa
egiten dio batek
zar zar goitik pisa.

Azkenik beste batek,
jasorik buztana,
egin zion gauza bat
esaten ez dana.
Honela zital haiek
lehoi indartsua

²⁶² *ikusitzen*: ikusten.

²⁶³ *histua*: txistua, listua.

²⁶⁴ *alderatu*: gerturatu.

²⁶⁵ *amorratutzen*: amorratzen, errabiatzen,
haserratzen.

²⁶⁶ *txalma*: desilusioa, dezepzioa.

²⁶⁷ *hautsitzen*: hausten.

uzten dute burlaka
arras lotsatua.

Burua makurturik
badago lehoia,
ez dezake iritsi
arbolaren goia.
Urgunka²⁶⁸ badijoa,
bide bazterrera,
etzinik egiten du
hilaren papera.

Tximuai, ikusirik
odola isurtzen,
egiazki hil dala
zaie iduritzen.
Bere-berehalaxen
tximu familia
goitik behera saltoka
jaisten da guztia.

Inguratutzen dute
hilaren gorputza,
algaraka diote:
—Hau triparen hutsa!
Batak egiten dio
hozka belarritik,
besteak tiratutzen
dio buztanetik.

Hori ezer ez dala,
hau bai ausartzia!
Larrutu nahi diote
hiruk epurdia.²⁶⁹
Altxatzen da batetan
lehoia lurretik,
ez zaio bat itzultzen²⁷⁰
dagoan lekutik.

Hiltzen ditu guztiak
hortzaz, atzaparraz,
eta buztanarekin
ezker-eskui joaz.
Utzitzen duelarik,

²⁶⁸ *Urgunka*: herrenka.

²⁶⁹ *epurdia*: ipurdia.

²⁷⁰ *itzultzen*: itzurtzen, alde egiten.

zer negargarria!,
lurra zan bezin zabal
tximuz estalia.

Hargatik esan ohi da
etsai agiria
ez dala hain gaiztoa
non dan estalia.

Euliak

Abaraska²⁷¹ batean
zegoan eztiak
beregana zituen
milaka euliak.
Jan baino jan nahiago,
nabarmenkerian
zebiltzan triparaino
sarturik eztian.
Azkenean guztiak,
oinak itsatsirik,
bertan gelditu ziran
ase eta hilik.

Hau egiten balute
euliak bakarrik,
ez litzake, kristabak,
zer izan penarik.
Baina izan ohi dira
gizonen erdiak,
batzuek tripazaiak,²⁷²
besteak hordiak,²⁷³
eta hiltzen ohi dira
gaztetasunean,
bizi nahi dutelako
ase ta betean.

Sugea eta nekazaria

Gizon bat zijoan behin
zelaitik etxera,

goiz guztian lan egin,
eta bazkaltzera.
Ikusten du bidean
etzinik sugea,
hotzak erdi hilika,²⁷⁴
korderik²⁷⁵ gabea.
Kupiturik²⁷⁶ sartzen du
gaixoak kolkoan,
hango beroarekin
pizteko asmoan.
Etxera joan zaneke²⁷⁷
sugea hasi zan,
kolkotika²⁷⁸ kanpora
atera nahirikan.

Kanpora botatzeko,
gizonak hartzen du,
eta suge gaiztoak
hozka pozoitzen du.
Horra esker ederrak!
Zitalen eskutik
ez du izango inork
behin ere gauz onik.

Hilabete baino lehen
suge hura bera,
hotzak ikaturirik,
dator sukaldera.
Ojuka hasten dira
etxeko guztiak.
Jarraitutzen²⁷⁹ diote
morroi-nagusiak.

Sartzen da ukuiluan,
badabiltza bila,
arkitzen dute eta
uzten dute hila.
Zitalkeriak ez du
behin ere gauz onik,
eta inork ez du nahi
ikusi zitalik.

²⁷¹ *Abaraska*: ezta gordetzeko, erleek erlaun-
tza barruan argizariz prestatzen dituzten gelaxka
hexagonalen multzoa.

²⁷² *tripazai*: tripazaina, pertsona jatuna.

²⁷³ *hordi(ak)*: mozkorra.

²⁷⁴ *bilika*: hilikan, hilik.

²⁷⁵ *korde(rik)*: konortea.

²⁷⁶ *Kupiturik*: errukiturik.

²⁷⁷ *Etxera joan zaneke*: etxera joan zenerako.

²⁷⁸ *kolkotika*: kolkotikan, kolkotik.

²⁷⁹ *Jarraitutzen*: jarraitzen.

Arrantzalea eta arraia

Askotan ohi bezala,
joan zan ibaiera
behin batean gizon bat
arrantz egitera.

Ozta amuaz zuen
ur gaina ikutu,
arrai txiki pollit bat
zuen harrapatu.
Bazebilen zintzilik
saltoka amutik,
baina ez zan inolaz
iges egiterik.

Etsi zuen orduan
txit amorraitxoak.²⁸⁰
Esaten omen zuen
amutik gaixoak:

—Zertako nazu zuk ni
txiki txar gaztea?
Nola nahi dezu zure
tripa betetzea?
Urte biko ibaian
utzitzen banazu,
handi eta gizena
atzemango nazu.

Orain, berdin egia
garbi esateko,
ez naiz hagin tarte bat
zuri betetzeko.

Amorraitxoak zuen
ustez arrazoa,
gero izango zuen
hobea sasoa,
baina arrantzaleak,
eskuan harturik,
erantzun omen zion:
—Aurrekoetatik
txit errepain²⁸¹ eder bat
ikasi nian nik.
On dek hik aditzea

²⁸⁰ *amorrai(txoak)*: amuarraina.

²⁸¹ *errepain*: erretraua, esaera zaharra.

gaur nere ahotik:
hobea dek eskuan
seguru txoria,
ez airian dabilen
hegazti handia.

Hoakit paderara,²⁸²
hoakit ixilik,
esperantzak ez ohi dik
betetzen triparik.
Perejil, tipulakin
olio tartean
igari²⁸³ egingo dek
frijitu artean.

Arrantzalearentzat
ez da zer esanik,
zeren gizonarentzat
jaunak hala nahirik,
dirade abereak
txiki ta handiak,
baita ere arraiak
eta hegaztiak.

Bestela izango zan
txit kupigarria²⁸⁴
hemen ikusten degun
amorrai txikia.
Gaizki dirudiena
da arrantzalea
gaixoaz far eginaz
hala egotea.

Lehoia zaharrez hiltzen

Lehoi guztiz handi bat
ez hil bai hilean²⁸⁵
luze-luze etzinik
zegoan lurean.
Urteen zamak zeukan
ezin higiturik,²⁸⁶
bada ez zan arkitzen
hargan beste minik.

²⁸² *padera(ra)*: zartagina.

²⁸³ *igari*: igeri.

²⁸⁴ *kupigarria*: errukarria.

²⁸⁵ *ez hil bai hilean*: hilzorian.

²⁸⁶ *higiturik*: mugiturik.

Orruaz mendiz mendi
zanean lehen bizi,
abereak zebiltzan
harganik igesi.
Bat bakarrika²⁸⁷ ez zan
guztien artean
itxorongo²⁸⁸ zionik
inolaz bidean.

Orain ikusirika²⁸⁹
etzinik lurean,
esan daran²⁹⁰ bezala,
ez hil bai hilean,
han dijoaz lasterka
txiki ta handiak,
eta ito nahi dute
gaixoa guztiak.

Zitalen kontua da,
gaixoa danari
egin nahi izatea
farra eta irri.
Gizon prestuak ez du
honela pentsatzen,
gaixoenari dio
gehiena laguntzen.

Honetan nahi dutenak
hartu lezioa
irakurri bezate
Ebanjelioa.

Artzaia eta ardiak

—Atozte honontz, laster
atozte, anaiak—
deadar egiten du
Perutxo artzaiak.
—Otso handi bat dator
mendi hoiek behera,
zuzen-zuzen honera,
ardiak jatera.

Badijoaz anaiak,
bi txispa²⁹¹ harturik
beldurrez geldi dedin
ardi gabetanik.

Ailegatzen dirade
lehertzeko zorian,
eta ez da ageri
otsorik mendian.
Bihurturik²⁹² badaude
soseguz etxean
orobat gertatzen da
biharamonean.

Bigarren txalmak²⁹³ dauzka
txit ereztaturik,²⁹⁴
hurrengoan ez dute
egiten kasorik.

Orduan egiazki
otsua jatsi zan
menditik artaldera,
eta han hasi zan
ardirik galantenak
hiltzen eta jaten,
eta, lastima zana,
artaldea galtzen.

Gezurra esan zuen
bi bider artzaiak,
eta ez zioten nahi
sinistu anaiak.

Gezurriak egia
baldin badu esaten,
gezurria dalako
ez zaio sinisten.
Honela egiten du
beretzat kaltea,
on da beti egia
non-nahi esatea.

²⁸⁷ *bakarrika*: bakarrikan, bakarrik.

²⁸⁸ *itxorongo*: itxarongo.

²⁸⁹ *ikusirika*: ikusirikan, ikusirik.

²⁹⁰ *daran*: dedan, dudan.

²⁹¹ *txispa*: zizpa, antzinako fusil mota; esku-peta.

²⁹² *Bihurturik*: itzulirik, itzultzean.

²⁹³ *txalma(k)*: ezustekoa, sustoa.

²⁹⁴ *ereztaturik*: haserreturik.

Otsoa eta zigoina

Jakina da zigoina²⁹⁵
dala hegaztia,
lepaluze, moko mehe,
handi, beltz-zuria.

Otso bat zegoan behin
arkume bat jaten
eta hezur bat zaio
eztarrian sartzen.
Itotzera zijoan,
ezin aterarik,
ez zeukan inondika²⁹⁶
erremediorik.

Zigoina bat gainetik
zan hegan pasatzen,
otsoa intziriaz²⁹⁷
hasten zaio deitzen.
Ikusten du zigoinak
ahoa zabalik,
inolaz ere ezin
asnasa²⁹⁸ harturik.

Jaitsitzen²⁹⁹ zaio eta
utzirik beldurra,
atera bide zion
mokoaz hezurra.

Zigoina pozez dago
beterik guztia,
itxoroten³⁰⁰ otsoak
zor dion saria
atera zuelako
estutasunetik,
bada geldituko zan
bestela itorik.

Ikustean zigoinak
zerbait zuela nahi,
otsoak esan zion
adi zazu, anai:

²⁹⁵ *zigoina*: zikoina.

²⁹⁶ *inondika*: inondikan, inondik.

²⁹⁷ *intziri(az)*: intziria, minaren kexua.

²⁹⁸ *asnasa*: arnasa.

²⁹⁹ *Jaitsitzen*: jaisten.

³⁰⁰ *itxoroten*: itxoroten.

—Bazoazke³⁰¹ hemendik
pozez kontatzera,
osorika³⁰² lepoa
dezula atera
gaur goizean, maitea,
zuk nere ahotik,
eztarrian moko
sartu ezkerotzik.

Ez dauka zori on hau
nahi duen guztiak,
bakarrik eman dizu
nere eztarriak.
Errepainak³⁰³ ohi dio
egin ezazu on
eta egin ezazu
ez dakizula non.

Otso gaiztoa beti
gure iges dabil,
beldurrez ez dezagun
atzeman eta hil.
Eta zigoina, berriz,
bizi da gurekin,
zeren ez dizaioke
inork gaitzik egin.

Txoarrea eta erbia

Arrano batek zuen
erbi bat atzeman,
eta zeukan itotzen
bi atzaparretan.

Txoarre³⁰⁴ batek, ustez,
toki segurutik,
oju egiten dio:
—Esaten ez dek hik
ez dala lur gainean
arkitzen mutilik,
lasterka hi hainbat
joan ditekeenik?

³⁰¹ *Bazoazke*: joan zaitezke.

³⁰² *osorika*: osorikan, osorik.

³⁰³ *Errepain(ak)*: errefraua, esaera zaharra.

³⁰⁴ *txoarre*: txolarrea.

Orain zertan hago hor,
erbitxo, geldi
horren mutil arina
haizen ezkeroz hi?

Honela hitz egiten
dion bitartean
gabirot³⁰⁵ bat gainera
dator bat-batean.
Hartzen du txoarrea,
haren atzaparrak
kentzen diozka³⁰⁶ bere
burla eta farrak.

Inork mundu honetan
ez dezake esan,
ur honetatika³⁰⁷ nik
ez det behar edan.
Usterik gutxiena
guk degun orduan
arkitu ohi gerade
besteen lekuan.

Hargatika³⁰⁸ behin ere
zori gaiztokoaz
ez degu egon behar
farraz eta burlaz.

Iturriko orina

Nekez, baino arkitu
zuen iturria
orin³⁰⁹ batek hil nahirik
zeukan egarria.
Edan zuen orduan
gaixoa zan ari
urean begiratzen
bere buruari.

Ez da zer farrak egin,
irakurtzaileak,
bazerate benturaz³¹⁰

³⁰⁵ *gabirot*: gabiraia, hegazti harraparia.

³⁰⁶ *diozka*: dizkio.

³⁰⁷ *honetatika*: honetatikan, honetatik.

³⁰⁸ *hargatika*: hargatikan, hargatik.

³⁰⁹ *orin*: oreina.

³¹⁰ *benturaz*: menturaz, beharbada.

neskatxa gazteak.
Jakin behar dezute
gaur dan egunetik
ez duela orinak
beste ispilurik.

Gutziz ederra dala
zaio iduritzen,
batez ere adarrak
dute txit txoratzen.
Baina ditu arkitzen
haren mesedeak³¹¹
txit itsusiak bere
zanko³¹² luze-meheak.

—Zanko laburragoak
baldin banituke,
nere parerik —zion—
inon nik ez nuke.
Ah! Eman bazizkiran
gure Jaungoikoak
egokixiakoak
nere bi zankoak!

Honela dagoala
marmar iturrian,
zangak³¹³ aditzen ditu
ez txit urrutian.

Laisterka hasitzen da
mendira igotzen,
zakurrak ondotika³¹⁴
diote jarraitzen.

Iges egin duela
uste duenean,
gelditzen da batetan,³¹⁵
otadi³¹⁶ batean,
lotu ziozkalako³¹⁷
bere bi adarrak
otetika otera
han zegoan larrak.

³¹¹ *haren mesede(ak)*: errespetuzko trataera.

³¹² *zanko*: zangoa.

³¹³ *Zanga(k)*: zaunka.

³¹⁴ *Ondotika*: ondotikan, ondotik.

³¹⁵ *batetan*: bat-batean.

³¹⁶ *otadi*: otea hazten den lekua.

³¹⁷ *ziozkalako*: zizkiolako.

Zakurrak gaineratzen
zaizka³¹⁸ gaixoari,
hil eta bertan uzten
die nagusiari.

Horra adar ederrak,
zanko itsusiak,
hoiek txit onak eta
haiek galgarriak.³¹⁹
Txoroak engainatzen
ohi ditu itxurak,
ez, ordea, behin ere
zentzua dutenak.

Sugea eta lima

Hozka ari zitzaion
sugea limari.

Limak esaten zion:
—Alferrik haiz ari.
Ez dik ezer balio
hire ahaleginak:
kamustuko dizkiat
hortz eta haginak.

Kasorik egin gabe
ari zaio zinez.
—Ez hat³²⁰ —dio— utziko
hortzetako minez.
Berandu baina noizbait
duke ezagutzen³²¹
hortzak dijoazela
guztiak kamusten.

Uzten dio limari
txit damuz, esanik:
—Askoz indar gehiago
nik baino daukak hik.
Erokeri handia
ohi dek nerekiko
akuiloa jotzea
bortizki ostiko.

Adiskide bi eta hartza

Adiskide handi bi
dijoaz bidean,
elkarrekin hizketan
umore onean.

Hartz handi bat zaiote
basotik irteten.
Ikaraz³²² arbolara
bata da igotzen,
bestea gelditzen da
gaixoa bakarrik,
hartz handiari ezin
arpegi emanik.

Zer egin honelako
estutasunean?
Hila balitz bezala
jartzen da lurrean.
Nola hartzak ez duen
gorputz hilik jaten,
usai egin ondoren
da aurrera joaten.

Berehala jaitsitzen³²³
da arbolakoa,
eta lagunagana
lasterka han dijoa.

—Adiskidea, —dio—
txit det nik atsegin
zu hemen arkitzea
osasunarekin.
Zer ikarak ditudan
zugatik eraman
beldurrez zu noiz hartzak
behar zinduen jan!

Ixilik belarrira
dizu hark hitz egin,
zer esan ote dizun
nahi nuke nik jakin.

³¹⁸ *zaizka*: zaizkio.

³¹⁹ *galgarriak*: galbidera daramatenak.

³²⁰ *hat*: haut.

³²¹ *duke ezagutzen*: ezagutzen, konturatzen
dela dirudi.

³²² *ikaraz*: jatorrizkoan *icarac* dator eta *ikarak*
eman zuten 1967ko argitalpenean; halere, hutsa
bide da eta horregatik eman dut *ikaraz*.

³²³ *jaitsitzen*: jaisten.

Hara zer esan diran³²⁴
hartzak belarrira:
“Munduan adiskide
mota asko dira;
ez dezu hartu behar,
jakizu³²⁵ gaurdanik,
zure adiskidetzat
gizon beldurtirik.

Arkumea eta otsoa

Bildots³²⁶ gizen-gizen bat
dago artegian,³²⁷
bee egiten duela
amaren antsian.
Belar izpi bat ez zan
haren tripan sartzen,
hiru ardik esnea
zioten ematen.

Begira dagoala
ate zirritutik,³²⁸
agertzen zaio norbait
kanpoko aldetik.
Artaia zala uste
zuen lehenbizian,
gero ikusi zuen
otsoa sasia.

Hasten zaio ojuka
barrendik esaten:
—Jakin behazu³²⁹ preso
naukatela hemen.
Hau honela ez balitz,
hemendik irtenik
ez nezake nik utzi
otsoaren antzik.³³⁰

³²⁴ *diran*: didan.

³²⁵ *jakizu*: jakin ezazu; *jakin* aditzaren forma trinkoa.

³²⁶ *Bildots*: urtebete inguruko arkumea.

³²⁷ *artegi(an)*: arditegia.

³²⁸ *zirritu(tik)*: zirrikitua.

³²⁹ *behazu*: behar duzu.

³³⁰ *antz(ik)*: arrastoa.

Otsoak hizkuntza hau
aditzearekin,
dio: —Ez det protxurik³³¹
izango honekin.
Seguru dagoela
hau da seinalea.
Nitzaz barrendik farraz
burla egitea
izaten ohi da gizon
txit ikarakoia,³³²
toki segurutika
gutziz fanfarroia.

Urdaila eta beste gorputzaren parteak

Aho eta begiak,
oin eta eskuak
urdailarekin zeuden
txit hasarretuak.

Begiak esan zuten:
—Gu gau eta egun
hor gabiltza jana non
ikusiko degun.
Ahoak zion, berriz:
—Nere hortz-haginak
kamusturik daukatzi³³³
lan asko eginak.

Oinak esaten zuten:
—Nahiz ez izan gura,³³⁴
joan behar degu beti
jana dan lekura.
Azkenean eskuak
zeuzkan nekatuak
beti-betiko ezin
jan ahala bilduak.

Guztiak keja ziran
urdaila bakarrik
zegoala lanika³³⁵
egin gabetanik.

³³¹ *protxu(rik)*: probetxua, etekina.

³³² *ikarakoia*: ikaratia, erraz ikaratzen dena.

³³³ *daukatzi*: dauzka.

³³⁴ *gura*: gogoa, desioa.

³³⁵ *lanika*: lanikan, lanik.

Egiten dute junta
edo batzarrea,
zeina izan omen zan
guztiz hasarrea,
eta bukatzen dute
esatearekin,
“ez degu guk gehiago
behar lanik egin,
batak jan, besteak lan
da erakeria.³³⁶
Urdailak ohi darama
gure lan guztia”.

Esan zuten bezala
badaude geldirik
bi egunean lanik
egin gabetanik.
Hasten zaie orduan
Ahitutzen³³⁷ indarra,
urdailak barrendika³³⁸
egiten du farra.
—Zer da hau? —esaten dute—
zer zaigu pasatzen?
Indarra pixka bana
ari zaigu juaten.

Orduantxe esaten
diote³³⁹ urdailak:
—Lehengo antzik ez ditek
gaur gure masailak.
Nola nahi zute³⁴⁰ izan
ni gabe indarrik,
zuek bildutakoa
urtutzen badet nik?

Ez dezute ikusten
hortz eta haginak
errotarri gisara
daudela eginak?
Hoiek txehetzen dutena
nik derala³⁴¹ urtzen,

³³⁶ *erakeria*: erokeria.

³³⁷ *Ahitutzen*: ahitzen, agortzen, bukatzen.

³³⁸ *barrendika*: barrendikan, barrendik.

³³⁹ *esaten diote*: esaten die.

³⁴⁰ *zute*: duzue.

³⁴¹ *derala*: dedala, dudala.

eta gero guztiok
gerala mantentzen?

Ez badet nik urtutzen
egun oro jana,
zuen neke guztia
dala alfer lana?
Horra nola egun bi
ozta igarorik,
zaudezten³⁴² indar gabe,
eta erdi hilik.

Arrazoi hau aditu
eta ondorean
guztiak sartu ziran
berriz batzarrean.
Deitzen dute urdaila,
dijoa lasterka,
hartzen dute erdian
emanaz besarka
eta esanaz: —Orain,
diagu aitortu,
hi bezin mutil latzik³⁴³
ez dek inon sortu.

Nork esan zezakean
ezkutuko lana
zala gorputzarentzat
beharrena zana!
Munduan gutxiena
uste dan pertsonak
egiten ohi dituzte
lanik beharrenak.

Eta ikus dezazun
dala hau egia,
irakurri ezazu
hurrengo ipuia.

Jakintsuna eta nekazaria

Nekazari batek du
gizon bat ikusten,
liburua eskuan

³⁴² *zaudezten*: zaudeten.

³⁴³ *latz(ik)*: kementsua, indartsua.

eta paseatzen.

Biak elkarri zaizka³⁴⁴
hasitzen hizketan,
lehena nekazaria,
manera honetan:

—Ongi ona da, jauna,
berorren³⁴⁵ bizia!
Hobe du ez dan jaio,³⁴⁶
ah!, nekazaria!
Guk egin behar degu
urte guztian lan,
berok³⁴⁷ bizi ditezten
pasea eta jan.

Munduko gauzak dira
ongi desberdinak,
izan arren guztiak
Jainkoak eginak.
Zertarako dirade
beron liburuak,
ez bada nahastutzeko
alferren buruak.

Kendu behar liteke
txit alferkeria,
orduan genduke guk
lanaren erdia,
geroztika³⁴⁸ ginake
askozaz hobeki,
ez lirake izango
berok ere gaizki.

—Adiskidea, dezu
ederki hitz egin—
erantzun zion—, baina
behar dezu jakin
ez daudela munduan
gauzak hain desberdin,
eta bazekiela
Jainkoak zer egin.

³⁴⁴ *zaizka*: zaizkio.

³⁴⁵ *berorren*: errespetuzko trataera.

³⁴⁶ *Hobe du ez dan jaio*: eskerrak ez den jaio.

³⁴⁷ *berok*: errespetuzko trataera.

³⁴⁸ *geroztika*: geroztikan, geroztik.

Buruak egiten du
lanika³⁴⁹ gehiena,
iduririk nekatzen
dala gutxiena.

Eta esana dago
baldin bada abila,
buru batek balio
dituela mila.

Esan zarazu³⁵⁰ niri
zuk, nekazaria:
nork erakutsi zuen
ereiten garia?
Nork elorri txurian
sagarra txertatzen?³⁵¹
Nork sagar tolareak³⁵²
zur-oholez egiten?
Nork sortuak dirade
aitzurra, goldea,
laiak eta bostortza
eta besabea?³⁵³

Zu ohean zurrungaz
zaudenean lotan,
norbaitek bere gelan,
asko gaberditan,
lau bider nahastu ohi du
gogotik burua,
eskuetan harturik
bere liburua.

Asmatzen badu zerbait,
gertatu ohi dana
gizonak egin dezan
errazago lana,
gehiago egiten du
buruz gizon honek,
ezen ez eskuakin
ehun mila gizonek.

³⁴⁹ *lanika*: lanikan, lanik.

³⁵⁰ *zarazu*: iezadazu.

³⁵¹ *txertatzen*: zuhaitzaren enborrean edo adar batean beste landare baten adarra itsatsi, fruituak emateko.

³⁵² *tolare(ak)*: dolarea; mahatsa, sagarrak edo bestelako frutak zanpatu eta zukua ateratzeko tresna.

³⁵³ Aitzurra, goldea, laia, bostortza eta besabea lurra lantzeko eta harrotzeko lanabesak.

Begira irakiten
dagoan paziak³⁵⁴
zein aisa eramaten
dituen ontziak,
nahiz izan bere kontra
haize mot³⁵⁵ guztiak
eta marea handi
edo ur biziak.

Pazia bat urekin
ikus zazu nola
dabilen han errota,
hemen berriz ola.
Ezin egin duena
gure ahaleginak,
egiten du pertzako
uraren lurrinak.

Lurrinaren indarra
ezagututzea
izan da buru baten
abilidatea.
Hargatik esaten da
buru batek mila
balio dituela
baldin bada abila.

Jakin behar da, bada,
da indartsuena,
ez gorputz bortizkoa,
bai jakintsuena.
Txispa³⁵⁶ batekin hamar
urteko gaztea
hain da bortitza gaur, non
gizon goiantea.³⁵⁷

Gehiena dakitenak,
gaurko egunean,
idukitzen ohi dute
mundua menean.³⁵⁸

³⁵⁴ *pazia(k)*: pertza, ura berotzeko edo zerbait egosteko erabiltzen den ontzia.

³⁵⁵ *mot*: mota. Agian silaba kopurua egokitzeko kendu du azken *-a* hori.

³⁵⁶ *Txispa*: kasu honetan *txispa* eskopeta edo zizpa izan daiteke, antzinako fusil mota.

³⁵⁷ *goiantea*: erraldoia.

³⁵⁸ *menean*: menpean.

Txangurruak

Hitz egin omen zuten
bazarre batean
txangurruak³⁵⁹ atzerontz³⁶⁰
joateko gainean,
ikusirik txit zala
modu itsusia
eta, dudarik gabe,
txit lotsagarria.

—Nork bere umeari—
esan omen zuten
—erakutsi behaio³⁶¹
aurrerontz³⁶² ibiltzen,
ohitura hau emanaz
jaiotzen danetik
utzi gabe ematen
atzerontz pausorik.

Biharamon goizetik
omen dira hasten
umetxoak aurrerontz
erabiliarazten,
atzaparrak biguinak
dituzten artean
aurrerontz eraginaz
atzerontz ordean.

Ari dira honela
zinez gurasoak
egun oro zuzentzen
umeen pausoak.
Alferrika³⁶³ egiten
dute ahalegina,
ezin garaitu dute
semetxoen grina.

Atzerontz ikustean
beren gurasoak
umeak daramatzi³⁶⁴
hoien ejenploak.

³⁵⁹ *txangurru(ak)*: karramarro handi mota bat.

³⁶⁰ *atzerontz*: atzerantz.

³⁶¹ *behaio*: behar dio.

³⁶² *aurrerontz*: aurrerantz.

³⁶³ *Alferrika*: alferrikan, alferrik.

³⁶⁴ *daramatzi*: daramatza.

Hargatik txangurruak
gaur ere dabilta,
beti atzerontz pauso,
sokagile gisa,
esaten digutela:
“Emak ejenploa,
nahi badek segitzea
hire lezioa”.

Aita bere semeakin

Nekazari zahar bat nik
ezagutu nuen
zeinak bere etxean
lau seme zituen.
Lauak hain langileak,
hain mutil azkarrak³⁶⁵
non beste halakoak
ohi dira bakarrak.
Falta bakar bat zuten
bainan hau handia
eta zan lauak elkar
ezin ikusia.³⁶⁶

Etxean iskanbila
ikusirik, aita
txit triste egoten zan
haiek hala nahita.
Jainkoak lagundurik
egun on batean
pentsamendu bat zaio
ertortzen ohean.

Beregana deiturik
esaten diote:
—Nere seme maiteak,
adi nazazute:
ebaki behazute³⁶⁷
makila mehe bana,
eta gero etorri
lauak neregana.

³⁶⁵ *azkar(rak)*: indartsua.

³⁶⁶ *elkar ezin ikusia*: ezin elkar ikusi, gorroto izan.

³⁶⁷ *behazute*: behar duzue.

Obeditu zioten
bere lau semeak,
baita ere eraman
beren makil meheak.
Orduan esan zion
seme bakoitzari:
—Puskatu behar dirak³⁶⁸
makil hori niri.

Laister zuen bakoitzak
berea puskatu,
lan honek ez zituen
txit asko nekatu.
—Horra, —esaten die—
horra zein errazki
bakoitzak egin duen
makila bi erdi.

Orain beste lau makil
behar dira lotu,
eta behaituzute³⁶⁹
loturik puskatu.

Egiten dute sorta
beren makilakin,
ezin puskatu dute
lauen indarrakin.
Ari dirade lehertzen
gaixoak alferrik,
ez da puskatutzeko
lauetan indarrik.

Orduan zien aitak
semeai esan:
—Horra nere semeak
elkartea zer dan:
izaten bazerate
elkarrekin etsai,
zuek garaitutzeko³⁷⁰
askoko³⁷¹ da nornahi,
baina makilen gisa
elkarturik ongi,

³⁶⁸ *dirak*: didak.

³⁶⁹ *behaituzute*: behar dituzue.

³⁷⁰ *garaitutzeko*: garaitzeko, irabazteko.

³⁷¹ *askoko*: aski izango.

ez dituk gai izango
zuentzat hamabi.

Anton etxe-galgarria

Ustez beti jardungo³⁷²
zuela lanean,
ofizio batean
ez bazan bestean,
hartu zituen Anton
etxe-galgarriak³⁷³
ofizio mot³⁷⁴ asko,
ez bazan guztiak.

Arotzaz gainera zan
errementaria,
hargina, kapagina³⁷⁵
eta dendaria.
Gero, berriz, gainera
zan zapataria.
Hitz batean Anton zan
behar zan guztia.

Ezin esan diteke
zeukan fantesia,³⁷⁶
ez ere herrikoak
zien enbidia.
Bere auzoan zuen
gizon bat argia,
izengoiti emaile
guztizko handia.

Honek esaten zuen
karrikan, ferian,
lagunakin arkitzen
zan toki guztian:

—Apostura egingo³⁷⁷
diot edozeini,

³⁷² *jardungo*: arituko.

³⁷³ *etxe-galgarri(ak)*: etxekaltea, etxera galbi-
dea dakarrena.

³⁷⁴ *mot*: mota. Agian silaba kopurua egoki-
tzeko kendu du azken *-a* hori.

³⁷⁵ *kapagina*: lihoa, artilea... kardatzen di-
tuen langilea.

³⁷⁶ *fantesia*: fantasia.

³⁷⁷ *Apostura egin*: apustu egin.

eta hala nahi badu
Antoni berari,
asmatzen derala³⁷⁸ nik
zer zaion gertatzen
lau urteren barrenen,
ez bada lehen hiltzen.

Ez du jatekorika³⁷⁹
izango etxean,
ez ere jakirika³⁸⁰
sartzeko eltzean.
Ofizio bat ongi
behar da ikasi,
ez mila ofizio,
eta milak gaizki.

Oraindika³⁸¹ lau urte
ez ziran pasatu,
honek esan zuena
bera zan gertatu.

Antonek ezer ongi
ez zuen egiten,
eta hasi zitzaion
jendea atzeratzen
halako moduan, non
ez zuen inondik
hilabete osoan
egun biko lanik.

Auzokoak esaten
zuen orduantxe:
—Sarri³⁸² hasiko zaigu
Anton etxez etxe.
Hargatika³⁸³ behin ere
ez da behar ahaztu,
bi ofizio inor
ez du aberastu.
Eta bitatik gora
dituzten guztiak
izan ohi dira beti
etxe-galgarriak.

³⁷⁸ *derala*: dedala, dudala.

³⁷⁹ *jatekorika*: jatekorikan, jatekorik.

³⁸⁰ *jakirika*: jakirikan, jakirik.

³⁸¹ *Oraindika*: oraindikan, oraindik.

³⁸² *Sarri*: berehala.

³⁸³ *Hargatika*: hargatikan, hargatik.

Arratoi eta saguen batzarrea

Zapiron hil ezkeroz
 sagu eta arratoiak
 milaka sortu eta
 zeuden guztiz joiak³⁸⁴
 zeren beste katuen
 beldurrika³⁸⁵ gabe
 ziraden beren etxe
 guztiaren jabe.

Baina ilobatxo³⁸⁶ bat,
 txit mutil sendoa,
 Zapironek bazuen
 bere antzekoa.
 Denborak egin zuen
 guztiz ehiztaria,
 egun oro bazuen
 lanaren saria.

Ernaia³⁸⁷ zan, bortitza,
 gainera katarra,³⁸⁸
 bere aitona bezin
 mutiko azkarra.³⁸⁹
 Goizean, arratsean,
 ordu guztietan,
 usaika han zebilen
 beti zokoetan.

Ez zuten arratoiak
 besteaz beldurrik,
 ikaratzen zituen
 honetxek bakarrik,
 zeren estu-estuan
 arkitzen baziran,
 beste edozeinekin
 burrukatzen ziran.

Eta omen zituzten,
 hala det aditu,
 behin baino gehiagotan
 zenbait elbarritu.

³⁸⁴ *joi(ak)*: joria, lodia.

³⁸⁵ *beldurrika*: beldurrikan, beldurrik.

³⁸⁶ *ilobatxo*: biloba, gero Zapiron aitona dela
 esaten baitu.

³⁸⁷ *Ernaia*: ernea, atzarria.

³⁸⁸ *katarra*: katu arra.

³⁸⁹ *azkarra*: indartsua.

—Katar deaurru hori
 baldin hiltzen balitz—,
 esaten zuten, —ongi
 ginduzkek gu anitz.³⁹⁰
 Ikusia zeagok³⁹¹
 segurki bestela
 ezin biziko gaituk
 luzaro honela.

Atera nahi badegu
 jatera zulotik,
 han diagu gainean
 hortzak agerturik.
 Ez bagerade, berriz,
 irteten lehenbailehen,
 sarri³⁹² hasiko gaituk
 elkar jaten hemen.

Hoiene artean zan bat
 biziro³⁹³ handia,
 bizar luzea eta
 txit ile zuria.
 Urte asko zituen,
 zan asko jakina,
 mairan³⁹⁴ jan izan zuen
 lau bider irina.

Honek esaten die:
 —Baziakiat³⁹⁵ nik
 nola gindezkean gu
 atera hemendik,
 baita ere bihurtu,³⁹⁶
 zeinta³⁹⁷ dan azkarra,
 egiten diogula
 burla eta farra.

Behin baino gehiagotan
 ikusi dedanaz,

³⁹⁰ *ongi ginduzkek gu anitz*: ondo asko geun-
 deke gu.

³⁹¹ *zeagok*: zagok.

³⁹² *sarri*: berehala.

³⁹³ *biziro*: biziki, oso.

³⁹⁴ *maira(n)*: orea egiteko erabiltzen den aska
 modukoa.

³⁹⁵ *baziakiat*: bazekiat.

³⁹⁶ *bihurtu*: itzuli.

³⁹⁷ *zeinta*: zeren eta.

lo egiten dik beti
katarrak egunaz.
Lepoan kaskabel bat
ifintzearekin,
iges egiten erraz
dek soinuarekin.

Lokarriaz lotutzen
ez dek gaitz lepoa,
zergatik nere ustez
pisua dik loa.
Guztai zitzairen
ongi iruditu,
baina inork ere ez zuen
beretzat aditu.

Batak esaten zuen
“Ni nago gogorra”,
besteak “ni itsua”,
besteak “ni gorra”.
Edozeinek ematen
ohi du kontsejua,
baina nork egiten du?
Hor dago kontua.

Atsoa eta arkakosoa

Gure goiko bizitzan³⁹⁸
bizi zan atsoa
zan elizarakoa,³⁹⁹
zan Jaungoikozkoa.
Beti mar-mar zegoan
etxean, elizan
beti paternosterrak
esaten ari zan.

Ez zituen utzitzen,⁴⁰⁰
zer nahi gerta zedin,
nahiz katarroa izan,
nahiz sabelean min,
egun oroko meza,
errosarioa,

³⁹⁸ *bizitza*: solairua.

³⁹⁹ *elizarakoa*: elizkoia.

⁴⁰⁰ *utzitzen*: uzten.

eta bezperondoren⁴⁰¹
zan kalbarioa.

Baina zuen gaixoak
eraman⁴⁰² txikia,
edozein gauzak zuen
estutzen guztia.
Egun batez ari zan
errabiz atsoa
ezin harrapaturik
gonan kukusoa.⁴⁰³

—Zital horrek ez dirak⁴⁰⁴—,
zegoan esaten
—ohean ez kanpoan
pakerik ematen.

Ez diat igarotzen
behin ere egunik
Jaungoikoari otoitz
egin gabetanik,
hire hortzetatika⁴⁰⁵
utzi nazan, arren,⁴⁰⁶
hala edo honela,
ni libre lehenbailehen.

Hitz hoiek aditzean
nengoan pentsatzen
zer gauzak Jainkoari
zaiozkan⁴⁰⁷ eskatzen.

Sentitzen det honetan
negar-intziria.⁴⁰⁸
Lasterka noa gora.
Odolez bustia
topatzen det atsoa
etzinik lurean,

⁴⁰¹ *bezperondoren*: bezperen ondoren, iluna-barreko otoitzen ondoren.

⁴⁰² *eraman*: kasu honetan izena da eta ‘pazientzia’ da adiera: *eraman txikia izan, pazientzia gutxi eduki*.

⁴⁰³ *kukusoa*: arkakusoa, ardia.

⁴⁰⁴ *dirak*: didak.

⁴⁰⁵ *hortzetatika*: hortzetatikan, hortzetatik.

⁴⁰⁶ *arren*: mesedez.

⁴⁰⁷ *zaiozkan*: zaizkion.

⁴⁰⁸ *negar-intziria*: negarrezko intziria, oinazea edo atsekabea adierazteko hotsa.

alkitik⁴⁰⁹ eroria
sukalbazterean.

Salto egin ondoren
gonatika⁴¹⁰ gora,
arkakoso gaiztoa
igo zan lepora.

Atzera egin nahirik
iges egiteko,
eta gero lurrian
oinakin hiltzeko,
erori ta jo zuan
erruz⁴¹¹ suburnia⁴¹²
eta idiki⁴¹³ zion
buruan zauria.

Orduko haren oju
eta deadarrak!
Gainera hark egiten
zituen negarrak!
Ordu bi gutxienaz
egon zan honela,
zirudien larrua
kentzen ziotela.

Negarrak utzi eta
hasen da atsoa
arra eta demoka,⁴¹⁴
zeren kukusoa
igesi joan zitzaion,
eta arratsean
beldur zan izan zezan
berekin ohean.

Hau da gertatzen dana
kristau askorekin
ezin duten orduan
nahi dutena egin.

⁴⁰⁹ *alki(tik)*: aulkia.

⁴¹⁰ *gonatika*: gonatikan, gonatik.

⁴¹¹ *erruz*: indar handiz.

⁴¹² *suburnia*: suburdina, egurrari eusteko
beheko suan jartzen den burdinazko euskarria.

⁴¹³ *idiki*: ireki.

⁴¹⁴ *arra eta demoka*: madarikatzen.

Baina engainatutzen
dirade gaixoak,
gizonak, agureak,
andreak, atsoak,
baldin uste badute
gure Jaungoikoak
entzungo dituela
haien errezoak,
igesi bidaltzeko
udan kukusoak,
ez badira garbitzen
etxeko zokoak.

Gure otoitzak dira
gauza txit ederrak;
ez, ordea, bagera
otoizle alferrak.

Errezoak egiten
diran bitartean,
jardun⁴¹⁵ behar du beti
bakoitzak lanean.
Ez badegu ereiten
soroan hazia
ez zaigu etorriko
zerutik garia.
Eta badaukatzigu⁴¹⁶
zikinak zokoak
ez zaizkigu faltako
tximitz⁴¹⁷-kukusoak.

Astoa eta igelak

Asto bat zijoan behin
egur zamarekin,
pentsamentu ilunak
eginaz berekin.
Bide luzea zeukan,
pisua zan zama,
hogei urte baziran
hil zala haren ama.
Gainera zeukan guztiz

⁴¹⁵ *jardun*: aritu.

⁴¹⁶ *badaukatzigu*: badauzkagu.

⁴¹⁷ *tximitz*: zimitza, gizakiaren odola xurgatzen duen intsektua.

handia gosea,
ez zan milagro triste
gaixoa joatea.

Zingiradi⁴¹⁸ batean
horra non dan sartzen
eta arrantz eginaz
hasten dan esaten:
—Madarikatua, bai,
madarikatua,
Jainkoak niri eman
diraden patua.

Hau entzutean hango
igel kantariak
itxi omen zituzten
beren belarriak,
ez aditzeagatik
haren deadarrak,
zeren bestela lehertu
nahi zituen farrak.

Batek esaten dio
saihetsera joanik:
—Ez dago hemen, jauna,
erremediorik,
hona gu ere nola
geran hemen bizi.
Jaio ginan ezkeroz
ez degu ikusi
beste gauzarik baizik
lohia eta ura,
ez izanagatika⁴¹⁹
guztiz hoién gura.⁴²⁰

Honelaxe Jainkoak
dauka agindua,
ez balitz bezela da
guretzat mundua.
Eta jakin behar du
bere mesedeak⁴²¹
milaka, diotenez,
dira abereak

bizitzen diradenak
lurpean sarturik,
ikusten ez dutela
sekulan argirik.

Haiek beti kontentu
omen dira hala,
ez degu izan behar
guk ere honela?
Bai, guk beti daukagu
umore alaia,
ezin egingo degu
berdin gure nahia
konparatuaz haien
suertearekin,
kontentu izango da
nor berearekin.

Hau da gertatzen dana
munduko gaitzakin,
baldin neurtzen badira
handiagoakin.
Zu hemen zaude orain
zingiran⁴²² sarturik,
eta ateratzeko
ez dezu kemenik.

Birauka hasitzen da,
baina, —Txito-txito,
—igelak deitzen dio—
begirozu⁴²³ ito!
Gaur zure ezbarra
guztiz da handia,
baina ez da oraindik
galdua guztia.

On da jakin dezazun
da pazientzia
gaitz handia egiten
duena txikia.
Norbait etorriko da
hortik edo handik
lagunduko dizuna
irteten hemendik.

⁴¹⁸ *zingiradi*: zingira multzoa.

⁴¹⁹ *izanagatika*: izanagatikan, izanagatik.

⁴²⁰ *gura*: gogoia, desioa.

⁴²¹ *bere mesede(ak)*: errespetuzko trataera.

⁴²² *zingira(n)*: istinga, aintzira lohitsuia.

⁴²³ *begirozu*: “kontuz!” esateko modua.

Hau aditu ondoren,
haren mesedea⁴²⁴
hasi zan pixka bana
hartzen asnasea.⁴²⁵
Egon zan geldi-geldi
denbora luzean,
gaineko zamak zeukan
uraren gainean.
Indarrak zitzaizkion
pixkaka etorri,
eta irteteko gai
horra non zan jarri.

Zingiratik kanpora
atera zanean,
astoak esan zuen
bere barrenean:
“Nik hemen ikusten det
gaur nere burua,
aditu deralako⁴²⁶
igel kontsejua,
bestela jira-bira
arras nekatu-rik,
zingiran geldituko
nintzan ni itorik.

Ez det nik, ez, ahaztuko:
da pazientzia
gaitz handia egiten
duena txikia.
Eta mundu honetan
nahi duenak bizi,
zer nahi gerta dakion
ez du behar etsi.

Astoa eta txakurra

Asto bat zamatua
alportx⁴²⁷ handiak

⁴²⁴ *haren mesedea*: errespetuzko trataera.

⁴²⁵ *asnasea*: arnasa.

⁴²⁶ *deralako*: dedalako, dudalako.

⁴²⁷ *alportx*: alportxa, ehun gogorrezko zerranda zabala, ertzak bi poltsa eratuz josiak dituen eta sorbaldetan edo zamarien gainean alde banatara jarria eramaten dena.

zijoan feriara
nagusiarekin.
Etxeko artzanorak⁴²⁸
nahiz bai, nahiz ez deitu,
beti-beti ondotik
ohi zion segitu.

Ibili ziranean
hiru bat legoa,⁴²⁹
gure nagusi horrek
sentitzen du loa.
Gelditzen du astoa
bide bazterrean,
han bazkatzen⁴³⁰ dabilen⁴³¹
lo egin artean.

Etziten⁴³² da soroan,
hasten da zurrungaz,
oroitu gabetanik
astoaz, ez zamaz.

Bazebilen astoa
soroan bazkatzen,
eta txakurra zion
atzetik jarraitzen,
baina nola astoa
zan guztiz handia,
atzeman ezin zion
hortzaz janaria.

Orduan bi eskuak
gorontz⁴³³ altxaturik,
hasitzen zan ibiltzen,
txutika⁴³⁴ jarri-rik,
eta asto gaiztoak
altxarik bizkarra,
egiten zion beti
burla eta farra,

⁴²⁸ *artzanor(ak)*: artzain-zakurra.

⁴²⁹ *legoa*: bide neurri zaharra; Espainian gu-txi gorabehera 5,5 km-ren baliokidea, Frantzia 4 km-rena.

⁴³⁰ *bazkatzen*: bazka hartzen, larratzen, alhatzen.

⁴³¹ *dabilen*: ibil dadin.

⁴³² *Etziten*: etzaten.

⁴³³ *gorontz*: gorantz.

⁴³⁴ *txutika*: zutik.

esaten ziolarik:
—Hau bai komedia!
Dirurik⁴³⁵ itsuaren
txakur dantzaria.

Eta honek esaten
dio astoari:
—Pixkatxo bat, maitea,
beherontz⁴³⁶ makur hari.⁴³⁷

Honela dabiltzala
poliki jostatzen,
lehoi bat basotika⁴³⁸
zaie ateratzen.
Artzanora lasterka
badijoa handik
utzitzen duela han
astoa bakarrik.
Honek egiten dio
hari deadarra,
hark berriz urrutitik
egiten du farra.

Asto gaixoa hil zan,
ez dago dudarik,
eskarmentu eder hau
guztiori utzirik:
besteak laguntzea
guri nahi badegu,
guk ere besteai
lagun behaiegu.⁴³⁹

Erlikidun astoa

Asto bat zamatua
guztiz erlikiaz
zijoan inon ezin
kabiz⁴⁴⁰ fantasiaz,
zergatik zutenean
jendeak ikusten,

⁴³⁵ *dirurik*: dirudik, irudi duk.

⁴³⁶ *beherontz*: beherantz.

⁴³⁷ *hari*: hadi.

⁴³⁸ *basotika*: basotikan, basotik.

⁴³⁹ *behaiegu*: behar diegu.

⁴⁴⁰ *kabiz*: kabituz.

belauniko ziraden
berehala jartzen,
eta bide zitzaion
buru hartan jarri,
egiten ziotela
belauniko hari.

Hargatika⁴⁴¹ zeraman
guztiz goratua
eta haizez betea
gaixoak burua.

Honela ikusirik,
esan zion batek:
—Agur hoiek hiretzat
dirala uste dek?
Ez dek besterik falta,
baizika⁴⁴² astoa
adoratzea hala
nola Jaungoikoa!

Makurtu ezak hire
haizezko burua,
ez dituk agur hoiek
hiretzat, kaikua!
Ez al dakik dijoala
kutxa bat gainean
erlikiaz betea
hire bizkarrean?

Zenbat asto badira
gizonen artean,
arkitzen diranean
enpleo batean,
sinistatzen ohi dute
gure kortesiak
dituztela gugandik
haiek mereziak,
eta gero galtzean
beren enpleoak
gelditzen ohi dirade
lehen bezin astoak.

⁴⁴¹ *Hargatika*: hargatikan, hargatik.

⁴⁴² *baizika*: baizikan, baizik.

Lehoia eta astoa

Lehoi handi bat zan behin
goizetik atera,
asto bat bere lagun
harturik, ehizera.
Artzai-txaol⁴⁴³ batean
uzten du astoa,
bidetxidor⁴⁴⁴ batera
bera badijoa.

Astoak behar zuen
handik arrantz egin,⁴⁴⁵
lehoiaganontz⁴⁴⁶ ehiza
guztia joan zedin.
Hain gogoz egiten du
astoak arrantza,
non zuen lehoiaren
orruaren antza.

Abereak dabilta
batetik bestera,
eta gero dijoaz
bidetxigorrera.⁴⁴⁷
Astoak sartu zien
halako beldurra,
non ez zuten ikusten
begiakin lurra.

Jaten ditu lehoiak,
utzirik hezurrak,
usaiez ase ditzan
astoak sudurrak.

Hezurrak ikustean,
esan emen⁴⁴⁸ zuen:
—Pixka bat lehentxeago
egon banintz hemen,
ez nuen ez utziko

⁴⁴³ *txaol*: txabola.

⁴⁴⁴ *bidetxidor*: bidezidorra, animalia zein oi-
nezkoentzako bide estua.

⁴⁴⁵ *arrantz egin*: arrantza egin, astoak orro
egin.

⁴⁴⁶ *lehoiaganontz*: lehoiaganantz.

⁴⁴⁷ *bidetxigor(rera)*: bidezidorra; ohart gaiten
lehentxeago *-txidor* aldaera erabili duela.

⁴⁴⁸ *emen*: omen, ei.

bakar bat bizirik,
ez zezen, ez katamotz,
ez otso, ez hartzik.

Aditu zuenean
fanfarroikeria,
lehoiak egin zuen
algara handia.
Honen tripa betea
gelditu zan ehizez,
astoarena berriz,
lehen bezela, haizez.

Farra eragiten du
gizon beldurriak,
esaten hasten bada
bere balentia.⁴⁴⁹

Tximua lotsaturik

Hegazti eta arrai,
abere guztiak,
deitu omen zituen
Jupiter handiak,
eta esan zioten
far-irriarekin:⁴⁵⁰
—Zertarako zatozten
behazute⁴⁵¹ jakin.

Umerik ederrena
dakarkidanari
emango diot nik gaur
lepande⁴⁵² bat sari,
zilarrezko letretan
esaten duena:
“Guraso guztietan
hau dek abilena”.

Badijoaz lasterka
guztiak etxera
beren umeak hartu
eta ekartzera.

⁴⁴⁹ *balentia(k)*: balentria.

⁴⁵⁰ *far-irri(arekin)*: barre-irria, irribarrea.

⁴⁵¹ *behazute*: behar duzue.

⁴⁵² *lepande*: lepokoa, koilarea.

Bihurtutzen⁴⁵³ dirade
 guztiak batetan⁴⁵⁴
 dituztela umeak
 beren bizkarretan.

Tximuak erakusten
 du bere umea,
 jaio berria eta,
 gainera, emea.
 Jupiter hasitzen da
 eztanda egiten
 duenean halako
 figura ikusten.

Lehertu nahi dute ere
 abere guztiak
 farraz eta algaraz
 txiki ta handiak.
 Tximu gaixoa arras
 zaiote lotsatzen,
 eta da Tetuana
 iges handik joaten.

Nolatan atrebitu
 zan eramatera
 ume itsusi hura
 guztien aurrera?
 Zergatika⁴⁵⁵ ez ohi da
 ume itsusirik,⁴⁵⁶
 bere gurasoentzat
 ederra ez danik.

Jupiter eta astoa

Jupiterri, zeina dan
 jaungoiko faltsoa,
 kejatu zitzaion behin
 biziro⁴⁵⁷ astoa.

—Ez dakit —esan zion—
 nola dan astorik

⁴⁵³ *Bihurtutzen*: bihurtzen, itzultzen.

⁴⁵⁴ *batetan*: bat-batean.

⁴⁵⁵ *Zergatika*: zergatikan, zergatik.

⁴⁵⁶ *itsusirik*: lehen argitalpenean *itsuric* jartzen du; agidanez, errata da. Silaba kopuruak ere hala iradokitzen du.

⁴⁵⁷ *biziro*: biziki, asko, oso, guztiz.

baratzazaia⁴⁵⁸ nausi
 izan nahi duenik.
 Egun oro narama
 plazara berekin
 aza, porru, tipula,
 eta letxuakin.⁴⁵⁹

Hoiiek saldu ondoren,
 bihurtzen⁴⁶⁰ naiz nekez,
 arras zamaturika,⁴⁶¹
 etxera, gorotzez.
 Ezer ere jan gabe
 nabil erdi hila,
 goitik behera sentitzen
 derala⁴⁶² makila.

Astoaren negarraz
 jauna da kupitzen,⁴⁶³
 eta teilagin⁴⁶⁴ bati
 han dio bialtzen.

Laster bihurtzen zaio
 berriz Jupiterri,
 esanaz: —Teilaginak
 hiltzen narabil ni.
 Jan gutxi ematen dit,
 makil golpe asko.
 Nonbait eraman behat,⁴⁶⁵
 Jauna, zenbait txasko!

Hemen nator berorri⁴⁶⁶
 berriz eskatzera
 arren bidal nazala
 beste etxe batera.

Larruzale zahar bati
 bidaldutzen dio,
 astoari hobeki

⁴⁵⁸ *baratzazaia*: baratzezaina, baratzea lantzen duena.

⁴⁵⁹ *letxua(kin)*: letxuga.

⁴⁶⁰ *bihurtzen*: itzultzen.

⁴⁶¹ *zamaturika*: zamaturikan, zamaturik, kargaturik.

⁴⁶² *derala*: dedala, dudala.

⁴⁶³ *kupitzen*: gupidatzen, errukitzen.

⁴⁶⁴ *teilagin*: teilak egiten dituen langilea.

⁴⁶⁵ *behat*: behar dut.

⁴⁶⁶ *berorri*: errespetuzko trataera.

ez dijoakio.

Bihurtu zan lasterka
berriz kejurekin,
eta jaunari zion
honela hitz egin:

—Jauna, larruzaleak
zamatzen nau erruz⁴⁶⁷
egun oro, idi, behi,
eta zaldi larruz.
Nere uste guztian
dauka deseoa
zamaz leherturik hila
ni ikustekoa.
Nola nere larrua
dan aski handia,
nerekin egin nahi du
segurki zahagia.⁴⁶⁸

Jaunak entzunik haren
hitz negargarriak,
itxi ziozkan⁴⁶⁹ arras
bere belarriak,
esaten ziolarik:
—Hemendik aurrera
ez datorrela inor
keja ematera.

Ez naiz inortxo ez ere
berdin kupituko,
beren patuarekin,
dira geldituko
asto eta txerriak
mandoak, zaldiak,
gizon eta abere
diraden guztiak.

Inork ez du estimatzen
bere suertea,
ustez dala besteena
askotzaz hobea.

⁴⁶⁷ *erruz*: asko.

⁴⁶⁸ *zahagia*: ardoa edo olioia gordetzeko era-
biltzen den abere larruz egindako zakua.

⁴⁶⁹ *ziozkan*: zizkion.

Mediku hitzontzia⁴⁷⁰ eta eria

Eri⁴⁷¹ bat guztiz gaizki
zegoan ohiean,⁴⁷²
eta pultsua ongi
hartu ondorean,
hasten zaio esaten
bere medikua:
—Gaizki iduritzen zat
gaur zure pultsua,
indarrika⁴⁷³ ez dauka,
eta bitartean
ehun golpe daukatzi⁴⁷⁴
minutu batean.

Sendatu zinalako
zerade zu poztu
eta zerbait jan dezu,
edo zera hoztu.
Alferrik ukatuko
dirazu⁴⁷⁵ zuk niri,
zerbait honelakotxe
pasa zazu⁴⁷⁶ zuri,
bestela seguru naiz,
ez daukat dudarik,
aterako zindudan⁴⁷⁷
nik gaitz honetatik.

Mila atera ditut
nik nere denboran
ez da bat bakarrika⁴⁷⁸
beste mundura joan.
Gauzarika⁴⁷⁹ onena
izango da hemen
zure konfesoara
deitzea lehenbailehen.
Ongi dakizu inork

⁴⁷⁰ *hitzontzia*: berritsua, asko hitz egiten
duena.

⁴⁷¹ *Eri*: gaixoa.

⁴⁷² *ohi(ean)*: ohea.

⁴⁷³ *Indarrika*: indarrikan, indarrik.

⁴⁷⁴ *daukatzi*: dauzka.

⁴⁷⁵ *dirazu*: didazu.

⁴⁷⁶ *zazu*: ezazu.

⁴⁷⁷ *zindudan*: zintudan.

⁴⁷⁸ *bakarrika*: bakarrikan, bakarrik.

⁴⁷⁹ *gauzarika*: gauzarikan, gauzarik.

esan gabetanik
ez dakarrela inoiz
gauza onak gaitzik.

Hasarretutzen zaio
honetan eria,
eta esaten dio:
—Berritsu handia!
Zertan ari zerade
aitzakia bila,
gaitz honetatik zuri
hil zaizkitzu mila.

Ez det jan, ez naiz hoztu,
ez det hitz bat egin,
ez orain eta ez lehen,
ez bada zurekin.
Zure betiko hitza
eta erausia⁴⁸⁰
jakizu asko dala
hiltzeko eria.

Zure aitzakiakin
zoazkit hemendik,
ez det nik sendatzeko
mediku beharrik.
Beti esan dirazu
ezer ez derala,⁴⁸¹
eta orain diozu
gaizki nagoala?
Badakit nik zer dedan,
ez nago hain gaizki,
erausi gutxirekin
jarriko naiz ongi.

Burua makurturik⁴⁸²
medikua joan zan,
eta gero eria
laster sendatu zan.
Hitz gutxi, begi ona,
handia zentzua,
hoiek egiten dute
ona medikua,

⁴⁸⁰ *erausia*: erasia, hizketa, jarduna.

⁴⁸¹ *derala*: dedala, dudala.

⁴⁸² *Burua makurturik*: umildurik.

baina oraindika⁴⁸³ da
mediku hobe
osasunari ongi
kontu egitea.

Mando zamatuak

Bi mando zijoazen,
biak zamatuak,
bata eta bestea
elkarri lotuak.
Bata zijoan arras
ederki jantzia,
zinta, kaskabel, lumaz
betea guztia.

Atzetika⁴⁸⁴ zintzilik
zeukan joaleak⁴⁸⁵
iduki ohi zituen
airean kaleak.
Bizkarrean zeraman
urre zama handia,
ongi botatzen zion
jendeak begia.

Bestea lotsaturik
zijoan arlotez,⁴⁸⁶
zamatu zutelako
zaku garagarrez.
Ez ziran nerekiko
harrotzeko galak
bizkarrean zituen
garagar kostalak.⁴⁸⁷

Irteten zaiozkate⁴⁸⁸
lapurrak bidean
mando ederragana
zuzen-zuzenean.

Ostikoka hasten da,
eginaz irrintzi,

⁴⁸³ *oraindika*: oraindikan, oraindik.

⁴⁸⁴ *atzetika*: atzetikan, atzetik.

⁴⁸⁵ *joale(ak)*: joarea, zintzarria.

⁴⁸⁶ *arlotez*: eskalez.

⁴⁸⁷ *kostal(ak)*: zaku handia.

⁴⁸⁸ *zaiozkate*: zaizkie.

eta alderatutzen⁴⁸⁹
ez die nahi utzi,
beldurrez geldi dedin
jantzi gabetanik
bota zuen bezala
amak sabeletik.

Nola zituzten txispak⁴⁹⁰
lapurrak berekin
hil eta joan ziraden,
diruak harturik,
ukitu ere gabe
bestea utzirik.

Hau ikusi ondoren
bigarren mandoak
esan omen zituen
hitz honelakoak:

—Deaurru-etxeraino
bijoa⁴⁹¹ jantzia,
laburtu behar badu
honela bizia.
Nahiago det eraman
askoz garagarra,
ezen ez urre zama
edo nahiz zilarra.

Azeria eta mahatsak

Zintzilika⁴⁹² daudela
ditu azeriak
ikusten mahats-mordoak
heldu, hori-horiak.
Jartzen da begiraka
gaixoa goseak,
badabilzkio tripak
jateko zaleak.

Saltoka hasitzen da
ahalegin guztian,
ordu bian badabil
ezin iritsian.

Ikus zuenean
ez zala protxurik,⁴⁹³
mahatsai esan zien,
begia jasorik:
—Zaute, zaute,⁴⁹⁴ mordoak,
zaute hostopean,
ez zerate oraindik
jarri sasoiean.
Zerbait nahi eta ezin
badegu iritsi,
azeriak bezela
behar degu utzi,
“Zaude, zaude” esanaz
“Zaude hor berean,
zergatika ez zera
jarri sasoiean”.

Lehoia eta arratoia

Lehoi baten atzapar
handi zorrotzetan
arratoi bat zegoan
guztizko penetan,
ez zergatik jan zion
gazta, txorizoa,
bai zeren kentzen zion
gabetako loa,
ordu guztietako
haren ibiliak
uzten ez ziolako
itxitzen⁴⁹⁵ begiak.

Negarrez hasten zaio
barkazio eske,⁴⁹⁶
uzten dio, esanaz:
—Horra bahoake.⁴⁹⁷

Ozta hilabete bat
oraindika joan zan,
horra non lehoi hori
erori zan tranpan.

⁴⁸⁹ *alderatutzen*: alderatzen, gerturatzen.

⁴⁹⁰ *txispa(k)*: zizpa, antzinako fusil mota; es-
kopeta.

⁴⁹¹ *bijoa*: joan bedi, joan dadila.

⁴⁹² *Zintzilikan*: zintzilikan, zintzilik.

⁴⁹³ *protxu(rik)*: probetxua, etekina.

⁴⁹⁴ *zaute, zaute*: zaudete, egon zaitezte. Agin-
terazko forma da.

⁴⁹⁵ *itxitzen*: ixten.

⁴⁹⁶ *barkazio eske*: barkamen eske.

⁴⁹⁷ *bahoake*: hi joan haiteke.

Hasitzen da egiten
halako orruak,
non ikaratzen ditu
hango inguruak.

Ezagutu ondoren
orruan lehoia,
lasterka han dijoa
gure arratoia.
Hortzakin berehala
du soka puskatzen,
eta tranpatik libre
du lehoia uzten.

Nork esan lehoiari
orduan bizia
eman behar ziona
zala arratoia!
Hargatika munduan
handi izan arren,
ez daki batek noren
behar izango den.

Otsoa eta artzanora

Otso handi bat
mendiak gora
zijoala goiz batean,
artzanor⁴⁹⁸ handi
batekin topo
egin zukean⁴⁹⁹ bidean.
Zeuden lekuan
gelditu ziran
biak elkar ikustean.

—Adiskidea
—dio otsoak,
agur handi bat eginik—,
Noiz ezkeru zu
honen goiz hemen?
Zure ardiak utzirik,
ez zera, ez, gaur
motibo gabe
apartatu artaldetik.

⁴⁹⁸ *artzanor*: artzain-zakurra.

⁴⁹⁹ *egin zukean*: egin zuten, nonbait; egin omen zuten. Ziurgabetasuna adierazteko modua.

Artzanor horrek
erantzun zion:
—Nahi nuke egon zurekin,
aurrera nola
bizi behagun,⁵⁰⁰
biok dezagun hitz egin.
Zuk nahi badezu,
nere partetik
izango nuke atsegin.

Ikusi zuen
otso handiak
zeukala hark lepandea,⁵⁰¹
hartzen ziona
lepo guztia,
burni arantzez betea,
eta ez zala
orduan erraz
harekin burrukatzea.

Lotsa zan baino
beldur gehiago
bere barrenen sentirik,
—Gusto horixen,—
erantzun zion,
—gaur bertan izan nahi det nik,
eser gaitezen
hementxen bertan,
izan ez dedin esparik.⁵⁰²

Iduritzen zat,
—dio artzanorak—
dala guretzat hobea,
aurrera biok
lehen degun baino
hobeto elkar hartzea.
Batak besteari
esanaz beti,
“Agur, nere adiskidea”.

Nork izango du,
esan zadazu,
bizi guztian gogoia,
beti barrenen

⁵⁰⁰ *behagun*: behar dugun.

⁵⁰¹ *lepandea*: lepokoa, koilarea.

⁵⁰² *espa(rik)*: kexua.

idukitzeko
elkarrentzat gorrotoa?
Ta letaginaz
puskatutzeko
bata besteari lepoa?

Ez dagokio,
beste aldetik,
esan behar da egia,
zu bezalako
indartsu bati
pertsegitzea ardia.
Zergatika da
aberetxo bat
ona eta izutia.

Zuretzat askoz,
dudarik gabe,
dira kontresta⁵⁰³ hobeak
lehoiak, hartzak,
ta katamotzak,
eta basoko urdeak.
Hoiekintxe zuk
egin behaituzu⁵⁰⁴
aurrera zure peleak.

—Arrazoi dezu.
—dio otsoak—
Ez duenari indarrik
lotsagarri da
gaitz egitea,
ta ez uztea bizirik.
Ez det gehiago
halakoakin
nik izan nahiko konturik.

Ematen dizut
hitza egiaz
ez naizela ni aurrera
joango hemendik
zuen alderontz,
zure ardiak jatera,
baizika zuek
bisitatuta,
zuen ordenak hartzera.

⁵⁰³ *kontresta*: aurkaria.

⁵⁰⁴ *behaituzu*: behar dituzu.

Orduan elkar
despediturik,
bihurtu⁵⁰⁵ ziran etxera,
bata bestearen
beldurrik gabe
soseguz asnas⁵⁰⁶ hartzera,
eta kuido
guztitik libre
deskantsuz lo egitera.

Egun batzuek
igaro eta
hasi zan ardi kontatzen,
eta artzanora,
ikusirika
ari zirala bakantzen,
lehen bezin berri
hasi izan zan
egun eta gauak galtzen.

Gaitz egiteko
grina gaiztoa
batek badakar jatorriz,
gaztetandika⁵⁰⁷
ez badu uzten,
gaitza egingo du berriz,
nahiz bere hitza
eman dezala
mila eta mila aldiz.

Mendia haurgiten

Turmoiak⁵⁰⁸ hortik
tximist hemendik
ikusirika, jendea
egun batean
bide zegoan
arras beldurrez betea,
eta egiaz
posible ez zan
sosegurik izatea.

⁵⁰⁵ *bihurtu*: itzuli.

⁵⁰⁶ *asnas*: arnasa.

⁵⁰⁷ *gaztetandika*: gaztetandikan, gaztetandik.

⁵⁰⁸ *turmoi(ak)*: trumioia.

“Dudarik gabe,”
 esaten zuten,
 “juizioko eguna
 da aditzera
 tormenta honek
 guri ematen diguna.
 Behar bezela
 prestatutzeko
 egin zagun ahal deguna.”

Honetan norbait
 badator eta
 horra non duen esaten,
 txit urrutian
 mendi handi bat
 omen dagoala haurgiten,⁵⁰⁹
 honetarako deadar haiek
 dituela hark egiten.

Ikara utzi
 alde bat eta
 jendea dago ixilik.
 Zer gauza handik
 behar ote duen
 atera haren barrendik?
 Zergatik gauza
 txikirik ezin
 diteke irten menditik.

Badator norbait
 berri handia
 jendeari ematera,
 dala mendiaren
 sabeletika⁵¹⁰
 sagu txiki bat atera.
 Hau aditu ta
 jende guztia
 juan zan algaraz etxera.

Honela gerta
 ohi da, kristabak,
 maiz urrutiko gauzakin.
 Hargatika guk
 bizi behagu⁵¹¹

⁵⁰⁹ *haurgiten*: haur egiten, erditzen.

⁵¹⁰ *sabeletika*: sabeletikan, sabeletik.

⁵¹¹ *behagu*: behar dugu.

gure errepain⁵¹² zaharrakin,
 geldi ez gaitezen
 asko bezela
 gero txalma⁵¹³ handi barekin.
 Urrutitika⁵¹⁴
 eginagatik
 intxaurrek soinu handiak
 alderatuta
 izan ohi dira
 askotan intxaurrek txikiak.
 Egia handi hau
 erakutsitzen
 digu esperientziak.

Aizkora eta kirtena

Egurgile bat
 sort egitera⁵¹⁵
 joan zan basoan barrena,
 eta bidean
 galdu zitzaion
 aizkoratika⁵¹⁶ kirtena.

Sort egiteko
 beste berri bat
 egin nahirik aizkorari,
 gaia eskatzen
 hasi zitzaion
 han zan arbol bakoitzari.

Inork ez zion
 gairik eman nahi,
 eta arteak bakarrik
 adar mehetxo bat
 eskeini zion,
 gaixo hartaz kupiturik.⁵¹⁷

Kirten berria
 egin ondoren,
 sartzen dio aizkorari.
 Eta golpeka

⁵¹² *errepain*: errefraua, esaera zaharra.

⁵¹³ *txalma*: ezustekoa.

⁵¹⁴ *urrutitika*: urrutian, urrutitik.

⁵¹⁵ *sort egitera*: egurra moztu eta biltzera.

⁵¹⁶ *aizkoratika*: aizkoratikan, aizkoratik.

⁵¹⁷ *kupiturik*: errukiturik.

hasitzen⁵¹⁸ zaio
arte harixe berari.

Hau ikusita,
hasten dirade
zumarrak eta lizarrak,
arte onaren
kontra egiten
oju⁵¹⁹ eta deadarrak.

—Asto handia,—
esaten die
—ez al hekien oraindik
egurgileak
bizi dirala
guk galtzen degun bizitik?

—Horra zer esker
ematen dian,
orain hasi dek higandik.
Sarri⁵²⁰ ez geatzik⁵²¹
bat bakarrika
basoan utziko zutik.

Hiri bakarrik
egin bazian,
tontotzar⁵²² horri, kaltea,
ezer ez huen,
baina guretzat
ez dek izango hobea.

Bere etsaiari
eman badio
noizbait norbaitek eskua,
lehen edo gero
ikusiko du
galdurik bere burua.

Bada jaungoiko bat

Zerua eta lurra,
eta itsasoa

dagozkigu esaten
badala Jainkoa.

Inork sekulan balu,
honetan dudarik,
ez luke bere buru⁵²³
esatea baizik,
beti argi emanaz
lehen bezin handia
egun oro ikusten
degu eguzkia.

Urteak joanagatik
milaka pasatzen,
lehen bezalaxe digu
argia ematen.
Nork egin ote zuen,
zer harrigarria!,
behin ere akabatzen
ez zaigun argia?

Nork, igaroagatik
egunak, urteak,
gordearazten diozka⁵²⁴
lehenengo bideak?
Baldin irteten balitz
bide haietatik,
ez litzake gelditzen
gizon bat bizirik.

Pixka bat joaten balitz
harontz⁵²⁵ eguzkia,
laster lezake hotzak
hil mundu guztia.
Eta honontz⁵²⁶ baluke
pauso bat ematen,
berehala beruak
ginduke itotzen.

Hondarrak ez baleza
geldi itsasoa,
orobat litzateke
mundua itoa,

⁵¹⁸ *hasitzen*: hasten. Jatorrizkoan *hasiten* da-
tor, baina errata dirudi.

⁵¹⁹ *oju*: oihua.

⁵²⁰ *Sarri*: berehala.

⁵²¹ *geatzik*: gaitik, gaitu hikako moldean.

⁵²² *tontotzar*: tontoa, ergela.

⁵²³ *bere buru*: bere buruari, bere baitan.

⁵²⁴ *diozka*: dizkio.

⁵²⁵ *harontz*: harantz.

⁵²⁶ *honontz*: honantz.

baina Jaungoikoaren
ordenak harturik,
behin ere igarotzen
ez da hondarretik.

Baldin noizbait norbaitek
nahi baluke jakin
lehenbiziko gizona
zeinek zuen egin,
bijoa⁵²⁷ aditzera
jakintsun handiak.
Eta ikusiko du
zer astakeriak
haien mingainetatik
dituen aditzen.

Eta nola lehen bezin
ilun dan gelditzen,
galde bizaie⁵²⁸ nola
guk mundu guztia
ikusteko asko degun
begiko ninia?
Nola hodoiak⁵²⁹ gora
joaten dan artea
dan posible hain hazi
txikitik sortzea?

Nola irten bezala
txitoxa arraultzetik,
ez duen huts egiten
mokoka alerik?
Nola enadak⁵³⁰ egin
ohi duten kabiak
harriturika⁵³¹ uzten
dituzten guztiak?

Zer erantzungo dute
gizon jakintsuak
gauz hoietan badira
gu bezinitsuak?
Atozkit honontz orain,

⁵²⁷ *bijoa*: joan dadila, doala.

⁵²⁸ *galde bizaie*: galde diezaietela; aginterazko forma.

⁵²⁹ *hodoi(ak)*: hodeia.

⁵³⁰ *enada(k)*: enara.

⁵³¹ *harriturika*: harriturikan, harriturik.

zu gizon zoroa,
ukatzeroa oraindik
badala Jainkoa.

Heriotzeko orduan
aditzen badizut,
egia diozula
sinistuko dizut.
Orduan nere peril⁵³²
aho horretatik
Jainkoaren izena
adituko det nik.

Osasuna danean,
bai ere indarra,
gizonak egin ohi du
Jaungoikoaz farra,
baina galtzen baditu
bat eta bestea,
orduan aitortzen du
hark bere jabea.

Ez da mundu honetan
inon naziorik
Jaungoiko bat badala
aitor ez duenik.
Azkenean mendiko
gizon basatiak
egi hau sinistatzen
ohi dute guztiak.

Bada bai Jaungoiko bat,
danik justuena,
zerua eta lurra
egin dituena.
Zuk egin zenden, bai,
nere Jaungoikoa
lehenbiziko gizona
zure antzekoa.

Zuk eginak dirade
eguzki, ilargia,
izar ederrak eta
itsaso handia.
Hoiiek ikusten dira
gauaz ta egunaz

⁵³² *peril*: arriskua.

alabantzak egiten
zure ontasunaz,
zure jakinduriaz,
ta handitasunaz.

Gauzarik txikienetan da haundiena⁵³³
Jaungoikoa

Nork esan gure
Jaungoiko onak
gauzarik txikienetan
poderiorik
handienaren
muestrak dizkigula eman.
Hau ikusteko
historia bat
on da nik konta dezadan.

Inguma⁵³⁴ zuri
itsusi batek
ohi ditu udaberrian
milaka arraultzak
hor-hemen uzten,
masust-arbolen⁵³⁵ orrian,
hau jan dezaten
handik irtenik
harrak ahalegin guztian.

Hala gertatzen
da zergatika
ozta dirade irteten,
berehalaxe
hasten dirade
gogotik hostoa jaten,
hilabetean,
gutxienean,
ez dira jaten gelditzen.

Hostoz aseaz,
egiten dira
behatza bezin lodiak,

⁵³³ *haundi(ena)*: handia. Testuan gainerako agerraldietan *handi* erabiltzen du.

⁵³⁴ *inguma*: tximeleta.

⁵³⁵ *masust-arbol(en)*: masusta-arbola, masustondoa.

eta orduan
haiek ahotik
botatzen duten lirdiak,⁵³⁶
berak jiraka
darabiltela,
uzten ditu estaliak.

Badirudite
ezkur aleak
orduan oso-osoak,
haur jostatzeko
boltsa batean
norbaitek sartutakoak.
Nork sinistatu
behar dutela
piztu gero honelakoak.

Udaberria
datorrenean
hasten dirade irteten,
txulo bat boltsan
egin ondoren,
eta hegoak zabaltzen,
zergatik boltsan
dauden artean
inguma dira bihurtzen.

Gero arraultzak,
amak bezala,
arbol hostoan eginik,
berehalaxe
hoientxen gisa
gelditzen dirade hilik.
Gure bizia
laburra dala
ez degu zer kejuririk.

Haien lirdiak,
zeinak dirudi
armiarmaren sarea,
boltsa gisara
dagoalako
du izena *kapulea*.
Zirikuaren⁵³⁷

⁵³⁶ *lirdi(ak)*: lerdea, baba.

⁵³⁷ *Ziriku(aren)*: zeta.

izena hartzeko
falta zaio iruitea.⁵³⁸

Ziriku hau da
zuria edo
arto-bizar kolorea,
gero bakoitzak
ematen dio
nahi baldin badu hobe,
purpurarena
jantzi behaena⁵³⁹
baldin bada Erregea.

Kolore gorri
purpurarena,
maskor baten barrenean,
maskorra jaten
gosez hasi ta
txakur batek hondarrean
arkiarazo⁵⁴⁰
zuen muturra
tintez busti zuenean.

Horra erregeen
soineko ederrak
inguma batzuen lana
eta kolore
gain-gainekoa
maskortxo batek emana.
Hau ikusita
zein da gizona
aurrera harrotuko dana?

Oraindik balitz
norbait munduan
nahi ez duena sinistu,
behar degula
dudarik gabe
denboraz guztiok piztu,
sinistamentu
milagrozkoko hau
ingumak dio erraztu.

⁵³⁸ *iruitea*: irun/irutea, hari bihurtzea.

⁵³⁹ *behaena*: behar duena.

⁵⁴⁰ *arkiarazo*: aurkiarazi, aurkitu.

Kutuna

Nere adiskidea,
behar dezu jakin
gertatutzen ohi dana
munduan gurekin:
inor ez da kontentu
bere suerteaz,
enbidia gaiztoa
du batak besteaz.

Nekazariak dio:
“Zorionekoak
dira maiorazkoak
ta indianoak”.
Hoiiek diote, berriz:
“Pozeko bizia
munduan daramana
da nekazaria.”

Medikuak nahi luke
izan letradua,
honek merkataria
edo medikua.
Ezkonduak ezkongai,
ezkongaiak senar,
ezagutzen ditut nik
honelako hamar.

Nork ote dauka, bada,
arrazoi honetan?
Ez batak ez bestek
diot nik benetan.
Arrazoa da beti
arkitzen erdian,
ez gehiegian eta
ez gutxiegi.

Baldin gehiegi badu
batek ondasuna,
gehienetan faltatzen
zaio osasuna,
eta nola hau gabe
ez dan zorionik,
ozta arkitzen ohi da
kontent aberatsik.

Pobreak ohi du, berriz,
osasun handia,

apetitu azkarra,⁵⁴¹
 janari txikia.
 Hargatik biziaren da
 beti enbidiaz,
 beti gaizki hitz egiten,
 aberats guztiaz.

Eta fortunaz bera
 aberasten bada,
 lehen baino gaizkiago,
 benturaz,⁵⁴² bizi da.
 Begira zuk dakizun
 gizon lodi hari,
 nik ezagutu nuen
 hura nekazari.

Goizetik arratsera
 beti aitzurrean,
 osasun onarekin
 umore onean.
 Aberastu zan guztiz
 Ameriketatik,
 baina geroztik ez du
 osasuna onik.

Janak eta edanak,
 lanik ez eginak
 emanak ditu horrek
 gaur dituen minak.
 Eta nola baitaukan
 odolak josia,
 hil oro gutxienaz
 behar du sangria.⁵⁴³

Hamar legua⁵⁴⁴ oinez
 egiteko hark lehen
 beste hainbeste ordu
 gehiegi zituen,
 eta ezin liteke
 gaurko egunean
 ordu betean ere
 ibili bidean.

Zertarako dirade
 gure ondasunak
 falta behar badigu
 egin osasunak?
 Ez da, ez da munduan
 behar diru asko
 pozez eta kontentuz
 bizi izateko.

Eta umore ona
 daukanak nahikoa,
 nonahi dauka bizitza
 zorionekoa.

Jainkoak hala nahirik
 dirade txit gutxi
 ezin ditezkeenak
 lan egin ta bizi,
 gainerakoak dira
 alfertzar utziak
 lanika egin gabe
 ongi bizi nahiak.⁵⁴⁵

Erleakin Jainkoak
 digu erakutsi
 nola bizi munduan
 nahi bada ikasi:
 dirade langileak,
 dira kontuzkoak;
 ez digute esango,
 “Gero gerokoak”.

Pozik jango luteke
 gaixoak guztia
 hain neke handiz egin
 ohi duten ezta,
 baina oroitzin dira
 badala negua,
 orduko⁵⁴⁶ behautela⁵⁴⁷
 egin gordaidua.⁵⁴⁸

Hala, ez dute jaten
 daukaten ezitik

⁵⁴¹ *azkarra*: apetitu handia.

⁵⁴² *benturaz*: menturaz, beharbada.

⁵⁴³ *sangria*: odolustea. Antzina, zenbait gaixo-
 tasun sendatzeko odola ateratzen zen.

⁵⁴⁴ *legua*: legoa, bide neurri zaharra.

⁵⁴⁵ *ongi bizi nahiak*: ongi bizi nahi dutenak.

⁵⁴⁶ *orduko*: ordurako.

⁵⁴⁷ *behautela*: behar dutela.

⁵⁴⁸ *gordaidua*: gordailua, gordetzeko lekua.

egun oro gaixoak,
pixkatxo bat baizik,
eta negu gogorra
etortzen danean,
jan ta lo hantxen daude
deskantsuz eultzean.⁵⁴⁹

Mantentzen dituenak
aireko txoriak,
itsasoko arraiak,
lurreko piztiak,
ez du hiltzen utziko
goseak gizona,
kontukoa danean
ta langile ona.

Izan ezkerro jana,
edana, jantzia,
gainerako guztia
da erakeria.⁵⁵⁰
Enpleo eta honrak,
aberastasunak,
dirade banidade
ta harrotasunak.

Nork duen zoriona
jakin nahi badegu
plazetara joatea
besterik ez degu.
Lana erruz⁵⁵¹ egiten
duena astean
han dabil dantzan lehertzen
kontentuz jaiean.

Ez da inon festarik,
ez da merkatu-rik,
gogo badu ikusi
ez dezakeenik.
Nahi badu ostatua,
nahi badu kafea,
asko du lehenbiziko
tabernan sartzea.

Mahai ona topatzen du
gogo onarekin,
eta ez zaio falta
norekin hitz egin.
Asko du pasatzeko
hark egun guztia
txopin⁵⁵² bat ardo eta
lau kuartoko⁵⁵³ ogia.

Ez du kotxe beharrik,
ez ere zaldirik,
makila bat asko du
baldin bada lohirik,⁵⁵⁴
hor salto, hemen salto
joateko airean,
oinak zikindu gabe
batere bidean.

Nekeak emanika⁵⁵⁵
jateko gogoa,
txit ona arkitzen du
baba eta taloa.
Irteteko egun oro
erraz gorputzetik,
honelakoak ez du
aiuda beharrik.

Lanari utzi eta
etxean sartzean,
pozten da emaztea
deika aditzean,
umeai esanaz
“Atozte etxera,
aita oraintxen dator,
eta bazkaltzera.”

Errezatu ondoren,
hasten dira jaten
guztia apetituak
ona du arkitzen.
Egiatzki dirudi

⁵⁴⁹ *eultze(an)*: erlauntza.

⁵⁵⁰ *erakeria*: erokeria.

⁵⁵¹ *erruz*: asko.

⁵⁵² *txopin*: litro erdi inguruko edukiera-
neurria.

⁵⁵³ *kuartoko*: kobrezko diru zaharra.

⁵⁵⁴ *lohi(rik)*: lokatza.

⁵⁵⁵ *emanika*: emanikan, emanik.

haiek ikustean,
aingeruak daudela
bazkaltzen lurrean.

Han arkitzen dirade
poza ta pakea,
zorionekoa da
haien izatea.
Ongi balekitek⁵⁵⁶
handien bizia,
segur naiz ez lirake
haien enbidia.

Erran komunak dira
maisurik onenak,
jarraitu bitza ongi
bizi nahi duenak.
Hoiak esaten dute:
on da jakitea,
dirudien guztia
ez dala urrea.

Kanpotik eder eta
barrendik itsusi
aberatsen etxeak
maiz dira ikusi.
Askotan arpegia
egon arren farrez,
bihotza arkitzen da
barrenen negarrez.

Jende aberats asko
ikusten ditut nik
etxea betea ta
ezer ezin janik,
purgakin, aiudakin,
izaiak⁵⁵⁷ atzean,
urtearen erdian
etzinik ohiean.

Janari ez badie
ifintzen neurria,
biziari kendutzen
diote erdia.

⁵⁵⁶ *balekitek*: jakingo balute.

⁵⁵⁷ *izai(ak)*: izaina; gorputzetik odola ateratzeko erabiltzen zen zizare mota.

Aberats izatea
zertako ote da,
gogoa izan eta
jan behar ez bada?

Zahagia⁵⁵⁸ etxean ta
eperra espentsan,⁵⁵⁹
eta ezin hau jan eta
ezin handik edan!
Festetara joateko
behar dute jakin,
zaldiak ongi dauden,
edo al duten min.

Zer denbora dagoan,
dakarren euria,⁵⁶⁰
edo bortitzegia
al dan eguzkia.
Etxera eta askotan
hantxen daude muxin⁵⁶¹
eztula dutelako,
edo buruan min.

Jaungoikoak mundua
honela du egin
gaitza nahi du dabilen⁵⁶²
beti onarekin.
Hau honela izanik
dudarikan gabe
nahi luke batek izan
ona gaitzik gabe.

Baina gizona dago
burutik jauzia,⁵⁶³
nahi badio irabazi
Jaunari auzia.
Zenbat aberats ez da
ibiltzen goizetik
denbora nola pasa
ezin asmaturik?

⁵⁵⁸ *Zahagia*: ardoa edo olioak gordetzeko erabiltzen den abere larraz egindako zakua.

⁵⁵⁹ *espentsa(n)*: despentsa.

⁵⁶⁰ *dakarren euria*: euria egingo duen.

⁵⁶¹ *muxin (egon)*: muzin (egon), haserre.

⁵⁶² *dabilen*: ibil dadin.

⁵⁶³ *burutik jauzia*: burutik jota.

Eta zenbatek ez du
galtzen osasuna,
ez jakinika nola
igaro eguna?
Janean, edanean,
joko, pikardian,
goiz eta arratsalde,
eta gauerdian?

Hemendikan ohi datoz
ondoren saminak:
gota, urdailekoa,
eta beste minak.

Ezkontza behar badu
aberatsak egin,
nobiak zenbat duen
lehenaz behau⁵⁶⁴ jakin,
gero galdetuko du
ote dan ederra,
ez azkarra ote dan,
edo dan alferra.

Ezkontza hoietatik,
ez naiz harritzen ni,
onak ez irteeta
milatatikan bi.
Hemendika keja ta
handik hoztasuna,
goizetik arratsera
dijoa eguna.

Ekarri baldin badu
dotea handia,
dotearen neurrian
behar du jantzia.
Dotea jaten da ta
jantzia gelditzen,
komediak orduan
dirade izaten.

Ongi jan,
ongi edan,
behar haurrak hazi,
senper⁵⁶⁵ orduan ohi du

⁵⁶⁴ *behau*: behar du.

⁵⁶⁵ *Senper(rak) ikusi*: senperrenak ikusi, go-
rriak ikusi, oso gaizki edo larri ibili.

bakoitzak ikusi,
ohiturak ezin utzi
zerekin izan ez,
zenbat ez dira bizi
gaixoak negarrez!

Esan zadazu orain,
zuk adiskidea,
zer da mundu honetan
suerte hobea:
aberastasunakin
bizitza tristea
edo ondasun gabe
bizi alegria?

Artzai koplak⁵⁶⁶

Melibeo:

Titiro, zu hor zaude,
faza ederrean,⁵⁶⁷
luze-luze etzinik

⁵⁶⁶ Iturriagak oin-oharrean dio: “Egloga pri-
mera de Virgilio”, hots Virgilioaren lehen egloga
eta ondoren testuaren argumentua ematen du: “El
emperador Augusto repartió tierras entre sus sol-
dados, despojando de ellas a sus dueños. Virgilio
obtuvo la devolución de las suyas, y según algu-
nos, es el que en esta égloga habla de boca de Ti-
tiro, elogiando al joven emperador, a quien llama
su Dios, y ofrece sacrificios en sus altares con los
recentales de su rebaño. Dice que fue esclavo y
que, habiendo ido a Roma, siendo ya viejo, ob-
tuvo su libertad. Melibeo, que habla de boca de
los despojados, llama dichoso a Titiro, y llora su
desgracia, como quien va sin esperanza de volver a
su patria y hogar”.

Euskaraz (guk itzulia): “Augusto enperado-
reak lurra banatu zuen bere soldaduen artean, be-
ren jabeen kendu ostean. Virgiliok bereak eskuratu
zituen, eta batzuek diotenez bera da egloga hone-
tan Titiroren ahotik enperadore gaztea gorai-
patuz mintzo dena, ‘bere jainko’ deitzen dio eta ar-
taldeko kume jaioberriak aldarean sakrifikatzea
eskaintzen dio. Esklabo izan zela kontatzen du
eta zaharra zela, Erromara iristean lortu zuela as-
katasuna. Melibeok lur-gabetuen ahotik hitz egi-
ten duela, Titirori zorionekoa dela esaten dio
eta bere zorigaitzengatik negar egiten du, ez baitu
itxaropenik bere aberrira eta etxera itzultzeko”.

⁵⁶⁷ *faza ederrean*: lasai ederrean, patxadan.

pago itzalean.
Txirola⁵⁶⁸ jo ta kanta
hor zaude zalantzan,
Amarilis maitea
noiz etorriko dan.

Gu berriz hemen goaz
herritik igesi,
etxea eta lurrak
han ditugu utzi.
Gu negarrez gabiltza,
zuk, hortxe jarririk,
ez dezu Amarilis
alabatu baizik.

Titiro:

Melibeo, bizi naiz
deskantsu honetan,
zeren bizimodu hau
Jainkoak dit eman.
Honi zor diot hemen
txirola jotzea
eta nere idiak
landan bazkatzea.

Behin baino gehiagotan
honen aldareak
ikusiko dituzte
nere arkumeak.⁵⁶⁹

Melibeo:

Ez dizut nik, Titiro
enbidirik hartzen,
baina esango dizut
zerk nauen harritzen:
da zu hor ikusteak
deskantsu horretan
penak diradenean
bazter guztietan.

Hona ni hemen eriz⁵⁷⁰
ezin ibilirik,

⁵⁶⁸ *Txirola*: txirula.

⁵⁶⁹ Iturriagak berak hala azaltzen du pasarte hau: "Los corderos que se han de inmolar en los altares".

⁵⁷⁰ *eriz*: gaixorik.

nola noan ahuntz hoiek
aurrean harturik,
Ikusten dan bezala,
hoietatikan bat
bultzaka ta bultzaka
doi-doa daramat.

Gaixo horrek hor suharri⁵⁷¹
gogorren gainean
bi ume egin dizkit
hurritzen⁵⁷² artean.
Badakizu iraungo
badu artaldeak,
esperantza guztia
dirala umeak.

Zorigaizto hau, narra⁵⁷³
izan ez banintzan,
aditzera eman dit
zeruak askotan,
hain laster artelaza⁵⁷⁴
txismistakin joaz,
hain laster beltzurari⁵⁷⁵
kantaarazoaz.⁵⁷⁶

Baina orain, Titiro,
zorionekoa,
esan zadazu zein dan
zure Jaungoikoa.

Titiro:

Bildotsak⁵⁷⁷ eramaten
ditugun herria⁵⁷⁸
uste nuen, nar honek,

⁵⁷¹ *suharri*: sutarako, sua pizteko erabiltzen den harria.

⁵⁷² *hurritz(en)*: zuhaixka mota bat; hurra da bere fruitua.

⁵⁷³ *narra*: ergela.

⁵⁷⁴ *artelaza*: artelatza, artearen antzeko zuhaitza; bertatik ateratzen da artelazkia edo kortxo.

⁵⁷⁵ *beltzur(rari)*: beltzurda, belabeltza; belearen familiako hegaztia. Zorigaitzaren iragarle izan ohi da.

⁵⁷⁶ *kantaarazoaz*: kantaraziaz.

⁵⁷⁷ *bildotsa(k)*: urtebete inguruko arkumea.

⁵⁷⁸ Iturriagak zehazten du zein den herri hori: "La ciudad de Mantua". Italia iparraldean, Lombardian dagoen hiria da.

zala hain handia,
non izan zitekean
zanik handiena,
nola dan gaur Erroma
deitzen diotena.

Baina ikusi nuen,
hau haren aldean
dala ardia dana
bildotsen artean,
edo txakurkumeak
jaio diranean,
ama ohi dan bezala
hoien saihetsean.

Melibeo:

Baina galde behaizut,⁵⁷⁹
Titiro, esazu,
zerk Erroma alderontz
eraman zaitu zu?

Titiro:

Ni Erroma alderontz,
harturik makila,
joan nintzan, Melibeo,
libertade bila;
baina libertadea
nueneko izan,
bizarzuria eta
burusoila nintzan.
Amarilis maitea
nuen emaztea,
bada orduko galdu
nuen Galatea,
eta aitortu behat⁵⁸⁰
Amarilis gabe
ez nintzala izango
gaur ni ere jabe,
zergatik Galatea
nuen bitartean
behin ere ez nuen nik
ardit⁵⁸¹ bat etxean.

⁵⁷⁹ *behaizut*: behar dizut.

⁵⁸⁰ *behat*: behar dut.

⁵⁸¹ *ardit*: balio gutxiko txanpon mota.

Eramanagatika⁵⁸²
herrira guria,
gazta freskoa eta
arkume lodia,
beti bihurtzen⁵⁸³ nintzan,
behar dezu jakin,
gauza asko saldu eta
bi esku hutsakin.

Melibeo:

Harritua, Amarilis,
nengoen ni, zeren
beti Jaunari deika
tristeturik zeunden.
Harritua norentzat
sagararak heldurik
ote zeuden arbolan
bildu gabetanik.

Orain konturatzen naiz
zergatika zeuden,
zergatika, Titiro
hemen ez zegoen.
Titiro zuri deika
zeuden iturriak,
zuri deika pinuak
eta elorriak.⁵⁸⁴

Titiro:

Zer nahi zenduen bada,
hemen egin nezan,
nere libertadea?
Ezin nuen izan.
Ez nuen nik ikusten
hemen Jaungoikorik
deseatzen nuena
emango ziranik.⁵⁸⁵

Erroman, Melibeo,
nuen nik arkitu
galai gazteat,⁵⁸⁶ zeinak

⁵⁸² *Eramanagatika*: eramanageratikan, eramanageratik.

⁵⁸³ *bihurtzen*: itzultzen.

⁵⁸⁴ *elorri(ak)*: zuhaixka mota arantzatsua.

⁵⁸⁵ *ziranik*: zidanik.

⁵⁸⁶ *gazteat*: gazte bat.

ninduen aditu.
Honixe ohi diot nik
eskaintzen hilean
arkume bat gizena
bere aldarean.

Honexek esan ziran
lehenbizian niri,
egin nion orduan
otoitza berari:
“Zoaz lehen bezalaxe
idi uztartzera,
eta zure zezenak
landan bazkatzera”.

Melibeo:

Horrela zahartze ona,
Titiro, daukazu,
gelditu bazerade
lur hoién jabe zu.
Harria eta ihia⁵⁸⁷
ugari izanik,
larre ederrik asko
badezu oraindik.

Ez ditu erituko⁵⁸⁸
belar berrituak
artaldean dituzun
ardi azunduak,⁵⁸⁹
ez ere kutsatuko
kanpoko ardiak
askotan iduki ohi
duten ezkabiak.⁵⁹⁰

Behin eta berriz zera
zorionekoa,
hemen hartuko dezu
zuk haize freskoa.
Iturri ta erreka
hoientxen artean,
luze-luze etzinik
pago itzalean.

⁵⁸⁷ *ihia*: zurtoin luzeak eta malguak dituen
belar landarea.

⁵⁸⁸ *eritu(ko)*: gaixotu.

⁵⁸⁹ *azundu(ak)*: ernaldua.

⁵⁹⁰ *ezkabia*: larruazaleko eritasun edo gaixota-
sun kutsakorra.

Auzoan zariketan⁵⁹¹
dabiltzan erleak
goizetik arratsera
txupatzen loreak
ekarriko dizute
burrunbaz gogoá,
Titiro, egiteko,
nahi badezu, loa.

Adituaz kantari,
lo jarri artean,
unaia⁵⁹² harkaitzetan
hostoa biltzean,
eta usoak berriz
urrunga⁵⁹³ eginez
eta usatortolak
pagoan negarrez.

Titiro:

Lehenago ikusiko
dirade orinak⁵⁹⁴
bazkatzen dabiltzala
airean arinak
eta lehenago, berriz,
igeri lurrean
arraiak, itsasoa
utzi ondorean.
ikusiko dan baino
nere memoria
ahaztutzen galai gazte
haren arpegia.

Melibeo:

Bitartean, Titiro,
Gu hementxen goaz,
nora ez dakigula,
gure ahuntzak joaz.

Batzuek hartu degu
hegoa aldera,
eta beste batzuek
berriz ifarrera,
esperantzarik gabe

⁵⁹¹ *zariketan*: zarika (sahats, zume) artean.

⁵⁹² *unaia*: behizaina.

⁵⁹³ *urrunga*: usoaren urruma.

⁵⁹⁴ *orin(ak)*: oreina.

sekula guztian
lehen bezala arkitzeko
gu geren herrian.

Abereak bazkatzen,
itaitzen⁵⁹⁵ garia,
herrirako egiten
gazta ta guria.⁵⁹⁶
Gaur soldadu gogorrak,
kupidarik gabe,
dira gure txaoa,⁵⁹⁷
eta landen jabe.

Horra zer diran gerrak
elkarren artean,
horra zer dan gizona
pakea galtzean.

Zoaz orain, Titiro,
gari ereitera,
sagarrak txertatu⁵⁹⁸ ta
mahatsak podatzera.
Guazen guazen aurrera,
ahuntz erdi berriak
lehen zorionekoak,
gaur kupigarriak.

Ez zaituztet gehiago
herriko haitzetan
saltoka ikusiko
nere egunetan.
Ez naiz berriz egongo
zuen zai kantatzen,
ikusiaz maiteok
txarpola⁵⁹⁹ bazkatzen.

Titiro:

Melibeo nerekin
gaurko arratsean

deskantsatuko zera
belarren gainean.
Baditut sagar umo,⁶⁰⁰
gaztaina gozoak,
gazta eta guria
gaur egindakoak.

Begira txaoletan
agertzen dan kea,⁶⁰¹
mendiak egiten du
itzala luzea.

Koplarien tema⁶⁰² Palemon juez dutela

Menalka:

Dametas, horixe bai
dala artaldea!
Melibeo edo nor
dik horrek jabea?

Dametas:

Ez dik, ez, Melibeo,
baizikan Egonek
eman zidak zaitzeko
txit kontuz neronek.

Menalka:

Esku honetan zaude
guztiz, artaldea.
Txit buru onekoa⁶⁰³
da zure jabea.
Neeraren ondotik
hor dabil gau ta egun,⁶⁰⁴
enbidia duela
ongi da ezagun.

Beldur da ez datorren
honera Neera,

⁵⁹⁵ *itaitzen*: igitaitzen/igitatzen (igitatu); igi-
taiaz garia ebakitzen.

⁵⁹⁶ *guria*: gurina.

⁵⁹⁷ *txaol*: txabola.

⁵⁹⁸ *txertatu*: zuhaitzaren enborrean edo adar
batean beste landare baten adarra itsatsi, fruituak
emateko.

⁵⁹⁹ *txarpola*: sarpoila, landare mota bat, usain
onekoa.

⁶⁰⁰ *umo*: fruitu heldua.

⁶⁰¹ Iturriagak hala argitzen du pasarte hau:
"Quiere decir que la noche está encima, cuando
humean las chimeneas, y se prolonga la sombra de
los montes".

⁶⁰² *tema*: apustua, lehia.

⁶⁰³ *buru onekoa*: buru argikoa, zentzuduna.

⁶⁰⁴ *gau ta egun*: gau eta egun, etengabe.

nerekin itzalean
hemen jostatzera.
Bitartean, Dametas,
ardi errapeak
ez dek peril⁶⁰⁵ leher ditzan
gehiegiz esneak.

Beti jazten ari haiz,
eta arkumeak
hezur huts bihurturik
zeauzkak⁶⁰⁶ goseak.

Dametas:

Polikitxo, Menalka,
behazu⁶⁰⁷ hitz egin,
badakigu guk zer dan
gertatu zurekin.

Badakigu nola zu
lehengo egunean
akerrak bazterrerontz
hor begiratzean,
eta haizpean Ninfak
zeudenean, berriz,
algaraka eztanda
egin nahirik irriz.

Menalka:

Hori zan nik Mikonen
mahatsak podatzean,
eta haren sagarren
adarrak moiztean.⁶⁰⁸

Dametas:

Edo honako hemen
pago itzalean
dafinden⁶⁰⁹ tiruztai⁶¹⁰ ta
txirola haustean;
norbaitek gazte honi
ziozkalako⁶¹¹ eman,

⁶⁰⁵ *peril*: arriskua.

⁶⁰⁶ *zeauzkak*: zeuzkak.

⁶⁰⁷ *behazu*: behar duzu.

⁶⁰⁸ *moiztean*: moztean.

⁶⁰⁹ *dafinden*: ipintzen den.

⁶¹⁰ *tiruztai*: geziak botatzeko arkua.

⁶¹¹ *ziozkalako*: zizkiolako.

hi lehertzeko zorian
Menalka hegoan,
eta gaiztakeri hau
ez bahuen egin,
hilko hintzan segurki
hainbeste huen min.

Menalka:

Zer ez dute egingo
gurekin nausiak,
ausartatzen badira
honetara shehiak?⁶¹²
Neronek ikusi haut
Damonen ahuntz bat nik
ebasten habilela
lazioa jarririk.

Bitartean Lisika,
lehertzeko zorian,
zangaka ari huen
ahalegin guztian;
eta ni berriz hemen
nere aldetika⁶¹³
ojuka neagoan
Titirori deika:
“Atoz atoz, Titiro,
hara non dijoan”.
Eta hi kikorika⁶¹⁴
gorderik hegoan,
ezpata belar haien
atzean jarririk,
lotsa baino beldurra
gehiago izanik.

Dametas:

Ahuntza nerea huen,
jakin behar dek hik.
Kantan eta txirolan
Damon garaiturik.
Aitortzen dik Damonek
hau egia dala,

⁶¹² *shehiak*: zerbitzariak, morroi-neskameak.

⁶¹³ *aldetika*: aldetikan, aldetik.

⁶¹⁴ *kikorika*: kokoriko jarri(ta), orkatilen gainean eseririk.

baina esan dik ezin
emango dirala.

Menalka:

Kantan eta txirolan
hik Damon garaitu?
Hik txirolik deanik⁶¹⁵
ez diat aditu.
Gari lasto barekin
ez hintzan ibiltzen
marrangaz⁶¹⁶ jendeari
iges eragiten?

Dametas:

Nahi dek bada jokatu
bi gauza hoietan?
Ifiniko diat nik
behi gazte bat teman,
bi txekor zeaukatzik⁶¹⁷
bere errapean,
eta bi bider jazten
diat egunean.

Esan behar dek orain
jakin dezadan nik,
zer ifiniko dean⁶¹⁸
hik hire aldetik.

Menalka:

Aita ta oazama⁶¹⁹
dizkiat etxean,
ez diat nik eskurik⁶²⁰
gure artaldean.
Bi bider gutxienaz
ohi dizkitek biak
kontatzen egunean
ahuntz eta ardiak.

Baina haizen ezkeroz
burutik maingutu⁶²¹

hartaraino, non nahi dek
nerekin jokatu,
erratilu⁶²² eder bat
etxean badiat,
eta nere aldetik
ifiniko diat.

Aitortuko dek seurki,
hura ikustean,
asko balio duela
behiaren aldean.
Altzimedon handiak,
egindakoa dek,
beste halakorika
hik ikusi ez dek.

Aihen⁶²³ luze eder bat
mahats mordo beltzakin
zeukak inguruan
huntzen⁶²⁴ hostoakin.
Erdi-erdian berriz
Kononen itxura,
Eta ez nak oroitzen
nor dan beste hura.

Nork zuen lurra neurtzen
lehenen erakutsi?
Nork garia noiz erein
eta noiz ebaki?
Ez diat oraindika
ahora eraman,
mokanesan⁶²⁵ bildurik
zeukadat kutxan.

Dametas:

Nik ere badizkiat
beste bi txit finak,
Altzimedon horrexek
berorrek eginak
molorrika⁶²⁶ ederrak
beren kirtenetan

⁶¹⁵ *deanik*: duanik.

⁶¹⁶ *marrangaz*: zarataka, garrasika.

⁶¹⁷ *zeaukatzik*: zeuzkak.

⁶¹⁸ *dean*: duan.

⁶¹⁹ *oazama*: ugazama, amaordea.

⁶²⁰ *esku(rik)*: gaitasuna, ahalmena.

⁶²¹ *burutik maingutu*: burutik jota egon.

⁶²² *erratilu*: erretilua, plater handia.

⁶²³ *aihen*: mahatsondoa.

⁶²⁴ *huntz*: horman edo enborrean gora hazten den landare igokaria.

⁶²⁵ *mokanesa(n)*: musuzapia.

⁶²⁶ *molorrika*: belar landare apaingarria.

zeaukazkitek⁶²⁷ biak
asko txibistetan.⁶²⁸

Han zeagok Orfeo
erdian jarririk,
jarraitzen diotela
arbolak atzetik.
Ez dizkiat oraindik
eskuetan hartu,
behin nituen ezkeroz
nere kutxan sartu.

Baina ikusten bada
nere behi gaztea,
ez dik ezerk balio
ahotan hartzea.

Menalka:

Ez dek iges egingo,
joango nak noranahi,
zergatik hiretzat ni
non-nahi beti nak gai.

Adi zak, baina, zein da
honontz datorrena?
Palemon, horixe dek
juezik onena.
Erakutsiko diat
nik orain nolatan
gizon prestu artean
hitz egin behar dan.

Dametas:

Hasi ari nahi badek,
ez nak ikarutzen,
nik ez diat zankorik⁶²⁹
atzera botatzen.⁶³⁰
Entzun zazu Palemon
zuk arretarekin:
ez degu egin tema
gauza gutxirekin.

⁶²⁷ *zeaukazkite*: zeuzkatek.

⁶²⁸ *txibistetan*: begiztetan.

⁶²⁹ *zanko(rik)*: zangoa.

⁶³⁰ *zangoa atzera bota*: atzera egin/jo, asmo bati ez eutsi.

Palemon:

Hasi zaitezte, bada,
entzun dezadan nik,
soro eder honetan
biak eseririk.

Orain belar berria
hasi da jaiotzen,
orain daude arbolak
lorea botatzen,
orain hostoz betetzen
dirade mendiak,
orain guztia pizten
du udaberriak.

Hasi zaitetz, Dametas,
kantatzen aurrena,
gero Menalkak behau⁶³¹
kantatu hurrena.
Koplarien anparo
diran musandreak⁶³²
pozten ditu aldizka
koplak botatzeak.

Dametas:

Aditu, musandreak,
Jaungoikoagandik
nere koplak botatzen
hasi behar det nik.

Diot, bada, arkitzen
da mundu honetan
gure Jaungoiko ona
leku guztietan.
Ematen ohi du lurrak
hark nahita frutua,
eta hark berak dauka
kopla hoién kontua.

Menalka:

Ni ere maitatzen nau
nere Jaungoikoak,
baditut erregalo

⁶³¹ *behau*: behar du.

⁶³² *musandre(ak)*: musa.

hark egindakoak,
 moredin⁶³³ ederra ta
 erramu berdea,
 ezin arki diteke
 emaitz bat hobea.

Dametas:

Galateak, dalako
 neskaxa arina,
 sagar bat tira eta
 eman ziran mina.
 Zariketara iges
 laster joanagatik,
 nahi zuen ikus nezan
 gorde baino lehen nik.

Menalka:

Nik Amintas ederra
 det asko maitatzen,
 bina horrelakorik
 ez ohi dit egiten.
 Hain maiz etortze zat, non
 txakurrak ohi duten
 Delia bezin ongi
 hura ezagutzen.

Dametas:

Agiri da hemendik
 harako han haitza,
 nere maitearentzat
 han daukat emaitza.
 Joan dan egun batean
 han ikusi det nik
 uso bat arraultzakin,
 kabia eginik.

Menalka:

Nik bialdu diozkat⁶³⁴
 nere maiteari,
 basoan topaturik,
 sagar umotxo⁶³⁵ bi,
 bata eta bestea

ziran hain horiak,
 non urrezko sagarrak
 ziruditen biak.
 Beste bi han daukatzi⁶³⁶
 arbolan zintzillik
 bialtzeko berari,
 ongi umoturik.⁶³⁷

Dametas:

Zer hitz eder ez dizkit
 esan Galateak!
 Ah! Eraman balitza
 zerura haizeak!

Menalka:

Zer zait niri, Amintas,
 zuk nahi izatea,
 mendian bazabiltza
 utzirik sarea.
 Eta zu basurdetan
 zabiltzan artean,
 bakarrik banaukazu
 sareen aldean.

Dametas:

Nere egunak dira
 egun, Galatea,
 nahiko nuke Filida
 niri bialtzeta.
 Ofrenda egunean
 berriz, Galatea,
 nahiko nuke zerori⁶³⁸
 honontz etortzea.

Menalka:

Inork baino gehiago
 maite det Filida,
 nigatika negarrez
 joan zana hori da.
 “Adio, nere ederra”
 esan ziranean,⁶³⁹

⁶³³ *moredin*: hiazinto lorea.

⁶³⁴ *diozkat*: dizkiot.

⁶³⁵ *sagar umotxo*: sagar heldua.

⁶³⁶ *daukatzi*: dauzkat.

⁶³⁷ *umoturik*: heldurik.

⁶³⁸ *zerori*: zu zeu.

⁶³⁹ *ziranean*: zidanean.

eskua estuturik
hemendik joatean.

Dametas:

Zer gauza tristea dan
otsoa artegian,
gariak itaitzean
ujola⁶⁴⁰ zelaian,
arbola gazteentzat
hegoa haizea,
neretzat Amarilis
muxin⁶⁴¹ egotea.

Menalka:

Arratsean erortzen
dan euri lanbroa
lur ereinentzat ohi da
onenetakoa.
Titia utzi duten
ahuntzentzat da berriz
Kaudanaren muskila⁶⁴²
bazka ona anitz.

Zarika⁶⁴³ dute maite
azunduta⁶⁴⁴ ardiak,
Eta nik maite ditut
Amintasen deiak.

Dametas:

Nere koplak gustatzen
zaizka Polioni,
gizentzen daukat txahal bat
eskaintzeko honi.

Menalka:

Polion bera ere
da txit koplaria,
honentzat bazkatzen det
zezen bat lodia.
Jotzera saiatzen da
jasoaz adarra,

eta maiz zabalduaz
oinakin hondarra.

Dametas:

Polion, zu maitatzen
zaituen guztia
bijoa⁶⁴⁵ egitera
non-nai zure nahia.
Eman dizazutela
harkaitzak eztea,
eta basoko laharrak⁶⁴⁶
berriz madaria.

Menalka:

Entzuteko hire antza
duten koplariak,
behaizkik⁶⁴⁷ batek izan
asto belarriak.
Uztar ditzala honek
azeri okerrak,
eta jatzi ditzala
nahi badu akerrak.

Dametas:

Marrubi eta lore
biltzaile gaztea,
kontu, belar azpian
hor dago sugea.
Zoaz hortik igesi
lasterka gaixoa,
sar ez dizazun arren
oinetik miztoa.⁶⁴⁸

Menalka:

Ez joan ardiak arren
ibai bazterrera,
erori ez zaitetzen
handika urera.
Begira non datorren
lasterka aharia,
burutik oinetara
osoro bustia.

⁶⁴⁰ *ujola*: uholdea.

⁶⁴¹ *mutxin (egon)*: muzin (egon), haserre.

⁶⁴² *muskila*: kimua.

⁶⁴³ *Zarika*: zumea, sahatsa.

⁶⁴⁴ *azunduta*: ernalduta.

⁶⁴⁵ *bijoa*: bihoa, joan bedi.

⁶⁴⁶ *lahar(rak)*: sasia.

⁶⁴⁷ *behaizkik*: behar dizkik.

⁶⁴⁸ *miztoa*: sугearen mihia, pozoia.

Dametas:

Ardi hoiek, Titiro,
ibai bazterretik
atzeraazo itzak⁶⁴⁹
doakabetanik.
Nik neronek errekan
edo iturrian,
garbituko dizkiat
nahi dedan guztian.

Menalka:

Ekarri itzazute,
mutilak, etxera
ardi hoiek larretik
laster itzalera.
Errapeak baditu
beroak idortzen,⁶⁵⁰
alferrika ariko
gaituk haiek jazten.

Dametas:

Horren argala dabil
zezena larrean
triparaino estaltzen
duen belarrean.
Zezena ta nausia
daduzkatzi⁶⁵¹ biak
amorearen minak
galdurik guztiak.

Menalka:

Ezin esango det nik
nere arkumeak
daukatziela⁶⁵² behintzat
argal amoreak.
Hezur huts eginika
eman dit gogoak⁶⁵³
ifini dizkidala
niri begizkoak.⁶⁵⁴

⁶⁴⁹ *atzeraazo itzak*: atzera eginarazi itzak.

⁶⁵⁰ *idortzen*: lehortzen.

⁶⁵¹ *daduzkatzi*: dauzkate.

⁶⁵² *daukatziela*: daukatela.

⁶⁵³ *eman dit gogoak*: susmoa dut.

⁶⁵⁴ *Begizkoak ifini*: begizkoa ipini, norbaiti kaltea eragiteko begiradarekin egiten den aztikeria.

Dametas:

Esan zadak hik non da
munduan lekua
sei kana⁶⁵⁵ bakarrika
duena zerua.
Hau esaten badirak,
segurki nik behintzat
idukiko haut beti
nere Jaungoikotzat.

Menalka:

Esak,⁶⁵⁶ non dira arros
eta azuzenak
erregeen izenak,
sortzez dituztenak.
Erantzuten badirak
duda gabetanik,
Filida izango dek
hiretzat bakarrik.

Palemon:

Ez nezake nik behintzat
Jaunak, erabaki
zeinek kopletan egin
dezuten hobeki.
Batak eta besteak,
dezute merezi
behi gazte eder hura,
dedanez ikusi.

Orobat merezi du
beldur dan guztiak
engainatu ez dezan
amore eztiak.
Eta ez gutxiago
amoreen minak
progatua⁶⁵⁷ daukanak
dirala saminak.

Itxi, itxi, mutilak,
atakidak⁶⁵⁸ itxi,

⁶⁵⁵ *kana*: luzera neurria, metroa baino zerbait laburragoa.

⁶⁵⁶ *Esak*: esan ezak.

⁶⁵⁷ *progatua*: frogatua.

⁶⁵⁸ *atakida(k)*: konporta.

soroak edan ditek
gaur urikan⁶⁵⁹ asko.

San Ignazioren martxa

Inazio, gure patroï handia
Jesusen konpainia
fundatu eta dezu armatu.
Ez da ez etsairik
jarriko zaizunik,
inolaz aurrean
gaurko egunean.
nahiz betor Luzifer deaurrua
utzirik infernua.

Zure soldaduak
dira aingeruak,
zure gidaria
da Jesus handia.
Garaitu ditu zure konpainiak
etsaiak.

Ez dauka fedeak,
ez, kristau nereak,
ez dauka beldurrik
inongo aldetik,
Inazio hor dago,
beti ernai dago,
armetan jarria
dauka konpainia.

Txispak armaturik,
bandera zabalik,
gau eta egun,
guk guztiok pakea degun,
beti gau eta egun.

* * *

Bildu dezu, Inazio, munduan,
harritzeko moduan,
jendea
fede biziz betea,
jende jakintsua,
eta indartsua,
beti dabilena
gerretan aurrena,

⁶⁵⁹ *urikan*: urik, ur.

elizaren etsaiak bilatzen,
topatu ta garaitzen.

Dituzu anaiak
gerra egin nahiak,
da hoien legea
etsai garaitzea.
Hoiek ditu bere defentsoreak
fedeak.

Dirade ezagun,
dabiltza gau ta egun
Europan, Asian,
Afrika, Amerikan.

Idorrez, itsasoz
dijoaz ta datoz,
dabiltza nekean,
indio tartean,
edo nahiz kortean,

Manera berean
beti pelean.
Bizitzak dirauen artean,
beti-beti pelean.

* * *

Dira, Inazio, zure anaiak
txit marinel handiak,
arraunak
bogatzen dakitenak.
Pedroren ontzia
badago hertsia
arroka tartean
egunen batean,
bertatik botean dira sartzen,
eta hargana joaten.

Sokakin loturik
arroken artetik,
baldin badu etsairik
hoiek garaiturik,
han daramate ontzia kaiera,
lehorrera,
nahiz izan ekaitza
bogatzeke gaitza,
eta bagen⁶⁶⁰ goiak
nahiz busti hodoiak;

⁶⁶⁰ *bagen*: olatuen.

Arraunak harturik,
 botean sarturik,
 korajez beterik,
 bizitzaz ahazturik,
 “Boa boa” deirik
 dijoaz kaietik,
 bultzeaz kila,⁶⁶¹
 Pedroren ontziaren bila,
 beti bultzez kila.

Ezpata dantza⁶⁶²

Gaur,
 Batista Biribil,
 dantzen ongi habil.
 Ez dek ezpatarik
 hire parekorik.
 Hire kabriolak
 Ozta-ozta txirolak
 ohi dizkik segitzen
 ta konpasa hartzen.

Arrastakakoak,
 eta gorakoak
 dituk halakoak
 non ikustekoak,
 aurrerontz-atzerontz,
 eta bazterrerontz.
 Ez dek dantzaririk
 hi bezalakorik.

Soinu zahar pijoa,⁶⁶³
 onenetakoa,
 jotzen den txanbolin⁶⁶⁴
 aire onarekin,⁶⁶⁵
 honek badik hemen
 orain gero ta lehen
 asko egiteko
 ongi dantzatzeko.

Aurrera korri,
 atzera korri.
 Beti ezpata airean,
 Ez zak honezkero
 ez orain ez gero
 inor jarriko gainean.

⁶⁶¹ *kila*: gila; itsasontzien azpialdean muturretik muturrera doan zurezko edo burdinazko atala.

⁶⁶² Oin-ohar hau gehitzen dio Iturriagak: “Baile Romano llamado *Pirrico*”.

⁶⁶³ *pijoa*: trebea, adoretsua.

⁶⁶⁴ *txanbolin*: danbolina.

⁶⁶⁵ *aire on(arekin)*: grazia.

7. Hiztegia

Iturriagaren liburuari emandako izenburuak iragartzen du bukaeran hiztegi bat dakarrela: “con un diccionario vasco-castellano de las voces que son diferentes en los diversos dialectos”. Euskara-gaztelania 741 hitzeko hiztegi horrexek ematen dio bukaera Iturriagaren lanari.

Lan honetan ez da hitz zerrenda horren edizioa prestatu, baina honek ere badu hiztegia. Datozen orrialdeetan Iturriagaren fabuletan azaltzen diren zenbait hitz bildu ditut testuak hobeto ulertzeko.

Bistan denez, ez dira hitz guztiak jaso. Hiztegitratzeko segitutako irizpideak hauek izan dira: (1) aldaera dialektala izatea; (2) egun erabiltzen ez den edo oso gutxi erabiltzen den hitza izatea, eta (3) hitzak egun beste esanahi bat izatea. Sarrera bakoitzean hitzaren kategoria⁶⁶⁶ eta definizioa agertzen dira, eta *Orotariko Euskal Hiztegia* eta *Euskaltzaindiaren Hiztegia* erabili dira oinarri. Sarrera batzuek aparteko informazioa ere badute, hala nola testuan agertzen diren sinonimoak edo aldaerak. Testuan edozein dela ere hitzak dakarren forma, hiztegian izenak eta adjektiboak mugagabe eman dira eta esanahian mugatuan; aditzak, aldiz, partizipioan jarri dira hiztegian.

⁶⁶⁶ Hiztegian kategoriak adierazteko laburdura hauek agertuko dira: ad. = aditza; adb.= adberbioa; adj. = adjektiboa; interj. = interjekzioa; iz. = izena; izord. = izenordaina; part. = partikula; postpos. = postposizioa.

A

abaraska: iz. eztia gordetzeko, erleek erlauntza barruan argizariz prestatzen dituzten gelaxka hexagonalen multzoa.

abarrots: iz. harrabotsa, zarata.

adierazo: ad. adierazi.

ahalbait: adb. ahal den neurrian, ahal dela.

ahariki: iz. ahariaren okela.

ahitu: ad. agortu, bukatu.

aianatu: ad. aldendu, urrundu.

aihen: iz. mahatsondoa.

aire on: iz. grazia.

aitzur: iz. lurra lantzeko eta harrotzeko lanabesa.

alki: iz. aulkia.

alportx: iz. ehun gogorrezko zerrenda zabal; ertzak bi poltsa eratuz josiak ditue eta sorbaldeetan edo zamarien gainean alde banatara jarrita eramaten da.

amorra: iz. amuarraina.

amorratu: ad. errabiatu, haserratu.

antz: iz.

1. arrastoa, aztarna.
2. irudia, itxura.

apostura egin: ad.-lok. apustu egin.

ardit: iz. balio gutxiko txanpon mota.

arlekin: iz. bufoia.

arlote: iz. eskalea.

arras: adb. osoki, guztiz, zeharo.

arren: mesedez.

artegi: iz. arditegia.

artelaz: iz. artelatza, artearen antzeko zuhaitza; bertatik ateratzen da artelazkia edo kortxoa.

artzanor: iz. artzain-zakurra.

arnas: iz. arnasa.

astazai: iz. astazaina, asto-zaintzailea.

atakida: iz. konporta.

aurrera-txerri: iz. gizentzeko erabiltzen den txerria.

azkar: adj.

1. indartsua, handia.
2. lasterra.

azundu: ad. ernaldtu.

B

bage: postpos. gabe.
Sin. *gabe* eta *gabetanik*.

balentia: iz. balentria.

baratzazai: iz. baratzezaina, baratzea lantzen duena.

batetan: adb. bat-batean.
Bat-batetan ere badarabil.

beltzurra: iz. beltzurda, belabelta; belearen familiako hegazia. Zorigaitzaren iragarle izan ohi da.

benturaz: adb. menturaz, beharbada.

begizko: iz. norbaiti kaltea eragiteko begira-darekin egiten den aztikeria.

bere mesede: izord. errespetuzko trataera.

berori: izord. errespetuzko trataera.

berorren mesede: izord. errespetuzko trataera.

bertatik: adb. berehala, segituan.
Aldaera: *bertatika*.

besabe: iz. lurra landu eta harrotzeko lanabesa.

bezin: adb. bezain.

bezperondo: iz. ilunabarreko otoiitzen ondoko tartea.

bidetxidore: iz. bidezidorra; animalia zein oinezkoentzako bide estua.
Aldaera: *bidetxigor*.

bihurtu: ad.

1. itzuli.
2. bilakatu.

bildots: iz. urtebete inguruko arkumea.

biziro adb. biziki, oso.

bizitza: iz.

1. jaio eta hil bitarteko garaia.
2. solairua.

bizkitartean: adb. bitartean, bien bitartean.

bostortz: iz. lurra landu eta harrotzeko lanabesa.

burruntzi: iz. okela su gainean erretzeko erabiltzen den burdinazko ziria.

buru oneko: adj. buru argikoa, zentzuduna.

burutaratu: ad. bururatu, gogorarazi, iradoki.

D

deaurru:

1. interj. deabru!
2. iz. deabrua.

deaurru-etxe: iz. deabru-etxea, infernua.**deaurrukeria:** iz. deabrukeria.

E

ebatsi: ad. lapurtu.**egiti:** adj. egiatia, egia esaten duena.**elizarakoi:** adj. elizkoia.**elorri:** iz. zuhaixka mota arantzatsua.**emen:** part. omen, ei.**enada:** iz. enara.**epurdi:** iz. ipurdia.**erakeria:** iz. erokeria.**eraman:** iz. pazientzia.**erausi:** iz. erasia, hizketa, murmurazioa.**erez tatu:** ad. haserratu.**eri:** adj./iz. gaixoa.**eritu:** ad. gaixotu.**ernai:** adj. ernea, atzarria.**ernaitsu:** ad. iratzarri, esnatu.**erpo:** iz. orpoa.**errabia:** iz. amorrua.**erratilu:** iz. erretilua, plater handia.**errepain:** iz. errefrau, esaera zaharra.**erruz:** adb.

1. indar handiz.
2. asko.

esku: iz.

1. giza besoaren amaierako zatia.
2. gaitasuna, ahalmena.

espa: iz. kexua.**espentsa:** iz. despentsa, janaritegia.**etxezai:** iz. etxezaina, etxea zaintzen duen pertsona.**etzarri:** ad. ezarri.**etzin:** ad. etzan.**eultze:** iz. erlauntza.**ezkabia:** iz. larruazaleko eritasun edo gaixotasun kutsakorra.

F

fantesia: iz. fantasia.**far-irri:** iz. barre-irria, irribarra.

G

gabetanik: postpos. gabe.Sin. *gabe* eta *bage*.**gabiroi:** iz. gabiraia, hegazti harraparia.**gaidu:** ad. gainditu.**galdor:** iz. gandorra, gangarra.**galgarri:** adj. kaltegarria, galbidera darimana.**gau ta egun:** adb. gau eta egun, etengabe.**gogoak eman:** ad. susmoa izan.**galtzarbe-sare:** iz. zorroa, zakua.**gogoratu:** ad. gogora etorri/ekarri, bururatu.**goiante:** adj. erraldoia.**golde:** iz. lurra landu eta harratzeko lanabesa.**gordaidu:** iz. gordailua, gordetzeko lekua.**gura:** ad. nahi.**guria:**

1. adj. biguna.
2. iz. gurina.

gurrinka: iz. kurrinka; txerriek, basurdeek eta kidekoek egiten duten hotsa.**gurrinkagile:** iz. gurrinka edo kurrinka egiten duena. Kurrinka txerriek, basurdeek eta kidekoek egiten duen hotsari esaten zaio. Ik. *gurrinkari*.**gurrinkari:** iz. gurrinka edo kurrinka egiten duena. Kurrinka txerriek, basurdeek eta kidekoek egiten duen hotsari esaten zaio. Ik. *gurrinkagile*.**gutizi:** iz. nahia, guraria, desira.

H

haren mesede: izord. errespetuzko trataera.**hatz egiten:** ad. hazka egin, arraskatu.**haurgin:** ad. haurraz erditu.**heia:** iz. ukuilua, korta.**higitu:** ad. mugitu.

histu: iz. listua, txistua.
hitzontzi: adj. berritsua, asko hitz egiten duena.
hodoi: iz. hodeia, lainoa.
honen mesede: izord. errespetuzko trataera.
hordi: adj. mozkorra.
huntz: iz. horman edo beste zuhaitz baten enborrean gora hazten den landare igo-karia.
hurritz: iz. zuhaixka mota bat; hurra da bere fruitua.

I

idiki: ad. ireki.
idortu: ad. lehortu.
igari: ad. igeri.
ihi: iz. zurtoin luzeak eta malguak dituen belar landarea.
inguma: iz. tximeleta.
intziri: iz. oinazea edo atsekabea adierazteko hotsa.
io: ad. igo.
itaitu: ad. igitaitu, igitatu, igitaiaz ebaki.
itsu aurreko: iz. itsaurrekoa, itsumutila.
itxoron: ad. itxaron.
itzuli: ad. itzuri, alde egin.
izai: iz. izaina; gorputzetik odola ateratzeko erabiltzen zen zizare mota.

J

jai: iz.
 1. jai-eguna.
 2. igandea.
jakintsun: adj. jakintsua.
jardun: ad.
 1. aritu.
 2. eztabaidatu.
jardun: iz.
 1. jarduera.
 2. lana.
joale: iz. joarea, zintzarria.
jo: adj. joria, lodia.
jorratu: adj. soroko belar txarrak kendu eta lurra harrotu.

K

kaiku:
 1. adj. ergela, tontoa.
 2. iz. esnea biltzeko zurezko ontzia.
kakara: iz. karaka, oiloaren kantua.
kana: iz. luzera neurria, metroa baino zerbait laburragoa.
kantaarazo: ad. kantarazi.
kapagin: iz. lihoa, artilea... kardatzen dituen langilea.
kapoitzar: iz. kapoi handia.
karrika: iz. kalea.
katar: iz. katu arra.
kila: iz. gila; itsasontzien azpialdean muturretik muturrera doan zurezko edo burdinazko atala.
kio: iz. aholagarria, hegaztien ahoko gaitza.
kikorika: adb. kokoriko (jarri), orkatilengainean eseririk.
kolka: iz. loka, arrautzak erruteko egoeran dagoen hegaztia.
kontresta: iz. aurkaria.
kontuan erori: ad. konturatu.
korde: iz. konortea.
kostal: iz. zaku handia.
kuarto: iz. kobrezko diru mota.
kukuso: iz. arkakusoa.
kupida: iz. gupida, erruki.
kupigarri: adj. gupidagarria, errukaria, errukia eragiten duena.
kupitu: ad. gupida izan, errukitu.

L

laborri: iz. izua, beldurra.
lahar: iz. sasia.
laia: iz. lurra landu eta harrotzeko erabiltzen den lanabesa.
laratz: iz. sutondoan, kebidetik zintzilik dagoen katea, pertza edo galdara esekitzeko erabiltzen dena.
latz: adj. kementsua, indartsua.
lausenga: iz.: lausengua; norbaiten gogoia edo onginahia irabazteko egiten zaion hitza edo keinua, askotan engainuzkoa.

legoa: iz. bide neurri zaharra; Espainian gutxi gorabehera 5,5 km-ren baliokidea, Frantzia 4 km-rena.

lepande: iz. lepokoa, koilarea.

letxua: iz. letxuga.

lirdi: iz. lerdea, baba.

lohi: iz. lokatza.

P

pijo: adj. trebea, adoretsua.

progatu: ad. frogatu.

M

maira: iz. orea egiteko erabiltzen den aska modukoa.

majadera: iz. manjatera, aska.

makur: adj. okerra.

marranga: iz. zarata, garrasia.

menean eduki: ad. menpean eduki.

milizkatu: ad. miazkatu.

mintzarazo: ad. mintzarazi, hitz eginarazi.

mizto: iz. sugearen mihia, pozoia.

moiztu: ad. moztu.

mokanes: iz. musuzapia.

molorrika: iz. belar landare apaingarria.

moredin: iz. hiazinto lorea.

musandre: iz. musa.

muskil: iz. kimua.

muxin (egon): adb. muzin (egon), haserre, bekozko ilunez.

N

nahi: ad.

1. desiratu, gura izan.

2. maitatu.

nar: adj. narra; ergela.

O

oazama: iz. ugazama, amaordea.

oju: iz. oihua.

ontz urre: iz. ontzako urrea, diru zaharra, urrezkoa, hogei edo hamasei ogerleko balio zuena.

orduko: adb. ordurako.

orin: iz. oreina.

otadi: iz. otea hazten den lekua.

ote: iz. zuhaixka mota bat.

P

padera: iz. zartagina.

pagu: iz. saria.

pazia: iz. pertza; ura berotzeko edo zerbait egosteko erabiltzen den ontzia.

peril: iz. arriskua.

protxu: iz. probetxu, etekin.

S

sabel-errabia: iz. sabeleko mina, kolikoa.

sangria: iz. odolustea. Antzina, zenbait gaixotasun sendatzeko odola ateratzen zen.

sarri: adb. berehala.

sehi: iz. zerbitzaria, morroi-neskamea.

senper: iz. nekea, estuasuna.

seurki: adb. segurki, ziurrenik.

sinistatu: ad. sinestatu, sinetsi, sinistu.

sort egin: ad. egurra moztu eta bildu.

suburnia: iz. suburdina; egurrari eusteko beheko suan jartzen den burdinazko euskarria.

suharri: iz. sutarako, sua pizteko erabiltzen den harria.

sukalbazter: iz. sukalde bazterra, sutondoa.

sutegi: iz. errementariaren lantegia.

T

teilagin: iz. teilak egiten dituen langilea.

tema: iz. dema, apustua, lehia.

tiruztai: iz. geziak botatzeko arku.

tolare: iz. dolarea; mahatsa, sagarrak edo bestelako frutak zanpatu eta zukua ateratzeko tresna.

tripazai: adj. tripazaina, pertsona jatuna.

turmoi: iz. trumoi.

txalma: iz.

1. zama lanetan aritzen diren animaliei bizkarrean jartzen zaien bigungarri arina.
2. ustekabekoa, desilusioa, ezustekoa.

txanbolin: iz. danbolina.

txangurru: iz. karramarro handi mota bat.

txantxil: iz. esnea neurtu eta banatzeko erabiltzen den ontzia.

txaol: iz. txabola.

txarpol: iz. sarpoila, txarpoila, ezkaia. Landare mota bat da. Sukaldean erabiltzen da janariari botatzeko.

txertatu: ad. zuhaitzaren enborrean edo adar batean beste landare baten adarra itsatsi, fruituak emateko.

txibista: iz. begizta.

txikiratzaile: iz. zikiratzailea, zirikatzailea.

tximitz: iz. zimitza; gizakiaren odola xurgatzen duen intsektua.

txirola: iz. txirula; haizezko musika instrumentua.

txispa: iz. zizpa, antzinako fusil mota; eskopeta.

txit: adb. oso.

txoarre: iz. txolarrea.

txopin: iz. litro erdi inguruko edukieraneurria.

txoriburu: adj. buruarina.

txutika: adb. zutik.

U

uguitu: ad. higuindu, nazkatu, janariz lepo bete.

ujola: iz. uholde.

umazi: izond. umea egindako animalia emea.

umo: adj. heldua, batez ere fruituez ari denean.

umotu: ad. fruituez aritzean, heldu.

unai: iz. behizaina.

urgunka: adb. herrenka.

urriki: iz. gupida, errukia.

urrikigarri: adj. urrikarria, errukarria; errukia ematen, sentiarazten duena.

urrisa: iz. urrixa, animalia emea.

urrunga: iz. usoaren urruma.

Z

zahagi: iz. ardoa edo olio gordetzeko erabiltzen den zakua; abere larruz egin ohi da.

zahi: iz. eho ondoren irinarekin nahasirik gertatzen den ale azal xehatua.

zamatu: ad. kargatu.

zanga: iz. zaunka.

zanko: iz. zangoa, hanka.

zarika: iz. zumea, sahatsa.

zeinta: lok. zeren eta.

zentzadar: iz. neurri mota, hatz loditik erakuslerako distantzia; *zehume* ere esaten zaio.

zerori: izord. zu zeu.

zigoina: iz. zikoina.

zingira: iz. istinga, aintzira lohitsu.

ziriku: iz. zeta.

zirritu: iz. zirrikitua.

zuraitz: iz. zuhaitza.

zut: adb. zutik, tente.

8. Esamoldeak

Izagirrek (1981: vii) dioenez, “herri hizkeraren ezaugarririk nabarmenetakoa da lokuzioa, eta aho hizkeraren sorketa estilistikorik garrantzitsuena (errefrauen erretorika eta moralkeria gabe)”. Hain zuzen ere, berea da dugunik eta euskarazko esamoldeen bilduma nagusietarikoa. 1981ean argia ikusi zuen liburukote hartan euskalduna hizlari “konpetentea” bihurtzea helburu, ehunka esamolde bildu zituen literatura-tradiziotik (eta honek herri tradiziotik). Harako hartan, baina, ez zuen Iturriagaren lana baliatu eta, gaude, hernaniarraren lanean badirela euskaldunaren jariora eta gaitasuna, funtsean hizkuntzaren kalitatea, hobe dezakeen esamolderik.

Jarraian, hortaz, fabuletan aurkitutako esamolde, lokuzio eta esaera zaharrak bildu dira. Helburua euskarazko esamoldeen bilduma osatzea da, hein batean, baina tradizio idatzitik ahozkoa (jatorrizko lekura) itzultzeko asmotan jaso dira esamoldeok. Hizkuntza bihiak behar ditu halakoak eta hiztunen ahotan bestela ematea zail den adierazkortasuna eman diezaiokie mezuari. Halaxe dio Martosek (2007: 239) tesuez eta ahozkotasanuz diharduela:

Surge, pues, como alternativa el relacionar el texto con la experiencia. Reivindicar el valor de la palabra oral, y en concreto de la palabra oral artística, en medio de una cultura predominantemente impresa y visual. También, en línea de una entografía del habla que respeta la diversidad cultural, reivindicamos el valor de la palabra como medio de comunicación de un grupo humano, y como memoria de ese grupo que tiene derecho a perpetuarse.

Jarraian aurkezten diren esamoldeak hurrenkera alfabetikoan daude, euskara baituan emanak, eskuineko zutabeaz azaltzen da zein fabulatan agertzen diren. Erdiko bi zutabeetan esamoldea agertzen den pasarte ematen da, eta baita esanahia ere.

1. taula

Iturriagaren fabuletatik jasotako esamoldeak

Esamoldea	Testuingurua	Esanahia	Fabula
<i>Arra eta demoka</i>	Negarrak utzi eta hasten da atsoa arra eta demoka	Madarikazioa	Atsoa eta arkakosoa
<i>Begia bota (zerbaiti)</i>	Bizkarrean zeraman urre zama handia, ongi botatzen zion jendeak begia.	Zerbaitetan fijatu	Mando zamatuak
<i>Begiak armaturik</i>	Pinto ikustean, begiak armaturik, jasorik sudurra, letaginaz puskatzen zuela hezurra. — Begiak armaturik eta marmarraraz, buztana harontz-honontz maiz erabiliaz	Begiak zabal-zabal irekirik	Txakur biak Katu biak

Esamoldea	Testuingurua	Esanahia	Fabula
<i>Begizkoak ipini</i>	Hezur huts eginika eman dit gogoak ifini dizkidala niri begizkoak	Norbaiti kaltea eragiteko begiradarekin egiten den aztikeria egin	Koplarien tema Palemon juez dutela
<i>Buru batek mila balio, baldin bada abila</i>	Buruak egiten du lanika gehiena, iduririk nekatzen dala gutxiena. Eta esana dago baldin bada abila, buru batek balio dituela mila.	Abila den pertsona edo buru batek, abila ez denak baino gehiago balio du	Jakintsua eta nekazaria
<i>Burua makurturik</i>	Burua makurturik medikua joan zan	Umildurik	Mediku hitzontzia eta eria
<i>Burutik jauzia egon</i>	Baina gizona dago burutik jauzia, nahi badio irabazi Jaunari auzia	Burutik jota egon	Kutuna
<i>Burutik maingutu</i>	Baina haizen ezkeroz burutik maingutu hartaraino, non nahi dek nerekin jokatu, erratilu eder bat etxean badiat, eta nere aldetik ifiniko diat.	Burutik jota egon	Koplarien tema
<i>Denbora ondu</i>	zeren ikusten zuen lehertutzen lanean denbora pixkatxo bat ondutzen zanean	Eguraldiak hobera egin	Txingarra eta txingurria
<i>Dirudien guztia ez da urre</i>	on da jakitea, dirudien guztia ez dala urrea.	Ez da guztia dirudien bezain ona	Kutuna
<i>Egin ezazu on, eta egin ezazu ez dakizula non</i>	Errepainak ohi dio egin ezazu on eta egin ezazu ez dakizula non.	Behar duenari laguntza eskaini behar zaio, ezagutzen ez dugun arren	Otsoa eta zigoina
<i>Eraman txikia eduki</i>	Baina zuen gaixoak eramán txikía, edozein gauzak zuen estutzen guztia.	Pazientzia gutxi izan	Atsoa eta arkakosoa

Esamoldea	Testuingurua	Esanahia	Fabula
<i>Erokeria handia akuiluari jotzea bortizki ostikoa</i>	—Askoz indar gehiago nik baino daukak hik. Erokeri handia ohi dek nerekiko akuiloa jotzea bortizki ostiko.	Kaltegarria da min handi- diagoa eragingo dizun zerbaiti min egitea	Adiskide bi eta hartza
<i>Eta mundu honetan nahi duenak bizi, zer nahi gerta dakion ez du behar etsi</i>	Eta mundu honetan nahi duenak bizi, zer nahi gerta dakion ez du behar etsi	Mundu honetan bizi nahi duenak, kemena behar da eta ez du etsi behar edozer gertatuta ere	Astoa eta igelak
<i>Etsai agiria ez da hain gaiztoa non da estalia</i>	Hargatik esan ohi da etsai agiria ez dala hain gaiztoa non dan estalia	Ezkutuan dabilen etsaia agerikoa baino arrisku- tsuagoa edo gaiztoagoa da	Lehoia eta tximuak
<i>Euria ekarri</i>	Zer denbora dagoan, dakarren euria, edo bortitzegial dan eguzkia.	Euria egin	Kutuna
<i>Ez bada ereiten soroan hazia, ez da etorriko zerutik garia</i>	Errezoak egiten diran bitartean, jardun behar du beti bakoitzak lanean. Ez badegu ereiten soroan hazia ez zaigu etorriko zerutik garia.	Emaitza onak eskuratzeko, lehenagotik lan egin behar da	Atsoa eta arkakosoa
<i>Ezin esan ur honetatik nik ez dut behar edan</i>	Hartzten du txoarrea, haren atzaparrak kentzen diozka bere burla eta farrak. Inork mundu honetan ez dezake esan, ur honetatik nik ez det behar edan.	Ez da esan behar zerbait ez dugula inoiz egingo, ez baitakigu etorkizunak zer dakarren	Txoarrea eta erbia
<i>Faza ederrean</i>	Oilar bat zebilen behin faza ederrean, soroa jorratuaz	Lasai ederrean, patxadan	Oilarra eta azeria Artzai koplak
<i>Galtzen dugun bizitik bizi dira</i>	—Asto handia!— esaten die —ez al hekien oraindik egurgileak bizi dirala guk galtzen degun bizitik?	Gure kontura bizi dira	Aizkora eta kirtena

Esamoldea	Testuingurua	Esanahia	Fabula
<i>Gerokoak, gero</i> <i>Gero gerokoak</i>	—Gerokoa gero —. Zapironek, entzunik zer zion Misipik, —Jan zak nahi badek, —dio —ez diat jango nik. dirade langileak, dira kontuzkoak; ez digute esango, “Gero gerokoak”.	Etorkizuneko gauzak or- durako utzi behar dira, eta orain oraingoz kezkatu	Katu biak Kutuna
<i>Gosez idikirik</i>	Ni, berriz, hemen nago gosez idikirik majaderanez daukat lastoaren pixkik	Gosez amorratzen	Astoa eta txerria
<i>Gosez irrikiturik</i>	Lehoi bat irten zan behin zulotik ehizera, gosez irrikiturik, tripa betetzera	Gosez amorratzen	Lehoia eta tximuak
<i>Gutziz goratua eta</i> <i>haizez betea (eraman)</i> <i>burua</i>	Hargatika zeraman gutziz goratua eta haizez betea gaixoak burua.	Harroputza izan	Erlikiadun astoa
<i>Halako beldurra non</i> <i>ezin ikusi begiekin</i> <i>lurra</i>	Astoak sartu zien halako beldurra, non ez zuten ikusten begiak lurra.	Beldur ikaragarria izan	Lehoia eta astoa
<i>Heste zimurtuarekin</i> <i>egon</i>	Txitxarra gelditu zan argala, umila, heste zimurtuakin eta erdi hila	Sekulako gosearekin	Txitxarra eta txingurria
<i>Hobea da eskuan</i> <i>seguru txoria, ez airean</i> <i>dabilen hegazti handia</i>	Txit errepain eder bat ikasi nian nik. On dek hik aditzea gaur nere ahotik: hobea dek eskuan seguru txoria, ez airian dabilen hegazti handia.	Hobea da seguru dauka- gun zerbait mantendu, hori baztertu eta agian lor- tuko ez dugun zerbaiten bila aritu baino	Arrantzalea eta arraia
<i>Kopet itsusia izan</i>	Eta nola baituen kopet itsusia, joan ziren txitxar kanta eta erausia.	Egoera animikoa adieraz- teko esamoldea	Txitxarra eta txingurria

Esamoldea	Testuingurua	Esanahia	Fabula
<i>Kukuak soinua gaizki jo</i>	Baina gaizki jo zion soinua kukuak, uda joan eta zuen atzeman neguak	Gauzak gerorako uzteagatik berandu egin eta larri ibiltzea. Zezenak harrapatzearen pareko	Txitxarra eta txingurria
<i>Laratzak, herrian diren etxe guztietan beltzak</i>	Honela ikusten du dirala laratzak herrian diran etxe guztietan beltzak eta lan egiteko gure Jaungoikoak guztiok gaituela egiten astoak.	Beste lekuetan gauzak ez dira oso bestelakoak gurearen aldean	Errementaria eta zakurra
<i>Lo pisua (izan)</i>	Lokarriaz lotutzen ez dek gaitz lepoa, zergatik nere ustez pisua dik loa	Lo sakona izan	Arratoi eta saguen batzarrea
<i>Loa sentitu</i>	Ibili ziranean hiru bat legoa, gure nagusi horrek sentitzen du loa	Logura izan	Astoa eta txakurra
<i>Neguak atzeman</i>	Baina gaizki jo zion soinua kukuak, uda joan eta zuen atzeman neguak	Negua iritsi, neguak harrapatu	Txitxarra eta txingurria
<i>Ona, galdu eta gero ezagutu</i>	Ongi geran orduan, hobeto nahi degu, galdu ta gero ona ezagutzen degu.	Galtzen dugun arte ez gara konturatzen genuena ona zela	Igelak errege eskatzen
<i>Pazientzia da gaitz handia txiki egiten duena</i>	Ez det nik, ez, ahaztuko: da pazientzia gaitz handia egiten duena txikia.	Pazientzia laguntzen du gaitz errazago konpontzen	Astoa eta igelak
<i>Senper(rak) ikusi</i>	Ongi jan, ongi edan, behar haurrak hazi, senper orduan ohi du bakoitzak ikusi.	Nekeak izan, estuasunak pasatu	Kutuna
<i>Txakurraren gauerdiko ametsak</i>	Askotan dirudite gure esperantzak osoro txakurraren gaberdiko ametsak	Ilusioak	Esne-saltzailea

Esamoldea	Testuingurua	Esanahia	Fabula
<i>Urrutitik eginagatik intxaurrak soinu handiak, alderatuta izan ohi dira intxaur txikiak</i>	Urrutitika eginagatik intxaurrak soinu handiak alderatuta izan ohi dira askotan intxaur txikiak. Egia handi hau erakutsitzen digu esperientziak.	Zalapartak eta arrabotsak ez dute hobia egiten ezer	Mendia haurgiten
<i>Zalez errabian</i>	Geldi-geldi zegoan zuraritz azpian, gazta nahi, ezin izan, zalez errabian	Gogo biziz, irrikitan	Belea eta azeria
<i>Zankoa atzera bota</i>	Hasi ari nahi badek, ez nak ikarutzen, nik ez diat zankorik atzera botatzen.	Atzera egin/jo; asmo bati ez eutsi	Koplarien tema Palemon juez dutela

9. Adizkitegia

Ondoko taula honetan jaso ditut euskara estandarrean erabiltzen ez diren, baina Iturriagaren fabula liburuan agertzen diren zenbait aditz forma. Lehenik, alfabetikoki ordenaturik, aditz laguntzaileak eman ditut, ondoren aditz trinkoak.

2. taula

Adizkien taula

izan	*edun	-i-
<i>diteke</i> : daiteke	<i>bazendu</i> : bazenu	<i>dirak</i> : didak
<i>ditezen</i> : daitezen	<i>banituke</i> : banitu	<i>dirazu</i> : didazu
<i>dirade</i> : dira	<i>degu</i> : dugu	<i>diote</i> : die
<i>gera</i> : gara	<i>dek</i> : duk	<i>diozkak</i> : dizkiok
<i>hari</i> : hadi	<i>derade</i> : det, dut	<i>dirate</i> : didate
<i>huen</i> : zuan	<i>det</i> : <i>dut</i> eta mendekoetan <i>de-</i>	<i>dite</i> : didate
<i>litzake</i> : litzateke	<i>rala</i> (<i>dedala</i> , <i>dudala</i>) eta <i>dedan</i>	<i>dizkitet</i> : dizkidate
<i>natzazu</i> : natzaizu	(<i>dudan</i>)	<i>indazu</i> : emadazu
<i>nintzan</i> : nintzen	<i>dezu</i> : duzu	<i>ziozkan</i> : zizkion
<i>zaiote</i> : zaie	<i>dezute</i> : dezue, duzue	<i>zizkiran</i> : zizkidan
<i>zaizka</i> : zaizkio	<i>dituzute</i> : dituzue	
<i>zaiozka</i> : zaizkio	<i>geatzik</i> : gaitik, gaitu	
<i>zaiozkate</i> : zaizkie	<i>genduke</i> : genuke	
<i>zan</i> : zen	<i>ginduke</i> : gintuzke	
<i>zat</i> : zait	<i>ginduzkek</i> : geundekek	
<i>zazute</i> : zaizue	<i>bat</i> : haut	
<i>zera</i> : zara	<i>nak</i> : nauk	
<i>ziraden</i> : ziren	<i>nazu</i> : nauzu	
<i>ziran</i> : ziren	<i>zinduen</i> : zintuen	
	<i>zute</i> : duzue; ik. <i>dezute</i>	

*ezan	-ieza-	eduki
<i>zadak</i> : iezadak	<i>dizaioke</i> : diezaioke <i>zarazu</i> : iezadazu <i>bizaie</i> : biezaie	<i>daduka</i> : dauka <i>daukatzi</i> : dauzka <i>daukatzigu</i> : dauzkagu
egon	erabili	eraman
<i>nengoan</i> : nengoen <i>zaudezte</i> : zaudete <i>zegoan</i> : zegoen <i>zeagok</i> : zagok	<i>darabilzute</i> : darabilzue	<i>daramatzi</i> : daramatza
etorri	ibili	-io-
<i>atoz</i> : zatoz <i>aztozte</i> : zatozte	<i>nebilen</i> : nenbilan	<i>diozute</i> : diozue
jakin	joan	
<i>baziakiat</i> : bazekiat <i>dakizute</i> : dakizue	<i>dijoa</i> : doa <i>dijoakio</i> : doakio <i>dijoaz</i> : doaz <i>dijoazkik</i> : doazkik <i>goazemak</i> : goazemak, joan gaitezen <i>zijoan</i> : zihoan	

10. Ondorioak

Lan honetan lau ekarpen bereiz ditzakegu.

Batetik, Iturriagak 1842an argitaratutako 49 fabulen eta beste testu gehienen edizioa atondu dira gaurko estandarren ortografian eta testua ulertzeko ohar argigarriekin. Bestetik, fabula horietatik hartutako hitz dialektal eta erabilera urrikoekin hiztegia osatu da. Iturriagak fabulen liburuan darabiltzan esamolde, lokuzio eta esaera zaharren zerrenda ere prestatu da. Azkenik, taula batean bildu dira euskara estandarren aldean desberdinak diren adizkiak.

Edizioari esker, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasleek eskura dute XIX. mendeko autore baten testu eguneratua; beraz, testu hori zuzenean lantzeko aukera eskaintzen du saio honek. Gainera, hiztegiari eta esamolde zerrendari esker, hizkuntza garatzeko, jasotzeko eta adierazkorrago egiteko tresna jartzen da irakasleen eskura.

Proiektu zabalago baten parte izan nahi luke honek, eta beharrezko ikusten da fabulen edizio honetatik abiatuta unitate, sekuentzia, ikas-egoera edo proiektuak garatzea Lehen zein Bigarren Hezkuntzan euskal literatura eta euskara bera lantzeko, estrategia didaktiko zehatzekin, Rodríguez López-Vázquezek estrategia azaltzen duen moduan ulertuta:

Al situar el corpus textual sobre el que trabajamos en la perspectiva de «estrategias didácticas» estamos organizando el plan de actuación dentro de una perspectiva que no se contenta con la mera formulación de actividades, sino que pretende integrar es-

tas actividades en un marco de procedimientos y estrategias en donde el corpus seleccionado tiene sentido en tanto que vía para producir un cambio cognitivo en la población sobre la que se va a actuar. (Rodríguez López-Vázquez 2003: 121)

Beaskoetxeak eta Iruskietak (2019: 77) erakusten dutenez, “[i]puinaren irakurketa esanguratsuak eta hori garatzeko esku-hartzeak haurren euskarazko hizkuntza-eta komunikazio-gaitasunak garatzen lagundu die”, edozein dela ere ikasle horien ama-hizkuntza. Hizkuntzaren didaktikara begira, edizio honetan bildu ditugun Iturriagaren fabulek aparteak aukera eskaintzen digute LHko zein DBHko ikasleen gaitasunak lantzeko, horretara bideratutako sekuentzia, unitate edo proiektu egokiak garatuz gero. Horretarako, jakina, kasu batzuetan, eta ikasleen hizkuntza-mailaren arabera, beharrezkoa izango da irakasleak irakurketa gidatua eskaintzea, testuaren interpretazioan lagundu eta esanahia eraikitzeko (Colomer *et al.* 2018: 178). Hori izan da lan honetan eskaini ditudan ohar argigarrien, hiztegiaren eta esamoldeen zerrendaren asmo nagusia.

Lan honen helburua ez da izan azaltzea fabulen bidez landu litezkeen alderdiak zein diren eta banan-banan aipatzeak luze joko luke, baina, esaterako, hizkuntzaren erregistro aldetik hitanoko eta zuketako formak eta egun galdurik den errespetuzko trataeraren adibide ugari ditugu. Eredu izan litezke gaurko ikasleek erabilera horien berri izan dezaten.

Lexiko aldetik ere fabulok eskaintzen dutena ez da gutxi. Gizarte aldaketengatik azken hamarkadetan erabilera apalduz edo desagertuz joan diren hainbat hitz agertzen dira istorioetan; horietako asko nekazal munduarekin loturiko lan tresnak, animaliak eta berekin erlazionatutako hitzak dira, hala nola *abaraska*, *aitzur*, *artzanor*, *astazai*, *aurrera-zerri*, *besabe*, *bostortz*, *galtzarbe-sare*, *golde*, *heia*, *jorratu* eta *kio*. Denboraren poderioz, hitz batzuek esanahia aldatu dute, edo beste bat nagusitu zaie: hori da *jorratu* edo *txertatu* aditzen kasua eta neurri batean *uzartu*-rena; lehenak egun adiera abstraktuagoa du eta gai edo ideia bat da jorratzen dena, ez lurra; antzeko prozesua izan dute beste biek.

Ikaslea berea ez den beste euskalkietara hurbiltzea beren hizkuntza maila eta konzientzia linguistikoa jasotzea da. Iturriagak euskara estandarrean ez dauden, edo usu erabili ez diren, zenbait forma ditu: *adierazo*, *aienatu*, *asnas*, *bagel/gabetanik* eta *etzin*, besteak beste.

Gizarte eta kultur aldaketek espazioa eta materiala neurtzeko sisteman ere eragin dute. Iturriagak egun erabiltzen diren ereduez bestelako sistemak dakartza: ardoa neurtzeko *txopina*; distantzia neurtzeko *zentzadar*, *kana* eta *legoa*; pisua neurtzeko *ontza*. *Kuarto* diru mota ere ageri da, eta balio gutxiko *ardit* txanpon mota ere bai.

Esamoldeez den bezainbatean, literatura idatzitik jasoak diren arren, autoreek ahozko tradizioetik hartu ohi dituzte halakoak (Izagirre 1981); beraz, esamoldeak berriro gureganatzea ahozko hizkuntzaren aldeko aldarria egitea ere bada.

Alderdi linguistikotik lekora, kulturalki, historikoki eta etnografikoki ere badute zer erakutsi fabulok, iraganeko ohituren, bizimodu eta pentsamoldeen lekuko baitira. Hizkuntzaren didaktikari, beraz, ikuspuntu funtzionalaz gain bestelako begiratu bat ere ematen zaio.

Bukatzeko, balizko proposamen didaktiko baten bidez ikasleek hizkuntza gaitasunarekin sormena ere landu dezakete irakurritako fabuletatik abiatuak beren istorioak

idatziz, dela poesia bidez (ik. Mendoza & López 1997), dela bertso neurtuen bitartez, dela bestelako testu generoak baliatuz (ik. Delmiro 2015). Seargeant eta Greenwellek (2013) proposatzen dute hizkuntza lantzeko bide paregabea dela idazketa sortzailea, eta Sotomayor, Coloma, Jéldrez eta Osorio autoreek (2020) erakutsi dute zer eragin duen gramatika modu integratuan irakasteak narrazioen idazketaren bidez. Iturriagaren fabula hauetatik abiatuz, hiztegiko hitz sorta batekin istorio bat idaztea edo esamolde horietako bat duen beste bat sortzea izan litezke ikasleen hizkuntza maila jasotzeko jarduerak.

Bibliografia

- 77/2023 dekretua, maiatzaren 30ekoa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria* 109, 2023-06-09. <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/06/2302729e.shtml>
- Álvarez-Uria, Amaia. 2024. *Zuzi iraxegia. Euskal emakume idazleak eta literatura klasikoa*. [s.l.]: Testu Zaharrak.
- Beaskoetxea, Udane & Mikel Iruskietak. 2019. Ipuin-moldaketa herri-hizkerara egokitzeko eta modu esanguratsuan kontatzeko markaketa: ahozko komunikazioa lantzen eta aztertzen Haur Hezkuntzako gelan. *Tantak* 31(1). 53-80. <https://doi.org/10.1387/tantak.20149>
- Beldarrain, Josune. 2010. *Alegia klasikoak euskaraz. Isopeteko, La Fontaineren eta Samaniegoren alegien berridazketen azterketa*. Gasteiz: UPV/EHUko doktorego tesia. <http://hdl.handle.net/10810/12307>
- Blecua, Alberto. 2001 [1983]. *Manual de crítica textual*. Madril: Castalia.
- Bombini, Gustavo & Carlos Lomas. 2019. El oficio de enseñar lenguaje. Entre los saberes escolares y los dilemas éticos. *Textos. Didáctica de la lengua y de la literatura* 86. 7-13.
- Bueno, David, Anna Forés & Antoni Ruiz Bueno. 2023. *La lectura en voz alta: sus beneficios. Un descubrimiento (fascinante) desde la neuroeducación*. Bartzelona: Octaedro Educación.
- Cassany, Daniel. 2021. *El arte de dar clase (según un lingüista)*. Bartzelona: Anagrama.
- Colomer, Teresa, Mireia Manresa, Lucas Ramada & Lara Reyes. 2018. *Narrativas literarias en educación infantil y primaria*. Madril: Síntesis.
- Collie, Joanne & Stephen Slater. 1987. *Literature in the language classroom. A resource book of ideas and activities*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Delmiro Coto, Benigno. 2015. *La escritura creativa en las aulas: en torno a los talleres literarios*. Bartzelona: Graó.
- Del Rio, María José. 1993. *Psicopedagogía de la lengua oral: un enfoque comunicativo*. Bartzelona: ICE-Horsori.
- Del Rio, María José, Pilar Calvet, María J. Galván-Bovaira & Manuel Sánchez. 2016. *Actividades comunicativas para enseñar competencia oral*. Bartzelona: ICE-Horsori.
- Etzaniz, Xabier. 2009 [1986]. *Puntan punta bat. Haur folkloreaken bilduma*. Iruñea: Pamiela.
- Etzaniz, Xabier. 2011. La transmisión de valores en la literatura, desde la tradición oral hasta la LIJ actual. *Ocnos* 7. 73-83. https://doi.org/10.18239/ocnos_2011.07.06
- Europako Kontseilua. 2001 [2005]. *Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako erreferentzia markoa*. Gasteiz: HABE.

- Euskaltzaindia. 2025. *Orotariko Euskal Hiztegia - Diccionario General Vasco*. 16. argit. Bilbo: Euskaltzaindia. <https://www.euskaltzaindia.eus/oe>
- Euskaltzaindia. [s.a.]. *Euskaltzaindiaren Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia. https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegiabilatatu&task=hasiera&Itemid=1693&lang=eu
- Fabregat, Santiago, Carmen Sánchez & Rocío Jodar. 2023. *Didáctica de la lengua y la literatura: diez temas actuales*. Bartzelona: Graó.
- Garmendia, José. 1968. *Obras inéditas de Iztueta (Poesía, correspondencia, testamento)*. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca.
- Garzia, Joxerra. 2008. *Jendaurrean hizlari*. Irun: Alberdania.
- Garzia, Juan. 2005. *Kalko okerrak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Gutierrez, Juncal & María José Ezeizabarrena. 2022. *Hotsetik hitzera. Nola bereganatzen dute hizkuntza haur euskaldunek?* Donostia: Erein.
- Igerabide, Juan Kruz. 2000 [1993]. *Bularretik mintzora. Haurra, abozkotasuna eta literatura*. Donostia: Erein.
- Igerabide, Juan Kruz. 2022. *Ahozko euskal literatura: antologia bat*. Donostia: Alai.
- Iturriaga, Agustin. 1841. *Arte de aprender a hablar la lengua castellana para el uso de las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa*. Hernani: [s.n.].
- Iturriaga, Agustin. 1842a. *Diálogos basco-castellanos para las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa*. Hernani: [s.n.].
- Iturriaga, Agustin. 1842b. *Fábulas y otras composiciones en verso vascongado. Dialecto guipuzcoano con un diccionario vasco-castellano de las voces que son diferentes en los diversos dialectos*. Donostia: Ignacio Ramon Baroja.
- Iturriaga, Agustin. 1884. *Ipuyac eta beste moldaera batzuec Guipuzcoaco izqueran neurtubac*. Tolosa: Eusebio Lopez.
- Iturriaga, Agustin. 1932. *Iturriagaren ipuiak*. Tolosa: Ixaka Lopez Mendizabal.
- Iturriaga, Agustin. 1967. *Ipuiak*. Tolosa & Donostia: Auspoa Liburutegia.
- Ituero, Beatriz & Marta Casla. 2017. *¿Como empieza el lenguaje? Descubrir, explorar y favorecer la comunicación temprana*. Bartzelona: Graó.
- Izagirre, Koldo. 1981. *Euskal esamoldeak*. Donostia: Hordago.
- Laiz, Elena. 2008. Mucho más que canciones. Aprendiendo castellano como segunda lengua. *Textos de didáctica de la lengua y de la literatura* 47. 80-87.
- Lasagabaster, David. 2014. El texto literario como catalizador en la clase de inglés como lengua extranjera. *Impossibilia* 8. 208-229. <https://doi.org/10.32112/2174.2464.2014.108>
- Lazar, Gillian. 1993. *Literature and language teaching. A guide for teachers and trainers*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Manterola, José. 1880. *Cancionero Basco. Poesías en lengua euskara recogidas, ordenadas y acompañadas de traducciones castellanas, juicios críticos, noticias biográficas de los diversos escritores y observaciones filológicas y gramaticales*. Serie III. Donostia: A. Baroja.
- Manterola, Ibon & Itziar Idiazabal. 2009. Euskal eredu elebidunak, murgilketa eta hizkuntzen irakaskuntza bateratua: kontzeptuen berrikusketa. *Euskera* 54(1). 463-504. <https://doi.org/10.59866/eia.v2i54.238>
- Mariscal, Sonia & Pilar Gallo. 2014. *Adquisición del lenguaje*. Madrid: Síntesis.
- Martos, Eloy. 2007. *Cuentos y leyendas tradicionales: teoría, textos y didáctica*. Cuenca: Universidad de Castilla-La Mancha.

- Mendoza, Antonio. 2007. *Materiales literarios en el aprendizaje de lengua extranjera*. Bartzelona: ICE-Horsori.
- Mendoza, Antonio & Amando López. 1997. *La creación poética en las aulas*. Almería: Instituto de Estudios Almerienses.
- Mitxelena, Koldo. 2001 [1961]. *Historia de la literatura vasca*. Donostia: Erein (Berrargit. OC 13, 81-205).
- Mogel, Bizenta. 1992 [1804]. *Ipui onak*. Donostia: Euskal Editoreen Elkarte.
- Molino, Cristina & Laura Mier. 2018. Multiculturalidad en el aula de segundas lenguas: la literatura como recurso en Educación Primaria. *Didáctica. Lengua y Literatura* 30. 157-168. <https://doi.org/10.5209/dida.61960>
- Mounole Hiriart-Urruti, Céline. 2024. *Iparrorratza: kalko eta huts ohikoenen saihesteko bide-laguna*. Bilbo: UPV/EHU.
- Palacios, Sergio. 2017. *Los textos literarios clásicos en la enseñanza-aprendizaje del español como segunda lengua lengua extranjera (LE): estudio, corpus, propuesta didáctica y puesta en práctica para los niveles A1-A2*. Madril: UAMeko doktorego tesia. <http://hdl.handle.net/10486/679868>
- Paya, Xabi. 2013. *Ahozko euskal literaturaren antologia*. Donostia: Etxepare Institutua.
- Pérez Priego, Miguel Ángel. 2011. *La edición de textos*. Madril: Síntesis.
- Reguero Ugarte, Urtzi. 2019. *Filologiatik dialektologiara Nafarroako testu zaharretan barrena (1416-1745)*. Bilbo: UPV/EHU.
- Rodríguez López-Vázquez, Alfredo. 2003. Estrategias didácticas en torno a las fábulas. In Ángel Cano & Cristina Pérez (koord.), *Canon, literatura infantil y juvenil y otras lenguas*, 121-132. Cuenca: Universidad de Castilla-La Mancha.
- Rodríguez-Miñambres, Paloma, Itziar Otegi & Xabier Etxaniz. 2019. Idazlan klasikoak eta eskola. *Tantak* 31(1). 9-25. <https://doi.org/10.1387/tantak.20115>
- Ruiz Arzalluz, Iñigo. 1995. Virgilio Txerribuztangoerrekan (I. Bukoliken eta Georgikeneuska itzulpenak. *ASJU* 29(2-3). 661-696. <https://doi.org/10.1387/asju.8505>
- Salaberri Muñoa, Patxi. 2017. *Axular. Gero euskara xumean*. Bilbo: UEU.
- Sergeant, Phillip & Bill Greenwell. 2013. *From language to creative writing: Introduction*. Milton Keynes: Bloomsbury & Open University.
- Sotomayor, Carmen, Carmen Julia Coloma, Elveria Jéldrez & Gabriela Osorio. 2020. Efectos de enseñar gramática integrada a la escritura de narraciones. *Textos. Didáctica de la lengua y literatura* 89. 48-53.
- Urgell, Blanca. 2015. *Gero. Edizio kritikoa*. Bilbo & Iruñea: Euskaltzaindia & Nafarroako Gobernua.
- Urgell, Blanca. 2018. Lehen Euskara Modernoa. In Joakin Gorrotxategi, Iván Igartua & Joseba A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia*, 543-657. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Vila, Ignasi. 2024. Plurilingüismo en las aulas, conocimiento de la lengua escolar y práctica educativa. *Textos. Didáctica de la lengua y de la literatura* 104. 8-16.
- Zalbide, Mikel. 2007. Pedagogoa Batzar Nagusietan. Hizkuntzen azterbideak, Iturriagaren argitan. *Euskera* 52(1). 61-157.

